

puntua
+
Atzerrian lan egitearen gorabeherak
Laura Macayari elkarrizketa genero aniztasunari buruz



Hasi dira Santa eskean

Eguenetik domekara arte iraungo du 1999an jaiotakoen ospakizunak Eskoriatzan / 19





1999. urtean jaiotako kintoak zuri-gorri jantzita atzo, eguena, Eskoriatzako Fernando Eskoriatza plazan, eguerdian. IMANOL BELOKI

Aloña Mendi punta-puntan eskubaloian

Denboraldi bikaina egiten dabilta gizonezkoen senior mailako bi taldeak; domekan derbia jokatuko dute Arrasateko eta Oñatiko taldeek / 36

Memoria gordetzeko eta egiak dakarren aitortza eskuratzeko bultzada, Elgoibarren eta Elgetan / 6 eta 32

SINADURAK

| | |
|---|------------------------------|
|  | ANDERE ARRIOLABENGOA / 23 |
|  | ASIER ELORTZA / 26 |
|  | OLATZ PAGALDAY / 19 |
|  | AINZANE OIARBIDE / 48 |

MERKE ALDIAK 2 mō betaurreko graduatu erreflexuen aurkako lelarrek 77€
aurretiko prezioa: 97€
www.multipticasgipuzkoa.com

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbizu optikoetan

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA
Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

"Adostasun politikoa bete beharrekoa da"

MARIBEL VAQUERO BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEETAKO ZUZENDARIA Gipuzkoako 23 udalerrri batu dira iaz Diputazioak abiarazitako 'Bizikidetza lantzen' ekimenera; Debagoienetik, Arrasatek eta Bergarak bat egin dute, 2017an egin ere

Ubane Madera DEBAGOIENA

Eguaztenean Debagoiengan izan zen Maribel Vaquero, Bizikidetza eta Giza Eskubideetako zuzendaria. Bergarako eta Oñatiko udaletxeak bisitatu zituen.

Programa aurkeztean, diozue azken hamarkadan egindako lanaren jarraipena dela; zergatik?

Gipuzkoako Foru Aldundiak 12 urteotan izan du Giza Eskubideen zuzendaritza. Haren bitartez, edo diruz lagundu dira edo programak egin dira bakegintzaren edo bizikidetzaren inguruan. Legealdi honetan, ildo horretatik jarraitzeaz gainera, programa berezi bat egin dugu, oinarri jakinekin eta lan eremu jakinei zuzenduta. Bi lan ildo proposatzen dizkiegu udalei: batetik, hitzarmen bat egin dezatela urte guttirako programa jarraitu bat egiteko, eta horretarako dirulaguntza deialdia dute datorren astean publikatuko da, aurten 210.000 eurokoa; eta bestetik, aukera dute urteko programa egiteko aukerarik ez duten udalek, diputazioak berak udalerririk horietan bizikidetzaren aldeko ekimenak sustatzeko.

Zergatik da garrantzitsua udalekin elkarlanean egitea?

Udalak dira herritarrek gertuen duten administrazioa. Agente aktibo dira. Lidergoa dute eta erreferentziazkoak dira. Askoz gertuago dago udal bat Diputazioa baino. Nahi duguna da aliantza egin udalerriekin, udalak lagundu, adostasun politikotik abiatuta, herri horietan bizikidetzaren aldeko lanketa egiteko.

Zela lantzen da zuen eta udalen arteko harremana?

Iaz hasi genuen programa. Aurkezpen formal bat egin genuen diputatu nagusiarekin eta gonbidatu genituen lan hauetan historiko diren hiru udalerririk: Elgoibar, Irun eta Errenteria. Gero, bi jardunaldi egin ditugu alkate eta zinegotzi guztiei zuzenduta, eta ekarpenak jaso ditugu. Beraz,



Maribel Vaquero, Goiena telebistako platoon, eguaztenean. UBANE MADERA

"ZAURI ASKO DITUGU, GIPUZKOAN BEREZIKI, ETA KONFIANTZA ASKO DAGO GALDUTA ALDERDIEN ARTEAN"

programa ez da ezerezetik abiatu. Esperientzia bat badago, printzipio batzuk ezarri zaizkio eta konpartitu dugu nola garatu prozesu hau udalekin. Neu udal leteetara joaten naiz, eta bertan elkarriketak egiten ditut, ez bakarrik gobernuan dagoen taldearekin, baita gainontzeko alderdi politikoekin ere, guztiekin batera; eta programa aurkezten zaie. Zergatik? Oso inportantea delako adostasun politikoa. Zauri asko ditugu euskal gizartearen, Gipuzkoan, bereziki, eta konfiantza asko galduta dago alderdi politikoen artean eta ordezkari-tza daukatenean artean. Ze urte askotan elkarrekin bizi izan gara, baina elkarri begiratu gabe, eta konfiantza hori ere landu egin behar da. Hortaz, joan egiten naiz, esplikatu egiten dut eta interesa sortzen da, orokorrean. Adibidez, urte batetik bestera

zazpi udalerririk gehiago dabilta bizikidetza lanketan.

Ze motatako lanketa egiten da?

Adostasun politikoa lantzea bete beharrekoa da. Interesgarria da adostasun/lanketa politikoa egitea udal barruan, baina baita bizilagunek parte hartzeko foroak lantzea, epe honetan sufritu dugun indarkeriarekin sortutako zauriekin lanketa egingo duen herritar taldeak sortzea, ideologikoki ahalik eta anitzena. Giza eskubideak ere landu behar dira: eskoletan, pedagogikoki, eskole-tatik kanpo... udalerririk bakoitzak erabakitzen du nola egin. Ekitaldi memorialistak lantzea ere garrantzitsua da: terrorismoaren biktimekin, -ETAkoak, GALEkoak, Batallon Vasco Españolekoak...- Beste aukera bat da biktimek erreparatzea eta ikus-tea udalerririk horietan zein den euren egoera. Presoen birgizarteratzea ere landu behar da... Gutxieneko marko horretan mugitu behar dugula iruditzen zaigu. Ze indarkeria edo gatazka urte hauetako ondorioak lantzeko izan dira, eta badugu mahai gainean memoriaren gaia, baina baditugu biktimek ere -guztiak-, baita presoen gaia ere.

Galdetutakoen %15ek aukeratu dute euskarazko harremana

Debagoieneko osasun zerbitzuetan arreta euskaraz nahi dutela eskatu dute 9.750 debagoiendarrek

U.M. DEBAGOIENA

2016ko apiriletik abendura 9.750 lagunek eskatu dute Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratu (ESI) osatzen duten zerbitzuekiko arreta euskaraz lehenesteko. Horixe da *Nik euskaraz nahi dut Osakidetzan* kanpainak emandako fruitua, Debagoieneko ESIk, eskualdeko euskalgintzak -AED, Arrasateko euskara elkarte; Jardun, Bergarako euskara elkarte; eta Loramendi, Aretxabaletako euskara elkarte- eta eskualdeko udalek bultzatutako kanpaina aitzindariaren emaitza, alegia.

Aukera zabalik egongo da

Oraingoz. Ze arreta euskaraz jasotzeko eskaera aukerak zabalik jarraitzen du, eta halaxe egongo da aurrerantzean ere. "Hori bultzatzeko beste kanpainarik ez dugu egingo, baina debagoiendarrei gogora ekarri nahi nieke eskaera edozein momentutan egin dezaketela. Osasun zentroen harreretan aurkez daiteke. Eta egia esan, berehala egiten da; beti ezin izaten da momentu horretan gauzatu, ilara luzeak badaude, presak, baina... Bestela, familia medikuari edo erizainari esanda ere bideratu daiteke eskaera. Eta baita Internet bidez ere, norberaren osasun karpeta sartuta. Hori bai, kontuan hartu behar da herritarrek medikuarenera doazenean osasun kontuengatik doazela, eta halakoetan beti ez dituzte lehenesten hizkuntza

kontuak", adierazi du Ander Manterolak, Debagoieneko ESIko Euskara teknikariak.

Zortzi hilabeteko kanpaina

Edozein modutan, zortzi hilabeteko kanpainaren emaitzarekin pozik daudela azpimarratu du hark. "Kontsultatutakoen artean gehiago dira euskara aukeratu dutenak gaztelania aukeratu dutenak baino", dio, adibide modura, eta gaineratu du bide horretan irabazteko asko dagoela, gainera: "Osasun Txartel Indibiduala dutenei galdetu izan zaie. Debagoien osoan -Aramaio barne-, 60.000 erabiltzaile daude, eta horietatik 50.000 lagun eze zaie galdetu hizkuntzari buruz, edo ez direlako osasun zentrorra joan edo bestelako lehentasun batzuk zitzutelako joan direnean... Beraz, eta kontuan hartuta galdetutako 17.000 lagunetatik 9.750ek euskara aukeratu dutela, oraindik asko dugu irabazteko".

Hitzorduak, abisuak... euskaraz

Arreta euskaraz nahi dela eskatuz gero, Osakidetzak hizkuntza horretan eskainiko dio arreta erabiltzaileari, "aukera dagoen guztietan". Hitzorduak eta bestelakoak euskara hutsean jasoko ditu "eta espezialistetara bideratu behar izaten denetan ere, badakite erabiltzaile horrek profesional euskalduna nahi duela; beraz, ahal den neurrian, horrela bideratuko da", esplikatu du Debagoieneko ESIko Euskara teknikariak.

Gazteak laneratzen laguntzeko Hazilan programa abian da

Euskadiko garapen agentziek antolatutako programa da Hazilan, Europako Batasuneko diru laguntzarekin. Debagoieneko Mankomunitateak dei egin die lanik gabeko 35 urtera arteko gazteei izena eman dezaten. Hiru baldintza daude parte hartzeko: goi-ikasketak izatea, 35 urte artekoa izatea eta langabezian egotea.

Izena emateko aukera urte osoan dago zabalik; baina, urteroko, mugaegun bat ezartzen da, urte horretako formazioa jasoko duten taldeak osatzeko. Aurten, otsailaren 15ean bukatzen da izen-emate epea. Mankomunitatera joanda edo www.debagoiena.eus webgunean egin daiteke.

Gazteei ez ezik, enpresei ere badago zuzenduta Hazilan. Hala, enpresek ere izena eman dezakete garapen agentzian, interesa baldin badaukate kualifikatutako gazteak kontratatuzko.



Langileak lanean, eraikinaren sarreraraino egokitu duten arrapalan. JOSU BILBAO

Otsailean bukatuko dituzte eraberritze lanak

Azaroa ezkerro obretan dihardute Arrasateko ertzain-etxean; bi arrazoirengatik dabilta lanetan: batetik, eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko; eta bestetik, Arrasate barruan bidegorria egokitzen badute, harendako lekua egiteko

Josu Bilbao ARRASATE

Ertzaintzak Gipuzkoa etorbidean duen arreta bulegoa eraberritzeko lanak martxan onean doaz. Eraikina zaharkituta zegoen, Ertzaintzak azaldu duenez, eta horregatik eta bereziki irisgarritasun aldetik, eraikina egokitzeko aldaketa ugari egin dituzte. Azken orduko ezustekorik ezean, hilabete honetako hirugarren asterako bukatuta egongo dira lan guztiak.

Eraikina barrutik eta kanpoko aldetik ere itxuraz aldatu dela ikus daiteke dagoeneko.

Pareta kendu, arrapala gehitu...

Izan ere, begi bistakoak dira zaharberitze lanen ondorioak.

Besteak beste, orain arte eraikina inguratzen zuen kanpoko hesiaren zati handi bat kendu egin dute, bertatik Arrasate barruko bidegorri zatia igaro litekeelako, eta harendako lekua egokitu dute.

Horrez gainera, sarrera nagusia eraikinaren ezkerreko aldean

egokitu dute, orain arte apartekua zegoen espaziotik lekua irabazita. Eta bertaratzeko arrapala jarri dute. Hain justu ere, ertzain-etxera sartzeko bi eskailera tarte gainditu behar zituzten herritarrek, eta irisgarritasunik eza hori konpontzeko sortu dute arrapala eta sarrera berria egin eraikinari.

Eta horrekin batera, eraikinaren barruko gelak eta bulegoak modernizatu eta berrantolatatu egingo dituzte; izan ere, aspaldikoak dira, eta, gaur egungo beharretara egokitzeko, espazioa beste modu batera antolatu behar dute, Ertzaintzak emandako azalpenen arabera.

Epe barruan bukatuko dituzte

Indenort eta Proviser Iberica enpresei esleitu zitzaizkien eraikinak eraberritzeko obrak, 300.000 euroko aurrekontuarekin. Lau hilabeteko epea ezarri zuten lanak bukatzeko, eta badirudi epe barruan edo lehenago bukatuko dituztela.

Goizez eta arratsaldez

Arrasaten duen arreta-bulegoan, goizeko orduetatik 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldekoan 16:00etatik 20:00etara salaketak jasotzeko eta jendea artatzeko zerbitzua ematen du Ertzaintzak. Obren eraginez, behin-behineko sarrera Etxetxikiak kalean dago —eskumako aldean—, baina bi aste barru irekiko dute sarrera berria, lehen apartekua zegoen tokian jarri dutena, hain zuzen ere. Gainera, azken asteetan herritarren esku egon ez den Bergarako komisariarekin hitz egiteko interfonoa ere berriro martxan jarriko dute, sarrera berriaren alboan.



Iazko Kilometroak Txikia ekitaldia, Bergaran. GOIENA

Kilometroei begira lehenengo proba, otsailaren 12an

Kilometroak Txikia egingo dute otsaileko bigarren domekan, irailaren 24ko festarako prestakuntza modura

Txomin Madina OÑATI

Oñatiko Txantxiku Ikastolak jarraipena emango dio iaz Bergarako Aranzadik martxan jarritako Kilometroak Txikia ekimenari. Hala, otsailaren 12an egingo dute ekitaldi hori; batez ere, haur eta gaztetxoek zuzenduta egongo da.

Irailaren 24rako lantzen dabilen zirkuitua probatzea, funtzionatzen ote duen ikustea eta jendea gustura gelditu den ikustea da ekimenaren helburuetako bat, haurrei ere euren rola emanaz. Ibilbidea Txantxiku Ikastolan bertan hasiko da, 11:00etan egingo den zinta mozketarekin, eta Aloñaren magalean barneratuko da gero: Bidebarrietatik Santa Lutzara igoko dira, gero San Martindik eta Kale Barritik jaitsi eta Foruen plazan amaituko da. Ibilbidea osatzeko ordu eta erdi beharko dutela uste dute antolatzaileek.

Festa giro nabarmena izango du, gainera, Kilometroak Txikiak, eta, horretarako, herriko hainbat taldek hartuko dute parte; besteak beste, dantzariak, txorimaloek eta musikariak.

Txantxiku Ikastolakoek, gainera, Trauti elkarteak ere gonbidatu dituzte ekitaldi horretara, ibilbidea probatzeko eta mugikortasun zailtasunak dituztenentzako proposa den edo ez frogatzeko.

Zapiekin joateko deia

Antolatzaileek Kilometroak Txikian *Lekaixoka!* zapiak janztera animatu dituzte herritarrak. Egunean bertan eskuratu ahal izango dira zapiok, baina baita aurrez ere; esaterako, Kilometroak dendan.

Era berean, otsailaren 6an, 8an eta 10ean ikastolako patioan ere jarriko dute zapiak saltzeko postua, 16:30etik 17:15era.


Aitor Garitano, zuzendari

Euskal Trenbide Sareko Administrazio Kontseiluak Aitor Garitano arrasatearra izendatu du erakundeko zuzendari nagusi, Jose Luis Sabas Olabarria ordezkatzuz.

Ibilbide profesionala Dragados SA enpresan eta CTL Packaging USA, Construcciones Moyua eta Acciona enpresetako instalazio berrien ingeniari arduradun gisa gauzatu du.



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otolara lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

100 eragiletik gora Korrika prestatzeko gertu

Eskualdeko herri guztietan batzordeak sortu dituzte Korrikaren 20. edizioaren prestaketa lanak egiteko. Korrika ekonomikoki laguntzeko aukera ere izango da, jantziak erosiz, kilometroen donazioak eginez edo Korrika Laguntzaile txartel bidez

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Korrikaren 20. edizioa berezia izango da, eta hori behar bezala prestatzeko lanak jada hasi dira. Herriz herri batzordeak sortuta daude, baita Korrika igarotzen ez den herrietan ere, eta hainbat ekintza prestatuko dituzte aurtengo edizioa arrakastatsua izan dadin.

Aurten Debagoieneko Korrikako koordinatzaile lanak egingo ditu lehen aldiz Aitor Juaristik arrasatearrak. "Batzordeak duela bi aste sortu genituen, eta aurtengo ekitaldiaren aurkezpen fasea jada eginda dago. Orain, Korrikaren bezperako ekintza batzuk antolatuko dira herriz herri, bertso afariak, apaintze lanak... eta Korrika Txikia herrietatik pasatu aurreko egubakoitzean egingo dira.

Finantzatzeko aukerak

Hainbat aukera egongo dira Korrika ekonomikoki laguntzeko. Lehenik eta behin, Korrikako



Orain bi urteko Korrika, Arrasaten. GOIENA

jantziak eskuratu daitezke Arrasateko AEK-ren egoitzan, nahiz eta herrietan egiten diren ekintzetara ere postutxoak eramango duten, eta Interneten ere erosi daitezke. Bestetik, norbanakoek Korrika Laguntzaile txartela

eskuratu dezakete 12 euroren truke, eta, babes ekonomikoa emateaz gain, hainbat dandatan deskontuak izango dituzte txartela aurkeztuz gero. Tabernei eta komertzioei ere zabalduko diete laguntzeko aukera, eta pegatina bat jarriko diete laguntzaile bezala identifikatzeko.

Bestalde, udal zein eragile ezberdinek kilometro donazioak egin ditzakete. "Korrikako kilometroak hartu nahi dituztenek debagoienakorrika@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, zein herritan hartu nahi duten esanaz, eta ondoren zozketa egingo dugu zein lekutan tokatzen zaien zehazteko. Udalentzat 600 euroko kostua izango du eta elkarteentzat 425 eurokoa", azaldu du Juaristik.

Argazki zaharren bilketa

Debagoienetik pasatako lehen edizioen argazki bilketa jarri dute martxan, gero, horrekin, erakusketa bat antolatze aldera. "Etxean argazki zaharrak dituztenei lehen aipatutako helbidera bidaltzeko eskatzen diegu. Azken edizioetako argazkiak erraz lor daitezke, baina zaharrak batzea polita izango litzateke".

"Ni aukeratzea piropo moduko bat izan da"

AITOR JUARISTI
DEBAGOIENEN KORKIKAREN
KOORDINATZAILEA

Euskararen munduan asko ibilitakoa da, eta aurten lehen aldiz Debagoieneko Korrika koordinatzaile arduratu du.

Nola hartu duzu esku artean duzun erronka?

Bi eratarata. Lehenik eta behin, izugarritzko erronka da. Jende asko ezagutuko dut, eta nire burua hobeto antolatzeko baliagarria izango da. Bestalde, ikasteko aukera bat bezala hartzen dut, ekintza asko aldi



XABI GOROSTIDI

berean koordinatzea, komunikabideekin harremana... arlo pertsonalean asko emango dit, nahiz eta lan asko egitea tokatuko zaidan. **Zer sentitu zenuen izendatu zintuztenean?** Lagun batek esan zidan sekulako piropoa dela ardura hori egiteko aukeratua izatea. Aurretik AEDn, Sagarberrin, EHEN... beraz, eskaintza hau jasotzea lan horren guztiorren aitortza moduko bat da.

MGEPko bederatzik ikerketa talderentzat bikaintasun aitortza

Eusko Jaurlaritzatik etorri da aitortpena, enpresekin elkarlanean egiten duten lan onaren erakusle gisa

X.G. DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sarean dauden ikerketa taldeen artean bikaintasun aitortzak egin ditu, eta horietako bederatzik Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikerketa taldeek jaso dituzte.

A eta B mailetako aitortzak

Sarrituen artean, bi mailatako aitortzak eman dituzte jasotako puntuazioaren arabera. Bederatzik horietatik bostek jaso dute maila gorenekoa eta beste laurek, aldiz, B mailakoa. Hauek dira aitortza jaso duten taldeak: jariatzen mekanika, material konposatuak, konformazioa, makina elektrikoak, sistema xurgatuak, diseinu mekanikoa, errendimendu handiko mekanizazioa, sistema adimendunak eta energia. "MGEP barruan hamasei ikerketa talde daude, eta horietako bederatzik jaso dute bikaintasun aitortza. Hasiere batean, A mailako aitortzak kalitate handiagoarekin lan egiten den seinale dira, eta, orokorrean, finantzazio partida bat izaten dute. B mailakoen kasuan, ez dute finantzaziorik jasotzen, baina Eusko Jaurlaritzak iker-

ketara bideratzen dituen diru laguntzak jasotzeko lagungarriak dira, nolabait esatearren, kalitate maila bat duzula bermatzen duelako", azaldu du Laurentzi Aretxabaletak, polimeroen eta konpositeen teknologiaren ikerketa taldeko koordinatzaileak.

Ikerketa kolaboratibo ereduak

MGEPko hamasei ikerketa taldeek ikerketa kolaboratibo ereduak darabilte. Inguruko enpresten eta erakundeen beharrak asetzera bideratzen da, eta hainbat emaitza arrakastatsu eman ditu.

"Guk enpresa askorekin batera egiten dugu lan. Adibide bat jartzearen, aspalditik gabiltza Irurena enpresarekin elkarlanean. Pultrusioan oinarritutako fabrikazio prozesu berri bat garatzeko eskatu ziguten. Proiektu txiki batekin hasi ginen hasieran, baina, pixkanaka, eboluzionatzen joan gara eta gaur egun Europa mailako proiektu garrantzitsu batean sartuta gauden. Horretaz gain, beste puntako enpresa batzuekin ere ari gara elkarlanean; Fagor Arrasate edo CIE Automotive, kasu", azaldu du Aretxabaletak.



FAGOR ARRASATE

Ate irekiak Fagor Arrasaten

Kooperatibaren 60. urteurrena ate irekien jardunaldi batekin hasi dute. Aste osoa iraun du eta European instalatuko den lehen abiadura handiko serbo-konbentzional hibridoa erakutsiko dute bertan.

2016a 225 milioi euroko salmenta kontsolidatuekin bukatu zuen eta gaur egun 868 lagunek egiten dute bertan lan.



Agintari politikoak eta Aranzadiko ordezkariak Kolunbarioaren inaugurazio ekitaldian, Iñigo Arregi arrasatearraren *Duintasuna* eskultura atzean dagoela. EUSKO JAURLARITZA

Jokin Bereziartua ARRASATE

Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioaren inaugurazioan Debagoieneko ordezkariak zabalaren izan zen. 36ko gerran hildako eta desagertutako 27 gorpuzki hilobiratu zituzten Olasto hilerriko Kolunbarioan; 27 horietatik 25 dira identifikatu bakoak eta bi identifikatutakoak. Identifikatuetako bat Jesus Zuazua Mondragon da, Arrasatekoa, eta Dragones batailoiko milizianoa. Antsuategi baserriko hobian aurkitu zituzten Zuazuaren gorpuzkiak, 2004an, Aranzadi Zientzia Elkarteak gorpuak lurretik ateratzeko egindako lanetan.

Bailarako hamaika gorpuzki

Gainera, astelehenean lurperatu zituzten 27 gorpuzki horietatik hamaika dira Debagoienean aurkitutakoak: bederatzia Elgetan eta bi Arrasaten. Elgetan lurpetik ateratako bederatzia gorpuzki horietatik sei dira Antsuategi baserriko hobian aurkitutakoak eta hiru Intxorta mendiko hobian. Antsuategin aurkitutako sei horietatik bat da arrasatearra, eta, hain zuen ere, identifikatuetako bat: Jesus Zuazua Mondragon.

Bestalde, Arrasateko Kurtzetxikin aurkitutako bi gorpuzkiak identifikatu gabekoak dira. Kurtzetxikiko lanak 2002an egin ziren eta Elgetakoak 2004an; Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, gorpuak lurpetik ateratzeko lanak Aranzadi Zientzia Elkarteak egin ditu.

Aitortza publikoa eta bateratua

Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioak lotura handia du Debagoienarekin, bertan hilobiratu dira-eta bailaran aurkitutako hamaika gorpuzki; tartean daude Arrasateko Jesus Zuazuarenak, Elgetako Antsuategi baserrian aurkitu eta identifikatu diren gorpuzki bakarrak



Etxebarria, Ezenarro, Urkullu eta Beitia. EUSKO JAURLARITZA



Arrasateko ordezkariak zabalaren gerturatu zen. JAGOBA DOMINGO



Dantzariak gorpuzkien aurrean dantzan. EUSKO JAURLARITZA



Bailarako eta kanpoko aurpegi ezagunak talde argazkian. J. DOMINGO

"Amaitu da iluntasun garaia"

Asteleheneko ekitaldia Jaurlaritzaren Gogora Institutuak, Aranzadik eta Elgoibarko Udalak antolatu zuten. EAJ, EH, Bildu, Podemos eta PSE-EEko ordezkariak izan ziren. Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela, hainbat agintari politiko eta memoriaren berreskurapenean lanean diharduten ordezkari izan ziren ekitaldian. "Bidegabekeria kriminal baten biktimak izan ziren. Har ezazue gure hurbiltasuna, elkartasuna eta aitortza; haien oroimena eta oroimen guztiak biziberritzeko ari gara lanean. Jakin behar dute amaitu dela isiltasun eta iluntasun garaia", adierazi zuen Urkulluk. Aranzadiko presidentea Paco Etxebarria ere izan zen ekitaldian: "Bada esan zuenik, 'utz itzazue hildakoak bakean'. Horren aurrean, beste batzuek, hezurrei haragia jartzen dietenak, erantzun ahal izan zuten esanez: 'Hiltzaileek abandonatuta utzi zituzten tokian ez uztearren bada ere, atera egin behar ditugu'. Eta horrekin lagundu osatu gabeko egia osatzen. Hilda daudenei berdin zaie non dauden, baina bizirik daudenei ez".

Bailarako ordezkarien artean, Arrasateko alkate Maria Ubarratzenak Kolunbarioaren garrantzia nabarmendu zuen: "Kurtzetxikin identifikatu gabeko bi pertsona aurkitu zirelako etorri gara. Aitortza bat da; bidegabekeria bat izan zen gertatutakoa eta beharrezkoa da erreparazioa. Asko dago egiteko, baina halako pausoak ematea oso garrantzitsua da". Elgetako alkate Iraitz Lazkanoren ustez, memoria historikoaren berreskurapenean "urrats txiki" bat da: "Gorpuzki hauek bilgeti baten zerbaki hutsak izatetik errekonozimendu publiko jarraitu bat izango duen leku baten hilobiratu dira. Pertsona hauek arrazoi politikoenatik erail zituzten; beharrezkoa da halako espazioak Euskal Herri osoan irekitzea".

2020ra arteko ikerketa plana

Gerran desagertutakoak aurkitu eta identifikatzea Jaurlaritzaren ikerketa planaren helburuetako bat da. Lanketa hori 2015ean aurkeztu zuen eta Aranzadirekin batera garatzen ari da; 2020ra arteko lan programa bat diseinatu dute eta ordura arte enterramenduak egon daitezkeen tokiak ikertuko dira.

Txirotasun energetikoa**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Egoera ekonomikoa dela eta, soldatak txikiagoak dira, energia garestiagoa eta etxebizitzak energetikoki eskasak. Gero eta jende gehiagok ditu arazoak etxebizitza era egokian izateko: udan hozteko, neguan berotzeko, ur beroa izateko, janaria berotzeko, eta abar. Horrek eskatzen duen energia ezin dutelako ordaindu. Horri, pobrezia energetikoa deritzo.

Osasun arazoak ekar ditzake, batez ere, pertsona nagusietan; haien heriotza tasa igo egiten da eguraldi hotza edo bero zakarra egiten duenean. Estatuan, %15 inguru dira egoera hori jasaten duten pertsonak.

Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak (CESE) aholkatzen du energia

deszentralizatzea, energia berriztagarriak erabiliz; izan ere, etxebizitza guztiek behar duten energia sortzeko ahalmena izango balute, inor ez litzateke pobrezia egoera horretan egongo.

Aldaketa sakon horiek ez dira gertatzen, enpresa handien interesak babesteko, baina pauso txiki batzuk eman dira, legea aldatuz, egoera horretan daudenei energia hornidura ez mozteko.

Lehendakariaren esanetan, industriaren lehiakortasuna ere kolokan dago energiaren prezio altuagatik; izan ere, Europako garestienetakoa da.

Egoera horri aurre egiteko, ez da nahikoa argindar enpresa handien aurrean protesta egitea norberaren lantegiak arazoak dituenean.

Eredu energetiko berri baterako plataformak aholkatzen du kooperatiba energetikoei energia erosteko eta daukagun energia potentzia txikitzeko.

Jokalariaren aitak arbitroa iraindu, eta klubak semea kanporatu...**JON TORNER ZABALA**

[HTTPS://GOO.GL/6LBORM](https://goo.gl/6LBORM)

Alebin mailako futbol partida Zaragozan (Espainia). Mamadow Sow zen arbitroa, 20 urteko mutil beltza. Partida amaitzean, Ranillas taldeko jokalaria baten aitak "negrito" deitu zion, eta muturrean jotzeko imintzioa egin. Gainerako ikusleek gerarazi zuten. Denbora gutxira polizia agertu eta aita hura eta beste bat atxilotu zituen.

Gertaera horren aurrean, Ranillas klubak zer erabakiko eta aita horien semeak taldetik kanporatzea, gurasoak futbol zelaitik urrun mantentzearen.

Bai, galdera bera egin diogu geure buruari: zergatik zigortu dituzte 11 eta 12 urteko bi mutikoak, euren aitek egindako kirtenkeriagatik? Ez du ez buru ez hankarik. Agian,

klubaren asmoa da mutikoak denbora txiki baterako kanporatzea, ez dakit, aste pare baterako edo, gurasoek gaiaz hausnartu eta jarrera alda dezatela bultzatzeko. Baina horrela izanik ere...

Zer ariko dira pentsatzen mutiko horiek?

Arreta gunea**ANGEL ERRO**

[HTTPS://GOO.GL/GYT3QN](https://goo.gl/GYT3QN)

Jakin-mina dut Trump Clinton bezain txarra edo, hobeki esan –orain Obama aipatu ohi denez horrelako konparazioetan–, Trump Obama bezain txarra dela uste eta esaten dutenek noiz emanen dioten beren buruari Trumpen neurriak kritikatzeko hasteko baimena? Epe bat neurgarria finkatu dute? Hala bada, egunetan neurgarria ala eskubide urraketatik? Trumpen kontrako adostasun orokortua apaltzen hasi artekoa, hau da, hainbat

jendekin –edo hainbeste jendekin– bat etortzeko aukera txikitzen denean?

Nik, beraiek banintz, baloia kanpora jaurtiko nuke, munduko eskubideen murrizketa guztiak AEBetan orain gertatzen ari direlako inpresio interesatua salatzeraz joaz. Ez da kezagarria hemengo albistegi guztiek egunero Washingtonen sinatu dekretu batekin irekitzea? [...] Egon behar dugu haien zilborrari begira? Sistema honek Trumpen politiketikiko desadostasuna, zuzenean adierazi gabe, iradokitze gaitasunaz gain, onpentsalari besterenduen iritzi buenistaren kontra lerrokatze abantaila ere badu.

Aholku bat da. Beharbada, bide hobek izan dira. Hau hartuz gero, presta daitezela, beste (edozein) hautagai(a) nahiago genuenok ere notizien arreta guneaz nekatzen hasi baino lehen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Agiri baten indarra

Urteak dira lehenengo aldiz atzerritar batekin topo egin nuela. 37 urte! Jaiotzen garenetik atzerritarrekin gaude eta.

Atzerritarra zure etxetik kanpo bizi den edonor da, zu zeu zara, ni neu zure etxera joaten banaiz atzerritarra naiz. Baina, normalean, atzerritarrek beste batzuekin identifikatzen ditugu, ezta?

Badira aste batzuk Caritasen lanean nagoela; atzerritarrekin, gehienbat: sahararrak, pakistandarrek, marokorrek, nepaldarrek, txiletarrak, hondurastarrak... bizitza hobe baten itxaropen batekin datozen atzerritarrek.

Benetan pentsa dezakezu beraien etxea, familia edo lagunak pozik utzi dituztela?

Zuk utziko zenituzke?

Batzuek gure etxean topatuko dute amestutako bizitza proiektua, baina, seguruenik, hori bizitzaren kasualitate bat izango da.

Gehienon asmoa etxera bueltatzea da.

Bizitza oso kapritxosoa da batzuetan eta gerta daiteke hemen aurkitzea amestutako bizitza, baina hori oso kasu gutxitan gertatzen da, pelikuletan asko.

Atzerritarra zarenan agiriak behar dituzu zure

egoera orekatzeko, egoera administratibo erregularra bilatu behar duzu.

Egoera irregularrean bizi zarenan ez duzu ia ezertarako eskubiderik, ezta lasaitasunez lo egiteko eskubiderik. Egun osoan beldurrez zerbait gerta daitekeen beldurrez.


Aurreko astean, orain urte batzuk bizitako antzerako egoera bat errepikatu zen. Bat-batean gaueko hamaiketan telefono dei bat jaso eta, "Agurne, taldeko bi harrapatu dituzte". Gorputz osoan hotza sentitu nuen eta bihotzean beldurra, pena, tristura, haserrea...

Zer-nolako indarra izan dezake lehen mundu deitzen diogun honetan agiri batek, ezta?

Batzuontzat hain erraza izan daitekeen prozedura administratibo batek atzerritarrentzat Everest igotzea baino zailago bilakatzen da, lasaitasuna emango dion agiria lortzea, lo lasai egiteko agiria.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

Ziklismoan, podiumean, azafatak bai ala ez?

GIANNI BUÑO

DEBAGOIENA

Ez, noski! Zertarako? Euren gorputzak erakusteko? Ziklistaren batek ipurdia ukitzeko, azkenaldian gertatu den moduan? Musutxoak emateko eta ziklisten aurpegiak karminez pintatzeko?

Hala ere, galdera beste bat izan beharko litzateke: zelan da posible, 2017an, oraindik ere, emakumeak, azafatak, pertsonak, podiumean egotea, gorputza erakusten, beste zereginik ez dutela han goian?

Ondo egin dute aurten Australian, orain dela pare bat aste, Down Under proban: sariak azafatek eman beharrean, gizonkote bat egon zen podiumean, bere tripatzarrarekin eta kapela handi batekin. Eta kito! Zertarako beste ezer?

Ziklismoaz gain, beste kirol askotan ere izaten dira podiumak, baina saria besterik gabe ematen da, cava edo xanpain botila bat zabalduta. Tira, hori ere... ez dakit, ba, nik... alkoholaren apologia ez ote den!

ZUKUGAILUA

OÑATI

Ez. Inork baietz erantzun dezake, ala?

Eta gainera, hori gutxi ez balitz, azafaten eta ziklisten arteko harremanen gaineko txutxu-mutxuak betidanik egon izan dira; denoi etortzen zaizkigu hainbat ziklistaren izenak... italiarrak eurak... Esaten dutenez, bizikletan bakarrik ibili ez: lasterketa egunen ondoren ere majo ibiltzen ei ziren. Egia izango ote den, puztuta ote dagoen kontua... auskalo!

HURRENGO ZENBAKIAN: WHATSAPP TALDEETAN DAUDENEK AUKERA IZANGO DUTE TALDEKO KIDEAK NON DAUDEN JAKITEKO. Iritzia emateko posta elektronikoa: berriak@goiena.eus / Webgunea: goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Gaia lantzerakoan izandako jarraikortasuna saritu dute"

ANE IRAZABAL KAZETARIA

M. Altube/M. Bikuña ARRASATE
Gerratik ihesi, Europara iritsi gura duten errefuxiatuen egoera bistartzeko egindako lanarengatik Argia saria jaso berri du Ane Irazabal kazetari arrasatearrak. Usurbilen egindako sari banaketa ekitaldian egoteko sartu-irtena egin zuen aurreko aste bukaeran, eta tartea izan zuen GOIENAREN galderei erantzuteko.

Aitortza ederra egin dizute prentsa idatziko Argia sariarekin.

Bai, hala da. Nik uste dut saritu dutena izan dela jarraikortasuna. Izan ere, azken urte eta erdian jardun dut gai hori lantzen bai Ekialde Hurbilean, bai Europako txoko ezberdinetan, eta, nire ustez, azpimarratu gura izan dute gaia lantzerakoan jarraikortasuna egon izana. Gaur egun, erritmo oso frenetiko dago: albisteak badatoz, badoaz... eta gai baten gainean halako jarraikortasuna egotea baloratu dutelakoan nago.



Ane Irazabal kazetaria. ENKO AZKARATE

Ezustean hartu duzu saria?
Ezusteko handia izan zen. Belgradeko errefuxiatuen auzia jarraitzen nengoela deitu zidaten sariaren berri emateko. Esan zidatenean saria zela errefuxiatuen

gaiarengatik, asko emozionatu nintzen. Eta saria emozio handiarekin jaso nuen.
Zu zara euskaldunen begi eta belarri errefuxiatuen artean...
Horretan saiatzen naiz. Oso zaila da etxean dagoen

persona batek errealitate hura ulertzea, eta, guk aukera dugunez hara joateko, gure lana hori denez, ikuslearen, entzulearen edo irakurlearen begiak izaten saiatzen gara, zintzotasunik handienarekin gertatzen dabilena kontatuta. Nik uste dut gaur egun bizi garela emozioen garaian, eta beti kontatzen da negarra, barrea, garrasia...

Errefuxiatuen kasuan, asko ikusi da hori. Emozioen gaindosi antzeko bat dago, baina atzean informaziorik egon gabe. Eta guk azpimarratu behar dugu azalergia horren aurrean informazioa; bestela, jendea narkotizatu egiten da emozioekin. Eta atzean ez badago informaziorik, ez goaz inor ere.

Informazioa ematen hunkituta ere ikusi zaitugu. Errefuxiatuen artean hunkituta agertu zara.

Ez gara robotak. Pertsonak gara eta oso zaila da halako egoera delikatuen aurrean ez hunkitzea. Ni saiatzen naiz egunean zehar ahal bezain ondoen egiten nire lana; eta, gero, etxera bueltatzerakoan, gauean, barruko emozio eta sentimendu guztiak kudeatu behar izaten ditut.

Eta, orain, nora zoaz?

Italiara. Hortik aurrera jakin ez, gertatzen denaren arabera.

HAU BE BADOGU!

Eneko Lizarralde ziklista, lesionatuta



Murias taldeko bergararra sei asterako izango da baja.

@EnekoLizarralde: "Ez da amestutako denboraldi hasiera izan, baina lanean jarraitzea besterik ez da geratzen".

@Lokatza: "Albiste txarra Lizarralde haustura bikoitza Mallorkan izandako erorikoan. Erradioa eta metakarpoa. Animo handiak zuretzat!".

#AHTriKEZ traola 'trending topic' izan da



ELA eta LAB sindikatuek kaleratutako txosten batek "ia ezinezko" jo du AHTak etekina lortzea.

@ELAsindikatu: "Txiki Muñoz: 'Ez litzateke euro bat gehiago ere euskal Y-ra bideratu beharko. Bat ere ez'. #AHTriKEZ" (itzulita).

@LABsindikatu: "Ainhoa Etxaide: 'Ez da egia AHTa atzera bueltarik ez duen proiektua denik; ez dago egina'".

Sarean, Kataluniarekin bat, #Demokrazia-rekin

Kataluniako prozesuaren epaiketen aurka mobilizatuko da Gure Esku Dago plataforma otsailaren 5ean, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean, eta sare sozialetan oihartzuna izan du proposamenak.

@GureEskuDago: "Gure Esku Dagok elkartzasuna eta babesa adierazi nahi dio Kataluniari. Otsailaren 5ean #Demokrazia hitza hiriburuen erdigunean kokatuko dugu!".

ITURRI ONETIK

Zea Mays taldea Arrasaten, maiatzean

Eguenean, maiatzaren 4an, etorriko da Zea Mays musika talde bilbotarra eskualdera. Kooltur Ostegunak programaren barruan eskainiko dute kontzertua, Arrasateko gaztetxean. Maiatzaren amaiera bitartean, Zea Mays taldeak Debagoienean eskainiko duen kontzertu bakarra izango da Arrasatekoa. **Harro!** -Garden Records- diskoarekin dabilta lanean, 2016ko azaroan aurkeztutako lanarekin, hain zuzen ere. Zortzigarren diskoa du 20 urte bete dituen talde bizkaitarrak.

GORA ETA BEHERA



Iturripe kirolegia, zikin-zikin

Arrasateko Iturripe kirolegiaren garbitasunik eza salatu gura izan du guraso batek. "Eskola kirola egiten da bertan, eta kantxa horren zikin dago - argazkian-, neska-mutikoen arropa zikindu ere egiten du. Eta ez hori bakarrik, Iturriperen barruko aldea ere zikin-zikin dago. Pentsa, joan den astean konpresa bat aurkitu zuten komunean, lurtean botata".



A.B.



Santa Ageda abesbatzako kideak, laguntzaileak eta poltseroak iazko batzean, San Juan Bataiatzailea parrokiaren atarian. JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Eztarriz sano, eta bihotz oneko

Santa Ageda bezpera jendetsua bezain euritsua espero da biharko, eta, zapatua izanik, ikastetxeetan eta hainbat lantegitan ezingo dute abestu: "Aste barruan gehiago kantatzen dugu, eta, beraz, gehiago batu"; jasotako diru guztia Caritasi emango diote

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ohitura zaharrak mantentzen diren adierazle garbia da Arrasaten ere Santa Ageda bezpera, otsailaren 4a. Zapatua tokatu da batzea aurten, eta, alde batetik, ziur aste barruan baino abeslari, laguntzaile eta poltsero gehiago elkartuko direla, baina, bestetik, ezin izango dute lantegietan edota ikastetxeetan batu. "Aste barruan tokatzen denean, hobeto izaten da batzeko. Aste barruan denean, gehiago abesten dugu, eta, beraz, gehiago batu", onartu du hainbat urtez Santa Ageda batzean irriten den Luis Sagasta *Mane-k*.

12 ordu baino gehiago eskean

Goizeko zortzietan San Juan Bataiatzailearen parrokiaren elkartuko dira, meza entzun ostean Santa Agedako doinua abesteko. Lehen saio horren ostean bi

talde egingo dituzte; batzuk Beñoña aldera joango dira -bertako baserri baten egiten dute hamaiketakoa- eta besteak Muskola ingurura -hamaiketarako San Isidro elkarte lepo betetzen dute-. Baina zapatua izanik, ohiko hainbat geldialdi ez dituzte egingo. "Taberna eta komertzio gehiagotan geldituko gara aurten", dio *Mane-k*.

Eguerdi inguruan alde zaharrean elkartzen dira bi taldeak, eta 14:00 aldera udaletxe barruko eskaileretan abestuko dute. Zapatua izanik udaletxean inor egongo den galdetuta, honako hau dio, umoretsu, *Mane-k*: "Udaleko ordezkariak ez badira agertzen akabo, errieta egingo diegu; kar, kar!". Udaletxean lauzpabost kantu interpretatu ohi dituzte, Iñaki Maidagan zuzendariaren aginduetara: "Garai baten, David Arzamendi aritzen zen zuzenda-

ri, baina utzi gintuen...". Udaletxeko saio *ofizialaren* ostean, Leintze elkartera joango dira bazkaltzera: "Urteroko menua izango dugu, babarrunak denetariko sakramentuekin". 16:00 inguruan irtingo dira Leintze elkartetik,

eta, aurten eskolako umeekin egotarik izango ez dutenez, Iturbide egoitza eta San Andres inguruak bisitatuko dituzte. Amaitzeko, 21:00etan, Herriko Plazan egingo dute azken kantaldia.

Dirua Caritasera, "argi eta garbi"

Eguazten gauean egin zuten eguna antolatzeke batzarra eta entsegua. Jende asko elkartu zen Alkartetxean, biharko ibilbide zehatza adosteko. Ondoren, urteroko abestien errepaso egin zuten; entsegua bera ere ikuskizun ederra izan zen.

Aurten ere Caritasi emango diote dirua: "Enpresa gehienek transferentzia bidez egiten dute ekarpena Caritasen kontu korrontera, eta ez dugu jakiten zenbat diru jasotzen den. Caritasek urtero esaten digu zenbat jaso den eta nora bideratu duten. Kontuak argi eta garbi, beti".



JOKIN BEREZIARTUA

"Garai bateko zaletasuna galdu egin da"

IÑAKI MAIDAGAN

ABESBATZAKO ZUZENDARIA

1991n irten zen lehen aldiz batzera eta azken urteetan zuzendari dabil. Gustura, bere saltsan.

Egun berezia Santa Ageda bezpera, ezta?

Oso egun polita izaten da. Denetarik izan dugu, egun eguzkitsu zoragarriak eta sekulako elurteak. Giroa eta umorea itzelak izaten dira. Abesten zein zuzentzen, oso gustura ibiltzen naiz.

Gazteek makilari utsiko diote?

Gu baino nagusiagoek ere ardura bazuten, baina Goikobalu sortu zenean belaunaldi aldaketa izan zen. Jende gaztea gerturatzea nahiko genuke, baina ukazina da garai bateko kanturako zaletasuna galdu egin dela. Hala ere, giro ederra izaten dugu eta kantuak, hiru edo lau ahotsetara abestu arren, ez dira zailak. Ateak irekita ditugu edonorentzat.

Santa Ageda batzea, gorbata jantzita

Esanguratsua da Josemari Velez de Mendizabalek asteon bere blogetako baten argitaratu duen argazkia: "Gorbatadun asko, ezta? Eta txapel ugari. Zertan ari ziren argazkiko lagun horiek? Zeharo harritu nintzen atzealdean irakurri nuenean *Coro del Eusko Gastediya de Mondragón en el día de Santa Agueda, 1931*". Batzea trajez eta zapatekin; gaur egungo janzkera ez da horren zaharra...



Eusko Gastediya korua, 1931ko otsailaren 4an. JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Bixente Barandiaran zena, Arrasateko azken errementaria, tailerrean izan zituen erramintak atzean dituela. GOIENA

Azken errementaria are gehiago ezagutu guran

Bixente Barandiaranen lanaren ondarea jasotzen duen 'Dinbi danba mailukaren hotsa' erakusketa iraunkorraren bueltan bisita gidatuak antolatu ditu Udalak; lehen bisita domekan bertan egingo da eta interesatuek aurrez eman beharko dute izena

Jokin Bereziartua ARRASATE

Jakinekora da bereziki XV. eta XVI. mendeetan Arrasateko altzairua mundu osoan zela ezaguna. Seguruenik, munduko sendoena eta mardulena izan zitekeela irakur daiteke, esaterako, Esteban Garibairen memoriari. Altxairu eta geroago burdina barik ez dagoelako Arrasateko industriaren jatorria ulertzerik. Burdina izan zen, hain justu, Arrasateko azken errementari Bixente Barandiaranen ogibiderako lanabesa, eta Udalak 2015eko apirilaren 24an erakusketa iraunkorra ireki zuen Harresi aretoan Barandiaranen lana eta haren garrantzia herriari zabaltzeko.

Dinbi danba mailukaren hotsa du izena erakusketak eta horren bueltan hainbat ekintza antolatu ditu Udalak berriro ere: "Erakusketak keinu berezi bat egiten dio errementariaren ogibideari, baina, bereziki, aitorza berezia eskaintzen dio Arrasateko azken errementari Bi-

xente Barandiarani. Hark bizi-tza osoa igaro zuen errementari gisa lanean eta erakusketak haren lanaren inguruan ibilbide sakona egiten du errementariaren lan prozesuak, teknikak eta sekretuak ezagutarazteko".

Hiribildua eta Meatzerreka

Udalak, nobedade gisa, egitarau berezia antolatu du erakusketaren bueltan otsailetik maiatzera bitartean. Bisita gidatuak izango dira protagonista, Iraganeko Oinatzak eta Udala auzoko Ingurumen Eskolak gidatuta. Lehen bisita domekan bertan izango da eta Arrasateko hiribildua bisitatuko dute Iraganeko Oinatzak taldeko aditu batekin; etziko bisita hori euskaraz izango da.

Aurrerago, eta Iraganeko Oinatzak taldekoekin batera orduan ere, otsailaren 19an –euskaraz– eta martxoaren 5ean –gaztelerez– Meatzerreka auzoko San Balerio inguruak bisitatuko dituzte eta industria

ondarea ezagutzeko bisitak ere egingo dira, martxoaren 26an –euskaraz– eta apirilaren 2an –gaztelerez–. Bisita gidatuak amaitzeko, Lezetxikiko koba ezagutzeko aukera egongo da Udalako Ingurumen Eskolakokin; azken hori maiatzaren 7an izango da, euskaraz. Bisita horietarako, aurrez eman beharko da izena: BAZen, 943 25 20 00 telefono zenbakira deituta edo www.arrasate.eus/eu/tramiteak/izen-ematea webgunean, hain zuzen ere.

Bisita gidatuak erakusketan

Gainera, bihartik aurrera, zapaturo bisita gidatuak egingo dituzte Harresi aretoan bertan, 12:00etan hasita. Ekintza berezi horiez aparte, erakusketa iraunkorra ohiko ordutegian egongo da zabalik, herritarrek euren erritmorra bisitatzeko aukera izan dezaten: eguetan eta egubakoitzetan, 17:00etatik 20:00etara eta zapatutan 10:30etik 13:30era.

Txio onenaren bila, Arrasate euskaldunagoa helburu

Lehiaketa 'Zurekin Arrasate euskaldunago' kanpaina barruan antolatu dugu; traola '#Zurekin' da

Goiena komunitatea

AED, Ekin eta Txatxilipurdi / ARRASATE

AED, Txatxilipurdi eta Ekin elkarteetako kideok *Zurekin Arrasate euskaldunago* kanpainaren baitan txio lehiaketa abiatu dugu. Lehiaketaren helburua da *Zurekin Arrasate euskaldunago* ideia 140 karaktere-ten garatzea.

Esaldi labur baten gauza asko esan daitezke, eta hori izango da lehiaketa honetan parte hartzeko egin beharrekoa. *Zurekin Arrasate Euskaldunago* ideia oinarri hartuta, esaldi, mikroipuin edota aldarrikapen bat idaztea.

Lehiaketan bi modutan parte hartzeko aukera egongo da, Twitter bidez txioa #Zurekin traolarekin idatzita edota elkartearen helbide elektronikora bidalita. Bi aukeretan, #Zurekin traola agertu beharko da 140 karaktereen barruan.

Lehiaketara aurkezteko azken eguna otsailaren 13a izango da eta esaldi, mikroipuin edota aldarrikapen onena egiten duenak 100 euroko saria jasoko du. Saria banatzeko ekitaldia Jai Zale tabernan egingo dugu otsailaren 18an, arratsaldeko zazpietan. Animatu eta parte hartu!

Fatxadetan antena parabolikoak jartzeko debekua gogorarazten

Udaleko Hirigintza Sailak gogora ekarri du antena parabolikoak eraikinen estalkietan bakarrik jarri daitezkeela, eta ez balkoietan edota fatxadetan. Udalaren arabera, 2016an 65 herritarri abisua eman zitzaion antena kendu behar zutela esanez; eraikin kanpoan edozein antena jarri aurretik Udalarai baimena eskatzeko dei egin dute.



NIRE USTEZ

ENEKO FERNANDEZ

Beste alde batera begira

Zaborraren arazoa konpondu da: nahi beste zabor sortzen jarraitu eta erreko da, kito. Bide batez, akabo inprobisazioa eta konfrontazioa. Zertarako birziklatu, benetako garapena baldin bada balorizazio energetikoa? Horrela deitu diote, bai, zaborra erretzeari.

Atez atekoaren aurka sublebatu zinetenok, txerrikeriarik eta inposizio gabe birziklatzea nahi zenutenok, zergatik ez duzue orain txipdun 5. edukiontzi miragarria Gipuzkoa osora zabaltzea dadila exijitzen? Zergatik ez duzue errauskailua inposizio bezala ikusten edo konponbide bakarria dela zalantzan jartzen? Horren burugabea al da pentsatzea errauskailua eraiki nahi duten enpresei ez zaiela interesatzen gipuzkoarrok birziklatzea? Orain ez duzue kantzerigenoa dela sinisten, atez atekoarekin arratoi inbasio bat izango genuela sinistu ondoren?

Jakina, arazoak ez badaude gure muturren aurrean edo ez badigute ipurdia mugiarazten, guri bost!

Beno, Jordi Evoleren programa bertan behera utziko dutela Whatsappez jakitean, orduan ere sumintzen gara...

ARRASATE IRRATIA

Astelehen 'musikatu'

Hurrengo astean ere hainbat gai jorratuko ditugu *Igo autobusera!* saioan. Jokin Zaitegi sariketa izango dugu hizpide, Gazte Bulegoko eskaintzaren berri izango dugu... Astea, baina, musikarekin hasiko dugu. Herriko Screammers And Sinners taldekoak igoko dira gure autobusera, kaleratu berri duten *The revenge of El Sacamantecas* izeneko diskoaren gainean berba egiteko.



Udazkena Euskal Herrian lehiaketako sari banaketa: Artgazkiko kideak, Aspanogiko ordezkariak eta alkatea. MIRARI ALTUBE

Hirugarrenez udazkenari zukua ateratzeko gertu

Artgazkiren 'Udazkena Euskal Herrian' lehiaketaren bigarren edizioa ere arrakastatsua izan da parte hartzaileei eta Aspanogi elkartearentzat saldutako argazkiei dagokienez; hurrengo urtean ere antolatzea da asmoa: "Sariketa errotzea gustatuko litzaiguke"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Udazkena Euskal Herrian argazki lehiaketak ibilbide luzea izatea espero dute Artgazki taldeak, Udalak eta Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarteak. Joan den domekan banatu zituzten lehiaketaren bigarren edizioako sariak: Amaia Arzamendi oñatiarrak jaso zuen lehen saria *Perretxikoa* argazkiagatik; Andoni Iñarra arrasatearrak bigarrena, *Haizea* argazkiagatik; eta hirugarren saria Iñaki Nuñez gasteztarrak eraman zuen, *El bosque* lanagatik. Aurten ere publikoak izan du iritzia emateko aukera eta publikoaren saria Sebas Lozano arrasatearrak irabazi du. Antolatzailerek jakinarazi dute "maila polita" izan dela bigarren lehiaketa honetan ere: "Kalitate altuko lanak izan dira, iaz bezala. Hori bai, iaz baino argazki gehiago jaso ditugu aurten". Guztira 180 argazki inguru jaso dituzte, 60 argazkilarik hartu dute parte, eta Kulturaten egon dira ikusteko horietako asko ha-

mabost egunez. Ikusteko bakarrik ez, baita saltzeko ere. Izan ere, saldutako argazkien dirua Aspanogi elkartearendako izan da; domekan bertan 1.500 euro eman zizkioten elkarte horretako ordezkariari.

Hirugarren edizioaren bila

Aurtengo edizioa ere arrakastatsua izan dela aintzat hartuta, Artgazkik hirugarren bat egingo dela espero du: "Sariketa errotzea gustatu litzaiguke. Hori bai, datorren urtean argazkien salmentari buelta ematea pentsatu beharko dugu. Izan ere, iaz baino koadro [argazki] gutxiago saldu ditugu; akaso merkeago saldu beharko ditugu, Aspanogiri ahalik eta diru gehien emateko".

BIGARREN EDIZIOAN 180 ARGAZKI INGURU JASO DIRA ETA 60 ARGAZKILARIK HARTU DUTE PARTE

Herrian eragile den elkarte

2015eko urtarrilean sortu zen Artgazki elkarte, argazkigintza pasio duten zenbait lagun artean. Egun, 33 bazkide dira eta harreman estua dute herriko zenbait talderekin. Mondraitz, Arrasate Runners, Trikitixa Eskola eta Arrasate Herri Eskola dira harreman horren adibide: "Antolatzen dituzten ekitaldien argazkiak ateratzen ditugu". Bestalde, Aspanogi moduko elkarteekin kolaboratzera "erabat" daude zabalik: "Diruaren eta difusioaren beharra izaten dute". Urtean zehar beste zenbait lehiaketa antolatzen dituzte, sanjuanetan eta Maritxu Kajoi Egunean, adibidez.



ANDONI BODES

Iazko asfaltatze lanak amaitzen

Maiatzaren Lehena plazako biribilgunea eta Bañez Dokorea kalea elkartzeko diren tokian zein Araba etorbidean asfaltatze lanak egin dira asteon. 2016an egitekoak ziren, baina euriaren eraginez atzeratu egin behar izan ziren; obrak 22:00etatik aurrera egin dira, zirkulazioan ahalik eta eragin txikiena izateko. 2016ko asfaltatze lan guztien kostua 153.000 euro izan da, BEZa barne.



IMANOL SORIANO

San Balerixoak, atzera begiratu

San Balerixo jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan Meatzerrekan. Egun, ez dira izango auzoetako jaien artean jendetsuenak, baina inguruko meatzei esker Arrasateko altzairua mundu osoan famatu egin zen garaian auzo horretan egiten zen herriko bizimoduaren zati handi bat. Urtero moduan, San Balerio ermitaren bueltan jende asko elkartu zen euskal dantzez gozatzeko.

Ludoteka ibiltariaren lehen saioa bihar, Musakolan hasita

Bueltan dator aurten ere Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria. Ekimena 3-12 urte bitarteko umeentzat, nerabeentzat eta horien arduraduentzat dago zuzenduta eta zapatu goizak euskaraz eta giro atseginean gozatzeko aukera eskaintzen du. Musakolan izango da lehen saioa, bihar, gazte txokoaren atarian.

Beste hiru saio egingo dituzte leku berean: otsailaren 11n, 18an eta martxoaren 4an. Ondoren, Musakolatik San Andresera egingo du salto. Martxoaren 11n, 18an, 25ean eta apirilaren 1ean egingo ditu geldialdiak San Andres auzoan. Orduetgia izango da 10:30etik 13:30era. "Ez dago bazkide izan beharrik, edonork izango du aukera gurekin jolastu, euskaraz mintzatu eta gustuko gauzak egiteko", adierazi dute antolatzailerek.

Errege Kopan, ibarreko atletak podiumean

Joan den astean jokatu zuten, Madrilen, Espainiako Pista Estaliko Kluben Txapelketa, Errege eta Erregina Kopa. Iñigo Uribarrenek eta Istar Dapenak zilarra eskuratu zuten Realarekin eta Maialen Axpek brontzea Atletico San Sebastian taldearekin

Xabier Urzelai ARRASATE

Pista estaliko denboraldia arrera doa, eta asteburuan hainbat atleta arrasatear Madrilen izan dira –Gallurreko kiroldegian– Taldekako Errege eta Erregina Kopan esku hartzen.

Hasteko, gizonen kategorian, Iñigo Uribarrenek zilarrezko domina eskuratu zuen, salto hirukoitzean 15,86 metroko marka eginda –Pablo Torrijos izan zen onena, 16,17 metroko saltoarekin–. Eta txapelketa berean Istar Dapenak, pertika-saltoan, bost metroko salto egin eta hark ere bigarren postua lortu zuen –Didac Salas izan zen onena, 5,20 me-



Uribarren, iaz, Espainiakoan. GOIENA

troko saltoarekin–. Arrasateko bi atletek Realaren izenean hartu zuten esku, eta, besteak beste, euren egindako lanari esker, talde txuri-urdina bosgarren izan zen taldekako sailkapenean –Bartzelona izan zen nagusi–.

Maialen Axpe hirugarren

Emakumezkoen kategorian, berriz, Maialen Axpe arrasatearra (Atletico San Sebastian) ere podiumera igo zen pertika-saltoan, 3,90 metroko salto eginda. Carla Franch (4,25) eta Andrea San Jose (3,90) sailkatu ziren Bedoñakoaren aurretik.

Atleta gazteak txukun Gipuzkoako pista estaliko txapelketan

Joan den asteburuan Gipuzkoako pista estaliko txapelketak jokatu zituzten Anoetan –kadete, gazte eta junior mailetan–, eta Arrasate Atletiko Taldea ondo ordezkatuta egon zen, emaitza txukunak lortu zituzten.

Azpitarratzekoan artean, Iria Fernandezek, 60 metroko proban, hirugarren postua lortu zuen bere seriean, eta orokorrean 11.a izan zen. Mikel Arregik, berriz, 60 metroko lasterketan eta altuera-jauzian hartu zuen esku, kadete mailan, eta brontzezko bi domina irabazita itzuli zen Arrasatera. 60 metrokoan 7.55eko marka egin zuen eta altuera-jauzian 1,68 metrokoa. Eta 400 metroko lasterketan Dani Martinezek zilarra jantzi zuen (53.66).

Carrascalek eta Fernandezek ezin Gipuzkoako txapelketan Eneko Carrascalek ezin izan zuen parte hartu, lesio batengatik, eta Ibai Fernandez gripeak jota zegoen.

Elorri irabazi ostean errugbikoek atsedean hartuko dute

Orain arteko ligako partidurik gogorrena izan zitekeena ere irabazi egin zuten Igor Isasiren mutilek joan den astean (17-23). Bi talde horien artean dagoen lehiarekin batera, kontuan hartu behar izaten da zein den Eloreko zelaiaren egoera, eta, hala ere, liderrak sendo jarraitzen duela erakutsi zuen. Orain, atsedean hartuko dute zuri-moreek.

Take Tolosaren kantxara etekin bila doa MU, bihar

Joan den astean, nahiz eta galdu, MUko saskibaloia jokalariek partidu ederra egin zuten; intentsitate eta jarrerari dagokionez bai, behintzat. Partidu amaieran, baina, esku hutsik geratu ziren Larreategirenak, eta orain, etxetik kanpora ahaleginduko dira ligako seigarren garaipena eskuratzen. Tolosa azkenaurkoa da sailkapenean.

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

UMEZAINNTZA

0-3 URTE
San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI
0-3 URTE
Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 www.arizmendi.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua



arizmendi
ikastola



matrikula
epea zabalik

urtarrilaren 30etik
otsailaren 10era





Gorka Ganso eta Chefo Rodriguez, antzezlanean. ARRASATEKO UDALA

'Kaput' antzezlanana bihar Amaia Udal Antzokian

Ganso antzerki talde durangarraren eskutik, orotariko publikoari zuzendutako emanaldia izango da bihar, zapatua, 17:00etan: "Adinez nagusia den batek zein ume batek berdin disfrutatu dezake lan honekin", dio Gorka Gansok, taldeko zuzendariak

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Bi pertsonaiaren bidaia bat kontatzen du lanak; hobeto esanda, bidaia geldi bat. Agertokiaren erdian gelditzen dira protagonistak, ez aurrera eta ez atzera. Beraz, taula gainean ikusten ditugu haien pozak eta tristurak, dituzten arazoak eta nola konpontzen dituzten arazook, edo nola saiatzen diren, behintzat", dio Gorka Gansok, antzerki taldeko zuzendari eta aktoreak.

Hitzik erabiltzen ez duen antzezlanana da *Kakut*. "Jendeak ikusiko duena da: bi pertsonaia, ezberdinak, eta nor bere ezauzgarriekin, telebistan hainbeste ikusten denetik ihesi doazenak. Askotan, gorputza hitza baino bide hobea da esan nahi den hori adierazteko", nabarmendu du Gansok. Hitzik ez erabiltzeak musikaren garrantzia areagotzen du, zuzendariaren esanetan. "Musika originala daukagu, Burgozko lagun batek egindakoa. Gure ustez, oso musika polita eta ederra da, eta laguntzen du

egoera kontatzeko. Soinu efektu mordo erabiltzen ditugu girote hori lantzeko eta guk adierazi nahi dugun horri bultzada emateko", azaldu du.

Bi protagonista

Antzezlan horretan bi protagonista dira, Ganso bera eta Chefo Rodriguez. "Aspaldiko laguna dut Chefo, oso ondo moldatzen gara elkarrekin; *Babia* antzezlanean ere elkarrekin egin genuen lan, eta ondo ezagutzen dugu elkar", dio Gansok.

Zuzendari eta aktoreak azpimarratu du "pailazoak" direla, nahiz eta, agian, jendeak pailazo izateaz daukan irudi horretatik urrun egon. "Ez daukagu sudur gorriarik, ezta koloretako

"ASKOTAN, GORPUTZA HITZA BAINO BIDE HOBEA DA ESAN NAHI DEN HORI ADIERAZTEKO"

jantzirik ere. Baina, azken finean, edozein pailazo bezain ergelak eta inuzenteak gara, eta hori da gure lengoaia.

Umorea ardatz

Antzerki talde horren antzezlan guztien oinarria beti dira umorea eta barrea, Gansoren arabera. "Gure helburua ikusleei barrea eragitea da beti. Gai dramatiko ez aritzeko ere umorea eta barrea sekulako bidea dira".

Horrez gain, orotariko publikoari zuzendutako antzezlanana da. "Adinez nagusia den batek zein ume batek berdin disfrutatu dezake antzezlan honekin. Barreak hori dauka, bakoitzak barre egiten du edo hunkitu egiten da momentu zehatz batean eta uste dugu guztiendako momentuak daudela antzezlan honetan. Hala ere, uste dugu 5 urtetik gorako umeek hobeto ulertuko dutela", zehaztu du Gansok.

Sarrerek 5 euro balio du, momentuan bertan.

Amaiako zuzeneko ikuskizunez gozatzeko, kultura bonuak salgai

Ekimenak harrera ona izan du aurten; otsailaren 6an, 7an, 13an eta 14an bonuak erosteko aukera egongo da

Jokin Bereziartua ARRASATE

Zuzeneko ikuskizunen kontsumoa sustatzeko Gipuzkoako Diputazioak abiatu zuen Kultura Bonua kanpaina martxa onean doa Arrasaten. Hamabost euro ordainduta 25 euro gastatzeko aukera dago, hamar euro opari jasota. Bonua erosi eta 25 euro baino gehiago gastatuz gero, ikusleak ordaindu beharko du aldea. Orain arte urtarrileko astelehenetan eta martitzenetan egon da aukera Amaia antzokiko leihatilara gerturatu eta bonuak erosteko. Bada, Kultura Sailak erabaki du aukera hori otsaileko lehen bi asteetara ere zabaltzea. Hau da, otsailaren 6an, 7an, 13an eta 14an aukera egongo da, 18:00etatik 20:00etara, leihatilan bonua erosteko.

Lehentasuna, ohiko sarrerek

Hori bai, Kultura Sailak argi utzi gura izan du lehentasuna izango dutela ikuskizun jakin baterako sarrera erostera doazen herritarrek: "Iaz gertatu zitzaigun leihatilako langileak bonuen gaineko azalpenak eman bitartean ilarak sortzen zirela eta ikuskizunera bakarrik zihoa-

zenak justu-justu ibiltzen zirela denboraz heltzeko. Hori saihestu nahi izan dugu aurten".

Iaz baino "askoz hobeto"

Diputazioak iaz abiatu zuen kanpaina; iaz 250 bonu jarri ziren salgai Arrasaten eta 60 bat "bakarrik" saldu zirela jakinarazi du Kultura Sailak. "Ez dakigu zergatik, baina iaz ez zuen esperotako harrerarik izan. Aurten askoz hobeto doa. 350 bonu jarri ditugu salgai eta 200 bat saldu dira. Diputazioak bonuen kanpainarekin jarraitzen duen bitartean, guk aukera eskainiko diegu arrasatearrei ekimena aprobetxa dezaten".

Apirilaren 14ra arte iraungo du kanpainak eta ordura arte Amaian eskaintzen diren ikuskizunekin erabili ahalko dira bonuak, Ozenki elkarteak martxoaren 21ean -ikus 41. orria- ekarriko duen *El elixir de amor* opera izan ezik: *Kaput* antzezlanana, *Oskara* dantza ikuskizuna, *Idiot Txou* antzezlanana, *Marikixkur eta hiru hartzak* umeandako obra, Kepa Junkera eta Sorginak musika emanaldia eta *Jainko basatia* antzezlanana.

Ipuin kontaketak eta literatura solasaldiak bibliotekaren bueltan

Udal Bibliotekaren eskaintzaren barruan, Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioak izango dira datorren astean: otsailaren 7an Santa Marina auzoko bibliotekan egongo da (18:00), 3 urtetik gorakoendako. Otsailaren 9an, berriz, Kulturaten egongo da (18:00), 5 urtetik gorakoendako.

Bestalde, gaztelerazko literatura saioak hasita daude dagoeneko. Hurrengo saioa otsailaren 22an izango da, Kubako Alejo Carpentier idazlearen *El reino de este mundo* liburu ezagunarekin. Zikloa ixteko, Juan Carlos Onetti idazlearen *Los adioses* liburu izango dute hizpide, martxoaren 29an. Saioak Kulturaten dira, 18:30etik 20:30era.

Zeramika ikastaroa otsailaren 6tik martxoaren 29ra

Zeramika ikastaroa antolatuta du Loixe elkarteak, Udalaren laguntzarekin, otsailaren 6tik martxoaren 29ra. Ikastaroa astelehenetan eta eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:30era. Hastapen ikastaroa izango da, gazteei zein helduei zuzenduta. Hau da, zeramika zer den ere ez dakienari dago zuzenduta, sekula probatu ez dutenentzat. Ariketen bitartez, ikasleek euren piezen diseinuak sortzeko aukera izango dute. Loixek Zaldupe kaleko zortzigarren zenbakian duen lokalean emango da ikastaroa; izena emateko edo argibide gehiagorako, deitu honako telefono zenbaki honetara: 636 24 42 49 (Imanol).

Korrika batzordea gogotsu dabil lanean

Martitzenetan elkartzen da, hamabostean behin, udaletxe zaharrean, eta atea zabalik ditu edonorendako; Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldiak antolatzea eta Korrika Kulturala zehaztea izango dira, besteak beste, talde horren egitekoak

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Korrika batzordea hasi da elkartzen Aretxabaletan. Dagoeneko batzar pare bat egin ditu eta hurrengoa otsailaren 14an izango da, martitzena, udaletxe zaharrean (18:30).

Astean egin duten bileran, besteak beste, Basotxo erretiratuaren elkarteko eta Loramendiko kideak eta udal ordezkariak elkartu dira, baita ikastetxeetako ordezkariak ere. "Ateak, baina, irekita ditugu edonorendako. Herriari zabaldu gura izaten zaion batzordea da eta pozik hartuko ditugu guztiak", adierazi du Korrika batzordeko arduradun Titok.



Martitzenean elkartu zen Korrika batzordeko kideak. MIRARI ALTUBE

Korrika Kulturala

Orain arte berotze ariketak egin ibili dira: "Informazio orokorra eman dugu, zerrendatu egin ditugu ekitaldirik garrantzitsuenak eta Korrikak berarekin dakartzen eginbeharren berri eman dugu", dio Titok. Hor egongo lirateke Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldiak zehaztea eta horiek antolatzen hastea.

Korrika Kulturalak ere izango du lekua herrian. Korrikak berak badu ekintzen katalogo bat, baina horrekin batera herritarrek antolatutakoak sustatu gura dituzte: "Edozein kultura ekintza sartzen da horren barruan eta garrantzitsua da herriak berak sortzea, bertsoak direla, musika dela... Herriak duen bizitasuna jasotzen du, horrela, Korrikak".

Kilometroak diruz laguntzeko

Kilometroak diruz laguntzeko eskaera honako helbide honetan egin daiteke: korrikadebagoiena@gmail.com. "Oraindik bada go denbora, baina, interesa izanez gero, zenbat eta lehenago lotu kontu horiek, hobeto".

Odol ateratzeak izango dira datozen bi astelehenetan

Arabako odol bankuko kideak autobusarekin etorriko dira datozen bi astelehenetan, otsailak 6 eta 12. Durana kalean, Herriko Plaza barrenean, egongo da autobus hori 16:45etik 20:00etara bitartean. Herritarrei, eta bereziki gazteei, odola ematera dei egin diete, odol erreserbak asko gutxitu direlako azken hilabeteetan.

Parte-hartze ordenantzaren zirriborroa ikusgai

Hainbat hilabetez landu du Udalak parte-hartze ordenantza herritarrekin batera, eta orain, ekarpenak adosteko egindako bileraren ostean, zirriborroa jarri du Udalaren webgunean aretxabaleta.eus, gainerako herritarrek ere ikus dezaten eta azken ekarpenak egin ditzaten. Otsailaren 5a arte egongo da horretarako epea.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

Bulego ordutegia:
09:00-14:00 / 16:00-18:00

**matrikulazio epea
zabalik**

zeuria
zeuena
geuria



Bederatzi milioi euro 2017rako

lazkoaren oso aurrekontu antzekoa onartu du udalbatzak, 9.107.048 eurokoa, hain zuzen ere, eta hainbat konponketa lan egiteko 500.000 euro inguru gorde dituzte. EH Bildu eta Irabazi abstenitu egin ziren bozketan, nahiz eta hainbat eskaera onartu



Udalbatzako kideak eguaztanean egindako ezohiko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

Mirari Altube ARETXABALETA

Iazkoaren oso antzeko aurrekontua du Udalak 2017rako: 9.107.048 euro, hain zuzen ere. 60.000 euro bakarrik gehitu ahal izan dizkiote, eta Unai Elkoro alkateak onartu du "zuhurtziaz" jokatu dutela, batez ere, gastuak zehazterakoan. Eguaztanean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuten hori.

Inbertsioak lanetarako

Herriko konponketa lanak eta inbertsioak oso lotuta joango direla jakinarazi zuen alkateak. "Ez dugu mugimendu askotarako dirurik. Baina aurten ere, handik eta hemendik, 500.000 euro gordetzen saiatu gara". Hala, Iturrigorri pilotalekua konpontzeko 60.000 euro inguru gorde dituzte, oztopo arkitektonikoak kentzeko 100.000 euro eta beste horrenbeste, beste hainbat kale eta errepede konpontzeko.

Partida orokorreari dagokienez, hainbatek igoera izan dute, nahiz eta txikia izan; Ongizatera, esaterako, 698.675 euro bideratu dituzte eta %7,5eko igoera izan

du. "Kale hezitzaileen proiektua sartu da horren barruan eta 45.000 euro bideratu ditugu horretara". Garapen Ekonomikoak ere ia %3,2ko igoera izan du eta 141.343 euroko partida zehaztu dute. Hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamenduari dagokion partida, ostera, jaitsi egin da %10 inguru, 629.324 eurora, hain zuzen ere.

Sei proposamen EH Bilduk

EH Bilduk adierazi zuen "arima" falta zaiola aurrekontuari, zenbakien atzean ez dituztelako plangintzak, irizpideak eta proiektuak ikusten. Eta laguntza eskaini zion Udal Gobernuari.

Era berean, hainbat emendakin eta ideia aurkeztu zituen, eta horietako hiru onartu egin zizkioten: batetik, zebra-bideak egokitzeko plana egitea irisga-

**ONGIZATE SAILAK
IGOERA IZAN DU
OROKORREAN KALE
HEZITZAILEEN
PROGRAMAREKIN**

rritasuna bultzatzeko; bestetik, osoko bilkuren aretoko soinua egokitzeko inbertsioa egitea, osoko bilkurak telebistaz jaso ahal izateko; eta hirugarrenik, hezkuntza egoeraren gaineko ikerketa egitea herrian, sare ezberdinen artean sortzen diren desorekak ikertzeko. Hain zuzen, azken horretarako partida berria zabaldu zuten.

Beste hiru, ostera, ez zizkioten onartu: hutsik dauden etxebizitzien alokairua sustatzeko neurriak hartzea, batetik; bestetik, hirugarren munduari laguntzen dioten taldeendako diru laguntzak mantentzeak, aurten %35eko murrizketa izan duelako partida horrek. Horrek, baina, baduela azalpena erantzun zion alkateak: "20.000 eurotik 13.000 eurora jaitsi dugu, baina 7.000 euro horiek bideratu ditugu

**HIRUGARREN
MUNDUKO TALDEEI
LAGUNTZA MURRIZTU
IZANA SALATU ZUEN
OPOSIZIOAK**

"Konponketetarako ahalik eta diru gehien gorde nahi izan dugu"

UNAI ELKORO ALKATEA

Zein ezaugarri ditu onartu duzuen aurrekontuak?
lazko aurrekontuaren nahiko antzekoa da, kredituaren amortizazioak marjina txikia uzten digu jokorako.
Zeintzuk dira jarri dituzuen lehentasunak hori zehazterakoan?



M.A.

Aurten ere, herrian konponketak eta beharrezko inbertsio batzuk egiteko ahalik eta diru gehien ateratzea izan da lehentasuna. Noski, horretarako ezinbestekoak diren zerbitzuak murriztu gabe. **Inbertsioak zehazterakoan irizpideren bat jarraitu duzue?** Inbertsioetan 217.000 euro pasatxo besterik ez dago, behar-beharrezko ikusi ditugunak. Edonola ere, ezin da ahaztu aurten argiteria publikoan ia 200.000 euro inbertituko direla led sistemara aldatzeko, nahiz eta aurrekontuan aurten ez agertu, hurrengo urtetik aurrera ordainduko delako IDAeko kreditua. Bestetik, Markoleko futbol zelaia egiteko diru laguntzen ebazpenaren berri hilabete honen bukaeran jakingo dugu eta horren arabera aztertuko dugu proiektu horren bideragarritasuna.

Partidaren batek izan du igoera edo jaitsiera nabarmenik?

Igoerarik ez; proiektu berrietarako partida berriak bai, baina ez igoera nabarmenik. Hondakinen bilketa, ostera, 60.000 euro inguru aurreztuko dugu.

Soberakinik egongo da aurten?

Bai, izango da, baina goiz da oraindik zenbatekoa zein izango den zehazteko, hilabete bukaerarako izango dugu zenbatekoaren ideia zehatzagoa.

Oposizioak abstentziora jo du...

Bai; hainbat emendakin aurkeztu dituzte, eta, zenbait gaitan desadostasunak egon arren, orokorrean, ez dira puntu askotan.

"Partida garrantzitsuei eutsi egin zaie"

MIREN LOREA LANA ALDERDI
SOZIALISTA



M.A.

Gustura onartutako aurrekontuarekin?

Bai, konforme gaude. lazkoaren jarraipena dira aurrekontu hauek, 60.000 euroko igoera txiki batekin. Baina jakinik Aretxabaleto Udalak duen zorra zenbatekoa den, nahiko ondo dago, ez dagoen lekutik ezin da atera eta... Bestetik, Ongizatea eta antzeko partida batzuk mantendu egin dira, eta, nire ustez, oso garrantzitsua da hori. Horregatik, orokorrean, pozik gaude.

Udalaren zorrak asko baldintzatu du partidak zehazterakoan?

Horrek beti baldintzatzen du; horregatik dira iazkoaren oso antzekoak. Dena den, guk lanean jarraituko dugu herriaren alde, ahal den guztia egingo dugu, betiere, horretarako ditugun baliabideak eta mugak kontuan hartuta.

BALORAZIOA

ION ALBIZU

EH BILDU



GOIENA

Gorputzari arima falta zaio

Zenbaki handitan Udal Gobernuak aurkeztu duen aurrekontuak iazkoarekin alderatuta aldaketa askorik ez dauka. Orokorrean, esan behar dugu aurrekontua kiroldegiko maileguak baldintzatu eta lotzen duela, ez dago inbertsio handietarako aukerarik. Baina aurrekontu bat zenbaki sorta huts bihurtu daiteke atzean plangintza, proiekturik, irizpiderik edota lehentasunik ez badago. Hauek janzten dute benetan aurrekontua; gorputzaren arima dira. Eta aurrekontu hauek ez dute arimarik.

Bi urte hauetan, ikusten ari gara berdintasun eta etorkin gaiarekin gogor daudela: hor bai irizpide garbiak eta murrizketak. Berdintasun arloan %57 murriztu dute partida eta garapenerako lankidetzak partidan %35; lehentasunak izan beharko lirartekeen partidetan.

Ekarpen asko egin arren, gutxi onartu dizkigute. Ez da kantitate kontua, baizik eta ikusten ari garela negoziatorako asko dutela hobetzeko. Gu lanera eta ekarpenak egitera etorri gara eta denon artean hausnarketa sakonak eta luzerako plangintza estrategikoa egiteko parada hartu behar dugula uste dugu. Ea Udal Gobernuak, behingoz, animatzen den.

BALORAZIOA

LUIS MARIANO GOMEZ

IRABAZI



GOIENA

Garaileak ere galtzaile dira oraingoan

Ontzat eman dugu, enplegua eta ongizatea bezalako partida garrantzitsuak mantendu egin dira eta. Euskararen kasuan, igoera txiki bat egon da eta kritikatu egin dugu erakunde partikular bati egindakoa.

Negoziatzeko jarrera mantendu egin da; horregatik emendakina bakarrik jarri diogu Urkuluko gastuari eta hirugarren munduko taldeendako laguntza jaitsierari; horren helburua da 7,5era gerturatzea agintaldian. Inbertsio txikiak daude: zazpiko futbolerako zelaia, bidegorria, Santa Kurtz kalean hobekuntzak... Eta legeak exijitutako soberakina mantentzen da.

Berdintasunak suspenditu du, orain azpikontratatu egingo da eta gutxienera murriztu da; hortaz, guztiok galtzen dugu, baita garaileek ere.

herrian gizarteratze lanetan dabilen talde batera. Lan horretan profesionalizatu gura du talde horrek, eta, horretarako, laguntza behar du". Gu Haziak Gara elkarteak jasoko du laguntza hori, eta horrekin konforme agertu zen EH Bildu, baina beste partida batetik kenzeko eskatu zuen.

Berdintasun Saila indartzea izan zen hirugarren eskaera, baina horrek ere ez zuen aurrera egin: "Erdira baino gehiagora murriztu dute partida eta desadostasun sakonak ditugu

Gastu esanguratsuak

| Partidak | Euroak |
|-----------------------|---------|
| Zor publikoa | 874.795 |
| Administraz. orokorra | 984.548 |
| Kiroldegia | 803.425 |
| Euskara | 277.921 |
| Enplegu sustapena | 141.342 |
| Etterik etxeko lagu. | 350.000 |
| Bideen garbiketa | 397.850 |
| Kale argiteria | 181.775 |
| Lorategiak | 141.000 |
| Droga-menpekotasuna | 79.183 |
| Zaharren egoitza | 150.142 |
| Jaiak | 183.625 |
| Gazteria | 189.295 |
| Gobernu organoak | 213.437 |
| Bide publikoak | 208.500 |
| Ura | 478.634 |
| Segurutasuna | 274.451 |
| Kutsadura babesa | 42.684 |
| Berdintasuna | 28.600 |
| Liburutegia | 132.421 |
| Erretiratuen etxea | 23.000 |
| Gizarte larrialdiak | 50.000 |
| Hilerria | 50.309 |
| Kirola sustatzea | 43.191 |
| Turismoa sustatzea | 23.360 |
| Kultura sustatzea | 157.000 |
| Pilotalekua | 64.225 |

ITURRIA: UDALA

bai planteamenduan, bai diru kopuruan, bai etorkizuneko lehentasunak zehaztean", zioen Ion Albizu zinegotziak. Hala, abstenitu egin zen EH Bildu: "Iaz baietza eman genion aurrekontuari, baina mesfidantza sortu digu aurtengoak. Baietzerako gertu gaude, baina, horretarako, negoziatzeko eta lanerako jarrera ikusi behar ditugu Gobernuaren aldetik".

Irabazik bi emendakin

Irabazik ere bi emendakin aurkeztu zituen. EH Bildukoekin

Inbertsio aipagarrienak



Umeak Iturrigorri pilotalekuan. M.A.

Iturrigorri pilotalekua Sabaia konponduko diote pilotalekuari, egoera eskasean dagoelako. Euria egiten duenean itoginak sortzen dira, batetik, eta, bestetik, kondentsazio arazoak ditu; bi arazo horien ondorioz, lurzorua erabat labainkor geratzen da. Horretarako 60.000 euro inguru bideratu dituzte.



Santa Kurtz kaleko zebraidea eta espaloia. M.A.

Oztopo arkitektonikoak Irisgarritasuna bultzatu eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko asmoarekin hainbat lan egingo dituzte zenbait kaletan; Santa Kurtz kalean, esaterako. Horretarako 100.000 euro gorde dituzte eta asmoa da beste 100.000 euro errepideak konpontzeko erabiltzea.

bat egin zuen hirugarren munduko taldeendako diru laguntzen kontuan, eta hori igotzea eskatu zuen, urtez urte, %0,7ra iritsi arte. Eta bestetik, Urkulu inguruak txukun eta garbi mantentzearen ardura ez dagokiola Aretxabaletako Udalarari adierazi zuen, urtegiaren jabe denari baizik. Horregatik, horretarako zehaztutako 16.000 euroak beste kontu batzuetarako erabiltzeko eskatu zuen; herrian dauden komunak mantentzeko edo bidegorrian beste batzuk egiteko, esaterako.

Ez bata, ez bestea ez zituzten onartu. "Ontzat" eman zuen aurrekontua Irabaziko Luis Mariano Gomezek, baina abstenitu egin zen: "Ontzat eman dugu ez dagoelako mugimendu askotarako aukerarik. Guretako garrantzitsuak diren partidak errespetatu egin dira: Enplegua, Ongizatea... Hirugarren munduari dagokion laguntza izan ezik, horregatik aurkeztu dugu mozioa. Gainerakoa iazkoaren errepikapena da. Eta Udal Gobernuak adostasunetarako duen jarrera ere baloratu dugu.



Pasa den astean, senior mailako Gipuzkoako txapelketa eta junior mailako Kopa jokatu zen momentu bat. ENEKO CALVO

UDAko karatekak Euskadiko txapelketara

Oxel Vazquez karateka senior mailan lehiatuko da domeka honetan Azkoitiko Euskadiko txapelketan eta Eneko Calvo, berriz, junior mailan. Biek ere aukera asko dituzte emaitza ona eskuratzeko, eta irabaztera irtengo dira

Imanol Beloki ARETXABALETA
Aretxabaleako UDA Karate Taldea denboraldi ona egiten ari da aurten, iazko denboraldiaren antzera, nahiz eta emaitza hain onak ez lortu. Hala ere, pasa den aste bukaeran, urtarriaren 22an, senior mailako Gipuzkoako txapelketa eta junior mailako Kopa jokatu ziren Donostian, eta UDAko hainbat karateka joan ziren lehiatzera. Batzuek, gainera, lan oso ona egin zuten.

Juniorrei dagokienez, Alex Benitezek, kumite modalitatean, 76 kilotik beherakoetan, hirugarren postua eskuratu zuen eta Eneko Calvok, kumite modalitatean, 76 kilotik gorakoetan, garaipena lortu zuen. Bestalde, senior mailako Oxel Vazquezek, kumite modalitatean, 76 kilotik beherakoetan, bigarren postua lortu zuen.

Ordezkariek Azkoitian

Hurrengo txapelketak Azkoitian jokatuko diren senior mailako Euskadiko txapelketa eta junior mailako autonomia artekoa izango dira. Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Kantabriak eta Nafarroak hartuko dute parte eta

UDAko Eneko Calvok eta Oxel Vazquez izango dira han. Odilo Vazquez entrenatzailearen esanetan: "Oxel oso ondo ari da denboraldi honetan eta lehenengo postua lortzeko aukera handiak ditu. Eneko, berriz, lan ona

egiten ari da, eta, irabazi ahal duen arren, aurkariak ez ditugu ezagutzen; ea nortzuk datozen... Hala ere, entrenamendu saio gehiago egiten ari gara txapelketak prestatzeko, eta emaitzak onak ari dira izaten".

"Euskadiko txapelketa irabazi nahi dut"

ENEKO CALVO
KARATEKA

Eneko Calvo karateka pozik agertu da Gipuzkoako txapelketan garaipena lortu ostean. Orain, denboraldirako erronkei begira dago. **Azkoitiko Euskadiko txapelketan dena emateko prest?**

Irabazteko asmoarekin joango naiz Azkoitira. Hala ere, hara doazen karateka asko ez dituzte ezagutzen, eta ez dakit zer aurkituko dudana. Dena dela, dena emateko prest nago.



ENEKO CALVO

Entrenamendu saio gogorragoak prestaketarako?

Txapelketetarako entrenamendu gogortxoagoak egiten ari gara. Asteko betiko entrenamenduez gain, domekan ere entrenatzen... Hemendik aurrera geroz eta gehiago egitea da asmoa.

Hurrengo helburuak?

Euskadiko txapelketa irabazi ostean, ea Espainiakorako deitzen didaten.

Hiru egunez arituko dira aurtengo kintoak kantu-eskean

40 neska-mutil izan arren aurtengo kinto, ez dira guztiak izango, batzuk kanpoan daude-eta ikasten

I.B ARETXABALETA

1998an jaiotako neska-mutilak izango dira aurtengo kinto Aretxabalean. Dagoeneko antolatuta dute aste bukaera, eta gogotsu daude.

Guztira, 40 kinto dira aurten, baina guztiak ez dira egongo, Josu Irure kintoak adierazi duenez: "Ekainean denok batu ginen, 40 inguru, baina batzuk kanpoan daude ikasten, eta ez gara guztiok egongo". Lehen hitzordua gaur egingo dute, izan ere, 08:30ean batuta, herriko komertzio, ikastetxe, eta abarretara

joango dira. Zapatuan, berriz, baserrietara joateko 06:30ean batuko dira, eta domekan, 09:00etan elkartu eta kantu-eskean herrian ibili ondoren, dantzak egingo dituzte, 19:00etan, Herriko Plazan.

Baserriak bi taldetan banatuta

Zapatuan, Oro, Urkulu, Areatza, Arkarazora-eta joango dira kantu-eskean. "Bi taldetan banatuko gara, batzuk Larrinora eta beste batzuk Urkulura joateko. Hala ere, beste leku guzietara denok batera joango gara".

Loramendi elkartean begirale taldea sortzeko deialdia

Aisialdi ekintzetarako eta taldeak sortu nahi dituen eskaintzak aurrera eramateko asmoz egin dute eskaera

I.B ARETXABALETA

Aretxabaleako Loramendi elkarteak dituen aisialdi eskaintzetan parte hartzeko begirale talde iraunkorra sortu nahi du. Hain zuzen, gaur egun dituzten eskaintzetarako edota taldeak berak sor ditzakeen eskaintzak aurrera eramateko.

Haur eta gazteei begira, lantzen dabilzan proiektuetarako izango da. Besteak beste, ludoteka, hizkuntza errefortzu, gazte zoro, egun berezi, udaleku ireki eta ekintza zehatzak behar bezala gauzatzeko eta, bide ba-

tez, indartzeko sortu nahi dute taldea.

Ekintza horien helburua aisialdiaren bidez gozatu eta gozaraztea izanik, nahi duenak eman dezake izena, datuak -izen-abizenak eta telefonoa- posta elektronikoz bidalita aisia@loramendielkar-tea.eus helbidera edota Loramendi elkartera, bertara gerturatuta -Aretxabaleako udal-letxe zaharra, Durana kalea 11-. Izena eman nahi duenak otsailaren 20a baino lehen egin beharko du.

San Blas eguna ospatuko dute gaur Apotzaga-Etxebarrin

Gaur ospatuko dute San Blas eguna Apotzaga-Etxebarri auzoko Salluente ermitan. Meza eta jakien bedeinkapena egingo dute eta ikastetxeetako neska-mutiloak eta herritarrak elkartzeko dira bertan. Haiei hainbat azalpen emango dizkie Andoni Illarramendi parrokoak; ermitaren eta San Blas egunaren gainekoak.

Kurtzetxikira mendi irteera egingo dute domeka honetan

Aretxabaleako Guraso Foroak Eskoriatzako Hezkuntza Fororekin elkarlanean antolatuta, Kurtzetxikira mendi irteera egingo dute domekan. 10:00etan irtengo dira Aretxabaleako Herriko Plazatik eta parte hartzeko ez dago izena eman beharrik. Hala ere, haurrak ezin dira bakarrik joan, heldu edo arduradun batekin joan beharko dute.



Iaz egindako kintada baten talde argazkia. IMANOL SORIANO

Herritarrak Kinttaden Egunerako dena prest

Goizean poteoa izango da, kintada bakoitzak bazkaria egingo du, eta egun osoan zehar festa izango da nagusi Kinttaden Egunean. Aurten, sei urte beteko ditu ospakizun horrek, eta herritik sortutako jaiari jende asko espero dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bihar ospatuko da Kinttaden Eguna Eskoriatzan, eta dagoeneko beteta daude herriko taberna eta elkarteak, kintada bakoitzak egingo duen bazkari edo afarirako. Herritik sortutako festa da, eta herritar guztiak jakinaren gainean daude noiz egiten den jaieguna.

Eskoriatzan errotu den festan, urtero dago giro aparta, eta aurten seigarren edizioa ospatuko dute. Sortu zeneko batzorderik ez egon arren, kintada bakoitzak urtean zehar bazkaria egin barik, egun hori ezartzen dute egutegian kinto bazkaria egiteko.

Ekimenaren helburua, funtsean, adin bereko kintoak batzea da, eta, egun batez, bazkari baten bueltan, momentu atsegina pasatzea. Horrekin batera, aurten Santa Ageda neska-mutilentzat herria girotzeko asmoa du ekimenak. Goizean, poteoaren emango zaio hasiera egunari, nork bere kintadarekin egingo duena. Horren ondoren, kintada bakoitza aurrez erre-

serbatuta duen elkarte edo tabernara joango da bazkaltzera, eta arratsaldean jarraituko du festak.

Zapia edo kamiseta ohitura

Egun horretan, ohitura da kamiseta, zapia, gorbata... halako bereizgarri batekin irtetea kalera; hori horrela, aurten, Benta Motz Berri tabernako ugazabak dei egin die eskoriatzarrei, zapia egin nahi badute bertan eskatzeko. Hala, hamaika kintadak eskatu diote zapia egiteko; guztira, 180 pertsonarentzat egingo ditu. Hala ere, batzuk iazko zapiekin edo kamisetekin irten go dira eta beste batzuk, aldiz, ezer barik. Dena den, jende asko espero da egunerako, eta zaila da zehazki jakitea zenbat kin-

ERROTUTA DAGO ESKORIATZAN KINTTADEN EGUNA; AURTEN SEIGARREN ALDIZ EGINGO DA

tada izango diren. Izan ere, batzuek, leku falta dela-eta, herritik kanpora egingo dute bazkaria; beste batzuek, aldiz, afaria egingo dute.

Kintadak emakumeen alde

Kinttaden Eguna dela aprobeztatuta, Eskoriatza Kirol Elkarteak martxoaren 12an izango den Emakumeen Martxarako betaurreko eta kamisetak salduko ditu, egunak ekarriko dizkien gastu ekonomikoei aurre egiteko. Horrekin batera, zapatuan, 11:30ean, plazan, txistorra jan eta sagardoa edateko aukera izango da. Kinttaden Egunari bultzada emateko, eta giroa berotzeko, txistor-jana eta Sagardo Eguna antolatu dute Eskoriatza Kirol Elkartekoek.

Dantzak, kolokan

Azken bi urteetan, dantzak egin izan dituzte kintada ezberdineko herritarrek txistularien laguntzarekin. Baina gaur egun batzorderik ez dagoenez, ez da ezer antolatu.

Nola ospatuko duzu zapatuko eguna?



JUAN KARLOS BELOKI
1956KO KINTOA

"Santa Ageda egunaren bueltan, urtero afaria egin izan ohi dugu guk. 20:00etan batuko gara zerbait hartzeko, afaldu, eta festa egingo dugu. Guztira, 35 lagun inguru batuko gara".



ARITZ OIANGUREN
1983KO KINTOA

"Gu deseatzten egoten gara eguna heltzeko. Sekulako giroa egoten da herrian; urtero moduan, Apotzagan egingo dugu bazkaria. 55 inguru izango gara guztira, baina 26 bakarrik joango gara bazkarira".



IRATXE ARRESE
1990EKO KINTOA

"Hogeita bost inguru gara gure kintadan, baina hamalau bakarrik goaz bazkarira. Denok elkar ezagutzen dugun arren, urteko egun bakarra da adin berekoak batzen garela, eta bikain pasatzea da asmoa".



NIRE USTEZ

OLATZ PAGALDAY

Ezin da jan, ezin da edan, ezta erre ere

Prestatu dugu antzezlanerako eszenografia, frogatu dugu argia, frogatu dugu soinua, jantzi dugu pertsonaiaren arropa eta, oihala ireki bezain laster, hasi gara ikusleen aurrean antzeztan. Segituan konturatu gara isiluneak izan beharko zirenak ez direla isilune. Zerbait entzuten da isiltasun horren gainean, eta ez da zarata egiten duen fokuren bat, ezta soinu ekipoko akople arraroren bat... ez da ikusleen marmarra... Gozokiak dira. Txutxeak, txerrikeriak... Zergatik? Zertarako? Zer dela eta? Ez dituzte karteltxoak ikusi? Ez al dute isiltasuna jasaten? Hemen ez al dago, ni txikia nintzenez bezala, harrapatuz gero kalera bidaltzen zaituen langilerik...

Edonork daki antzoki batean ezin dela erre, ezta jan, ezta edan ere. Haurrak haur dira eta helduok gara beraien irakasle. Horregatik, arauak errespetatzen irakatsi behar diegu haurrei, gure erantzukizuna da, egin beharrekoa. Antzezle zein albokoak kontuan hartu behar direla irakatsi behar diegu, isiltasuna jasaten, eta abar. Halakoak ez badiegu irakasten, ea ze etorkizun datorkigun! -Gero eta antzoki gehiagotan jasaten ari diren gaitza da-.

ESKORIATZAN AUKERA

Etxebizitza salgai
San Juan kalean. **140 m2**
Sukaldea, egongela
eta **3 logela**

Bista paregabeak
Atxorrotxera, Kurtzebarria
eta **Asensiora**.

Ganbara etxebizitza
gainean, **80 m2**, gela
egiteko aukerarekin.

616 41 71 05



Eskoriatzako Santa Ageda neska-mutilak kantu-eskean, atzo, eguena. IMANOL BELOKI

Hasi dira kantu-eskean aurtengo kintoak

Atzo goizean batu ziren 1999an jaiotako Eskoriatzako kintoak kantu-eskean aritzeko. Gaur, ikastetxeetara eta baserrietara joango dira, zapatuan baserrietara joango dira eta domekan, aldiz, dantzak egingo dituzte Herriko Plazan, 19:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

1999an jaiotako Eskoriatzako Santa Ageda neska-mutilak 08:30ean batu ziren atzo, eta etxafuegoen zaretakin esnatu zituzten eskoriatzarrak. Ondo gosaldue ostean, kantu-eskean ibili ziren herriko hainbat txokotan, hurritz-makila, zahatoa, dirua batzeko saskia eta kantuan egiteko gogoz kalera irtenda.

Lau eguneko ospakizuna

Hainbat kinto batu ziren eguen goizean -15 inguru- eta arratsaldean, berriz, pintxo-potearekin bat eginez, talde osoa batu zen festari behar bezala hasiera emateko. Izan ere, atzo hasi beharrean, aurreratu egin dira, eta zapatu eta domekan soilik irten beharrean, lau egunera luzatzea erabaki dute aurtengo ospakizuna. Hau adierazi du Lander Mediavillak, kintoetako batek: "Eguen goizean hamabost kinto inguru batu ginen. Beste batzuek eskola zeukaten, eta denok ez ginen batu, baina arratsalderako denok

batuta ginen. Lehenago hastera erabaki dugu, aste bukaera bakarrik gutxi iruditzen zitzaigun eta... Guztira, 33 kinto gara aurtengo Eskoriatzan, eta festarako gogotsu gaude guztiok".

Baserriz baserri, kantu-eskean

Atzo herrian ibili ostean, gaur, egubakoitza, komertzio eta ikastetxeetara eta hainbat baserrietara joango dira kantu-eskean. "Ondo ikasi ditugu kantuak, eta gaurko plana ikastetxeak, komertzioak eta baserriak egitea da. Ikastetxeetara denok batera joateko asmoa dugu; baserrietara joateko, aldiz, bi taldetan banatuko gara. Batzuk Bolibar auzo aldera joango dira baserriz baserri kantu-eskean, eta beste

**AURTEN, 33 DIRA
1999. URTEAN
JAIOTAKO SANTA
AGEDA
NESKA-MUTILAK**

batzuk, Apotzaga aldera. Arratsaldean, berriz, denok batuko gara eta Gatzaga aldera joango gara".

Bihar, zapatua, Santa Ageda bezpera da, eta egun horretan, geratzen zaizkien baserrietara joango dira kantu-eskean, eta geratzen zaizkien amaitzea izango dute helburu, ondoren, lehenbailehen herrira jaitsi, eta Kinttaden Eguna aprobetxatzeko.

Dantzak, domekan, 19:00etan

Domeka goizean herrian ibiliko dira kantu-eskean, eta arratsaldean, berriz, hainbat astez entseatu dituzten dantzak egitera irtengo dira Herriko Plazara. 19:00etan izango dira, baina aurretik, ohiturari jarraituz, Jose Arana zaharren egoitzatik pasako dira, egoiliarrei dantza egiteko.

Datorren domekan kintoek azken hitzordua izango dute; izan ere, berriz egingo dituzte dantzak plazan, ordu berean.



I.B.

Testamentuak eta herentziak

Olazar Jubilatutako Elkarteak antolatuta, *Euskal Herrian, ondorengotzaren legean aldaketak; testamentuak eta herentziak legearen inguruan* hitzaldia izan zen martitzenean, Zaldibar antzokian. Jose Luis Amerigo notarioak eskaini zuen hitzaldia eta aretoa beteta izan zen.



TORTOLIS

Txoriendako txabolak zintzilik

Eskoriatzako Tortolis ludotekako haurrek, begiraleen laguntzarekin, txorienzako txabolak egin zituzten aurreko astean, eta aste honetan zintzilikatzen ibili dira Bidebarrietako hainbat zuhaitzetan.

Haurrek eragindako txabolak dotore margotu eta kordelarekin zintzilikatu zituzten, bide batez, arratsalde ederra pasata.

Kurtzetxikira mendi irteera egingo dute Aretxabaletatik irtenda

Domekan Kurtzetxikira irteera egingo dute Aretxabaletako plazatik 10:00etan irtenda. Aretxabaletako Guraso Foroak eta Eskoriatzako Hezkuntza Foroak antolatu dute irteera elkarlanean, eta ibilbidea Aretxabaleta-Kurtzetxiki-Aretxabaleta izango da. Haurrak ezin dira bakarrik joan, heldu edo arduradun batekin joan beharko dute.

Igor Meltxor 'Kazetari Kanaia'-ren hitzaldia Eskoriatzan

Datorren egunean, otsailaren 9an, Igor Meltxor *Kazetari Kanaia* izango da Eskoriatzako kultura etxean hitzaldia egiten. 18:30ean izango da, eta ele bitan eskainiko du. Mugimendu sozialak, analisi politikoak, memoria... mota horretako gaiak jorratzen ditu, eta Eskoriatzan ere hainbat gai aterako ditu mahai gainera, konplexu barik.

"Lehen lau postuetan geratzea da helburua"

ELAITZ IREGI ESKORIATZA ARETO FUTBOL TALDEKO KAPITAINA

Denboraldiko bigarren itzulia ezin hobeto hasi dute Eskoriatzako areto futbol taldeko senior neskek; hain zuzen ere, 1-23 irabazi diote Beasaini, etxetik kanpo

Imanol Beloki ESKORIATZA

Elaitz Iregi Eskoriatzako emakumezkoen areto futbol taldeko senior mailako kapitaina da. Aurten egindako lan ona azpimarratu du hark, eta denboraldiko bigarren bueltan martxa berean jarraitu nahi dutela azaldu, gorantzako pausoak ematen jarraituta.

Nola ari zarete denboraldian?

Espero baino hobeto ari gara jokatzeko, gogotsu gaude, eta lehen postuetara gehiago gerturatzeko asmoa daukagu. Sailkapenean, laugarren postuan gaude, partidu bat galduta, lau berdinketarekin, eta lau garai-pen lortuta.

Bigarren itzuliko lehenengo partidua 1-23 irabazita, a zer-nolako garai-pena?

Egia esan, bai. Beasainen kontra etxetik kanpora sekulako garai-pena lortu genuen pasa den jardunaldian. Talde hasiberria da, gu baino gazteagoak direnak, eta, gure ligako talde errazena



Elaitz Iregi. ESKORIATZA K.E.

edo errazenetarikoak izan arren, hurrengo partiduetara begiratu behar dugu.

Hurrengo, etxean, Anoetaren aurka; partidu zaila?

Egubakoitzean 22:00etan jokatuko dugu partidua. Irabazi

beharrekoa da eta dena eman beharko dugu. Ea herritarrak gerturatzen diren animatzera, nahiz eta, orokorrean, zaleez ezin garen kexatu...

Hemendik aurrera, helburu berezirik badaukazue?

Hasiera batean, lehen lau postuetan geratzea zen asmoa, eta laugarrenean gaude. Hala ere, hemendik aurrera denak irabazi nahi ditugu.

Duela urte gutxi jaiotako taldea, baina hazteko gogoz zaudete.

Kostata sortu genuen taldea, Narciso Pavoren eta Enrique Iregi nire aitaren laguntzarekin, eta bide onetik goazela uste dut. Taldean bi neska berri ditugu, gainera, eta topera gaude.

Eta batzuk euskal selekzioarekin ere aritu zarete.

Nerea Pavo bigarren mailara joan zitzaigun, Marta Gartzia eta biok ere aritu gara entrenatzen euskal selekzioarekin, baina taldea da begiratu behar duguna, hori ez da garrantzizkoena.

Hamabost zuhaitz landatu dituzte iaz jaiotako eskoriatzarrek

Landaketaz gain, familia-argazkiak atera zituzten, albumean sartu eta haurrek eskolara eraman ditzaten

I.B ESKORIATZA

Gurasoen eta anai-arreben laguntza izan dute iaz jaiotako eskoriatzarrek zuhaitz-landareak sartzeko. Domekan, Zuhaitz Eguna ospatu zuten, eta 11:00etan batu ziren zuhaitz landaketarako prest agertu zirenak Ibarraundi museoa; gero, Arbiñoste aparkaleku ondoan dagoen belar-gunera joan ziren eta lizarrak eta haltzak landatu zituzten.

Aitzurrarekin zuloa egin eta landareak sartu zituzten, "aurreko urteetakoak baino handiagoak, indarra hartu eta gal



Zuhaitzak landatzen. OIHANA ELORTZA

ez daitezten", Saioa Alzua Ibarraundi museoko teknikariaren esanetan.

Hala, aitzurrak, landareak eta beharrezkoak zituzten tresnak banatu zizkieten gurasoei, eta, zuloak egin ostean landareak sartu zituzten. "Gehienak lizarrak dira. Erreka ondoan landatu ditugu, gunehonetarako egokiak direla uste dugulako".

Familia-argazkia aterata

Familia-argazkiak atera zituzten, argazkia albumean sartu eta 2016an jaiotako haurrek eskolara eraman ditzaten. Euren landatutako zuhaitza zenbatgarrena zen kontatu zuten batzuek, hurrengo bisitan doazenean zein zuhaitz den jakiteko. Aitzurrarekin zuloa egiten izerditu arren, domeka goiz polita pasatu zuten guztiek.



Beheko autobus geltokia leku egokiagoan jartzea da asmoa. ENEKO AZURMENDI

Beheko autobus geltokia lekuz aldatu gura du Udal Gobernuak

"Gaur egun dagoen lekua ez zaigu egokia iruditzen, ez herritarrentzat, ezta turistentzat ere", dio alkateak

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Hiru inbertsio nagusi ditu Gatzagako Udal Gobernuak 2017ari begira: beheko autobus geltokia lekuz aldatzea eta egokitzea, Gaztainuzketako mantentze eta hobetze lanak egitea eta Artabilla baserriko bidea konpontzea.

Beheko autobus geltokiaren egokitze lanetara 20.000 euro inguru bideratuko ditu Udalak. "Irigarritasunerako diru laguntza eskatuta dugu Foru Aldundian. Proiektua aurkeztu genien eta erantzunaren zain gaude. Orain dagoen moduan egonda, errepidean bertan, ez zaigu iruditzen leku egokia denik, ez herritarrentzat, ezta turistentzat ere", adierazi du Eneko Zankada alkateak. Gaineratu du autobusari itxaroten dagoen jendea lasaia eta erosoago egon dadin dela helburua: "Geltokia barrurago eta babestuago egitea izango da inbertsioetako bat, jendea

erosoago egon dadin autobusa- ren zain. Alde horretatik, hobetzeko beharra ikusten dugu", azpimarratu du.

Bestalde, Gaztainuzketa inguruaren mantentze lanak egiten jarraituko du udalak. "Aurreko urtetik datorren proiektuari jarraipena emango diogu. Eguneraketa bat eta mantentze lan batzuk behar ditu, hobekuntza batzuk. Diru asko gastatzen da lan hauek egiten", dio Zankadak. Izan ere, lan hauetara 41.000 euro inguru bideratuko direla aurreratu du alkateak.

Azkenik, Artabilla baserriko bidea konpontzeko beharra ere ikusi du Udal Gobernuak. "Konpontzeko beharra dauka bide horrek", onartu du Zankadak. Proiektu honetara 37.000 euro bideratuko dira.

Inbertsioak egiteko, diru laguntzekiko duten menpekotasuna azpimarratu du alkateak.

Euskailuak baratze berrian

Gurel guraso elkarteak bultzatuta eta eguraldi ona aprobetxatuz, herriko baratze berrian euskailuak jarri zituzten pasa den zapatuan herriko zenbait haurrek.

Izan ere, baratze berria hasi da fruituak ematen, ilarrak eta beste hainbat landare hazi dira dagoeneko. Azaroan jarri zen martxan Jakion alboko baratzea.



GUREL



Herritarrak eta trikitalariak Santa Ageda bezperan abesten, Iturrieta sagardotegiaren kanpoko aldean. MONIKA BELASTEGI

Elkarlanean prestatutako Santa Ageda ate joka

Herriko Bertso Eskola, Trikiti Taldea eta Bizente Goikoetxea Abesbatzak elkarrekin irtengo dira, beste behin, kaleak eta auzoak girotzera. Aurtengoa berezia izango da; izan ere, zapatua izanda, auzoz auzo ere arituko dira eskea egiten egun berean

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Santa Ageda eguna Aramaion ongi erroturik dagoen ohitura da, eta, tradizioari jarraiki, aurtengo ere kantua giroan murgilduko dira Aramaio kaleetako eta auzoetako bazterrak.

Aurten, laugarrenez, herriko lau kultura talde batera irtengo dira bihar, zapatua, eskea egitera. Izan ere, azkeneko asteetan, Bertso Eskolako, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzetako eta Trikiti Taldeko ki-

deak eguenero elkartu dira elkarlanean egun berezi hori prestatzeko.

Baina auzoetan ere betidanik egon da Santa Ageda egun berean kantuan aritzeko tradizioa, eta aurten, zapatua izanik, he-

rriko lau taldeekin bat egingo dute egun berean.

Trikiti Taldearen kasuan, faktore horrek eragina izan du, partaideek batean edo bestean aritzea erabaki behar izan dutelako. "Gure taldeko partaide asko auzoetan bizi dira, eta, normala den legez, bertan aritzea erabaki dute", azaldu du Ainhoa Ullibarriarana trikitalariak.

Hiru entsegu

Urtarrilaren 19an egin zuten aurtengo kalejira lantzen hasiteko lehen entseguak. Jende gutxi agertu zela esan zuten lau taldeetako koordinatzaileek. "Horrelako kasuetan, normala izaten da lehen entsegura jende gutxi hurbiltzea. Baina eguna gerturatzeaz bat, jende agertzen hasten da" azaldu Larraitz Arriolabengoak, Papargorri abesbatzako koordinatzaileak.

Hori ikusita, herritarrei entseguetan parte hartzeko dei egin zieten eta joan den asteko entseguan jende kopuru polita batu zen.

Aurten ere aurreko urteetako ibilbide bertsua egingo dute. Goiz partean bi taldetan banatuko dira, eta, Zalgo, Arraga, Salazan eta Ametzu inguruan ibili ondoren, Iturrieta sagardotegian batuko dira bazkaltzeko. Bazkalostean kalegunera jaitsiko dira, Ibarra kantuz alaitzera. Aurtengo bazkarirako 55 lagunek eman dute izena.

Manex Agirre eta Peru Abarrategi etzi, domekan

Langraitzen jokatu den finalurrekoan egingo dute debuta 2017ko Arabako Txapelketan

X. G. ARAMAIO

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketako azken txanpak aste-buru honetan hasiko du ibilbidea, Langraitzeko Gizarte Etxean egingo den lehenengo finalurrekoan.

Saioa 17:30ean hasiko da eta bertan abestuko dute Manex Agirrek eta Peru Abarrategik. Lehenak titulua defendatzen, eta bigarrenak bertsolari gazteena gisa.

"Burua zalantzez beterik dudala ekin nion txapelketa prestatzeari. Duela bi urte izan nituen sentazio on horiek urrun sentitzen nituen. Kuriositatez eta gogoz nago aurtengo lehiakideei pultsua hartzeko, eta zein maila dagoen ikusteko", azaldu du Agirrek.

Peruren kasuan, lehen Txapelketa izan arren, ahotsa ondo berotuta helduko da domekako saiora. Gaur bertso afaria dauka Gasteizen eta bihar kantuan arituko da Santa Ageda eskean. "Bertso eskolan martitzeneko elkartzen gara, baina azken bi hilabeteetan serioago hartzen ditugu saioak, txapelketarako lagungarriak diren ariketak lantzen. Manex alboan izango dut, eta egun ona edukitzea espero dut, saio polita egiteko".

Itur-zuri elkarteko batzar orokorra bide onetik joan zen

Duela aste bete egindako batzarrean aurreko urteetan baino partaide gehiago batu zirela nabarmendu dute.

Hiru pertsona berri aukeratu zituzten elkarte zuzentzen duen lantaldean sartzeko, eta, horretaz gain, Martxoaren 8ari begira antolatuta behar dituzten ekin-tzak definitzen hasteko baliatu zuten batzarra.

Nola joan dira aurtengo entseguak?



AINHOA ULLIBARRIARANA
TRIKITI TALDEA

"Orokorrean, ondo, betiko martxan. Herriko elkarreketako kideez gain, herritarrak ere gerturatzen dira eta giro polita egoten da. Lehen entsegura ez zen jende askorik gerturatu, eta urduritasun puntu bat nagusitu zen, aurten bertso berriak abestu behar direlako, baina gero, jendeak ez du kale egin".



LARRAITZ ARRIOLABENGOA
PAPARGORRI ABESBATZA

"Ba, egia esan, lehen entsegua eskas samarra izan zen, ez zelako jende askorik hurbildu. Baina aurreko asteko entsegura jende gehiago etorri zen; beraz, ondo. Aurreko urteetako jende kopuru antzerakoa batu ginen, eta garrantzitsua da, aurten egun berean auzoetan ere abestuko dela kontuan izanda".



BITXOR KORTABARRIA
BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA

"Eguenero elkartu gara, eta, aste honetakoarekin, hiru entsegu egin ditugu. Ondo joan dira. Lehen entsegura ez zen jende askorik hurbildu, baina normala izaten da hori gertatzea. Bigarren entsegura 30 lagun etorri ziren, eta zapatuan jende mordoia izatea espero dugu, 55 lagun batuko baikara Iturrietan".



XABI IGOA
BERTSO ESKOLAKO KIDEA

"Aurten doinu berri bat landu dugu, eta lehen entseguan jende gutxi ikustean alarmak piztu ziren. Laugarren urtea denez parte hartzaileek erlaxazio puntu batekin hartzen dute, eta normala da hori gertatzea. Hala ere, bigarren entsegua ondo joan zen eta bazkaltzeko jendetza batuko gara".

Akordioa, Otxandio eta Oleta bidegorriz lotzeko

Otxandioko eta Aramaioko udalek eta Oletako Batzar Administratiboak hitzarmena sinatu dute Oleta eta Otxandio artean bidegorria egiteko. Horretaz gain, 'Limitaue' lursailaren mendeetako gatazka gainditzeko konpromisoa azaldu dute bi udalek

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Urtarrilaren 26an egindako osoko bilkuran, Aramaioko udal ordezkari guztiak baiezko botoa eman zuten Oleta auzoa Otxandiorekin lotzeko bidegorria egiteko hitzarmena sinatzeko.

Era horretan, hiru aldeko akordioa lortu da, Otxandioko eta Aramaioko udalen inplikazioarekin eta baita Oletako Batzar Administratiboarekin. Bidegorria egiteko proposamena Otxandioko Udaletik etorri da, bidea azken sei mendeetan eztabaidagai izan den *Limitaue* (*El Limitado*) lursailetik igaroko delako. 592 hektareako lursail hori Oleta, Legutio eta Otxandio artean dago.



Bidegorriarekin Oletako bizilagunen mugikortasuna hobetuko da. AFA HIRIGINTZA

'Limitaue'-ren gatazka

Kondairak dio Aramaio eta Otxandio arteko muga apustu baten bidez ezarri zela. Egunsentiko oilarraren kukurrukua-rekin bat, herri bakoitzetik korrikalari bat atera eta haiek elkartzen ziren tokian muga ezartzea adostu zuten. Aramaioko oilarrari kandela jarri omen zioten kukurrukua lehenago egiteko, eta, hori dela eta, bi korrikalariak ia Otxandion egin zuten topo.

Baina kondairatik harago, badaude *Limitaue*-ren jabegoari buruzko datu historikoak. Jesus Maria Elejaldek idatzitako *Ayer y hoy del valle de Aramayona* liburuan jasotzen denez, XV. mendea ezker dator lur horien jabetzaren eta erabileraren gaineko gatazka.

1457an, Elvira de Leyvak, Juan Alonso Mujika Aramaioko jauntxoaren amak, *Limitaue*-ko lurren gozamen-eskubidea eman zion Otxandioko Udalarari: "Desde agora en adelante y para siempre jamás damos e entregamos al Concejo de la villa de Ochandiano el uso e frutos, aprovechamiento de cualesquiera tierras...".

GATAZKA HISTORIKOA BAZTERTU ETA BIZI BERTAN BIZI DIRENEN KALITATEAN JARRI DUTE FOKUA

Ordutik hona, hainbat auzi izan dira gai horren inguruan, baina kontzeptu hauek nahiko argi mantendu dira: gozamen-eskubidea Otxandiorena dela eta lurraldetasuna eta jurisdikzioa Aramaiori dagozkiola.

Gatazka gainditzeko borondatea

Hitzarmenaren helburu nagusia gatazka historikoa alderatu eta bertako bizilagunen bizi-kalitatea eta mugikortasuna hobetzea izan da.

Hitzarmenean bertan hauxe aipatzen da: "Adierazten dugu bailararen garapenak eta bertan bizi diren bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea izan beharko lukeela helburu nagusia. Garapen eredu iraunkorrago baterantz bidea egin nahi badugu, beharrezkoa da pertsona eta merkantzien mugikortasuna arrazionalizatzea".

Baina bidegorria egiteko akordioaz gain, gatazka historikoaren eraginak leundu eta hura gainditzeko urratsak egiteko konpromisoak ere hartzen ditu barne hitzarmenak.

Hain zuzen, zazpigarren puntuan argi eta garbi azaltzen da borondate hori. "Gatazka historiko honek pizgarri bihurtu beharko luke liskarra gainditu eta bi udalerrien arteko lankidetzarako esparruak garatzeko. Zentzu horretan, hitzarmen hau aro berri baten lehenengo pausotako baten gisa irudikatzen dugu".

Lanak zatika

Bidegorria egiteko inbertsioa handia denez, proiektu zatika garatzea adostu dute.

Aramaioko Udalak ez du aurreikusten epe laburrean bidegorria egiten hasteko aukera ekonomikorik izango duenik. Otxandioren kasuan, aurten lanak hasteko asmoa adierazi dute.

Zehazki, lehenetsua eman nahi diote Otxandioko Mainondo ikastetxea eta Etxebarri baserria lotzen dituen oinezko bide zatiari.



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Bizi ala 'bizi'?

Lanpetuta, estresatuta eta iritsi ezinik bizi gara. Bizi garen jendarte zoro honetan ohikoa da, ohikoegia.

Bizitza erdigunean jarri behar dela entzun eta aldarrikatu dugu askotan, baina benetan egiten ahal dugu?

Teoria feminista eta ekonomia ekosozialistetatik datorren ideia dugu. Bizitza benetako erdigune izan dadin badago guztiok –indibidualki zein kolektibo bateko partaide bezala– egin beharreko zerbait: lan egin, kontsumitu, militatzeko eta erlazionatzeko eredu aldatu beharra daukagu.

Konturatu orduko kapitala eta merkatuaren zurrumbilo geldiezinaren nahitaezko kide bihurtzen gara. Eta zurrumbilo hori da gure bizitzako denbora erritmoak markatzen dituen. Baita rolak eta lan egiteko moduak ere. Konturatzeko gure bizitza pertsonal, militante eta denbora librean merkatuak ezarritako baldintzak errepikatzen ditugu.

Nire buruari galdera bat planteatzen diot sarri, ea denon artean erantzuteko kapaz garen. Nolako izan behar luke bizitza merezi duen bizitzak?

Epai batek behartuta presoan aldeko bandera kendu dute

Aramaioko Udalak 1999ko osoko bilkura batean onartu zuen eskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen zuen bandera udal-letzeko balkoian jartzea.

2004an helegite administratibo bat jarri zuten banderaren aurka, baina Udalak errekurtsioa jarri zuen, eta kausa artxibatu egin zen. 2013an, Carlos Urquijo Espainiako Gobernuaren or-

dezkeriak helegitea jarri zuen Arabako Auzitegi Probintzian, baina 2014ko maiatzean helegitea bertan behera geratu zen bigarren bezala.

Urte bereko abenduan berriz jarri zuen helegitea gobernu ordezkariak, argumentu ezberdinak erabiliz, eta, orduan, Udalaren errekurtsioak ez zuen aurrera egin. Euskadiko Auzitegi Gorenean helegitea jarri zuen Udalak, baina kartzela kompetentzia udal kompetentzia bat ez dela argudiatu dute epaileek.



ARAMAIOKO UDALA

Fitosanitario titularen bila

Astelehenean hasi zuten Arbel-ek antolatutako fitosanitarioen ikastaroa, eta 35 lagunek eman dute izena. Aste honetako arratsalde guztietan batu dira udal-letzeko osoko bilkura aretoan, fitosanitario titulua lortzeko asmoz.

Udalak lokala utzi dio Arbeli, lehen sektorearen profesionalizazioan, iraunkortasunean eta garapenerako ekintza positibo dela argudiatuta.

Jaitsiera gabeko udal kontuak

Gobernuak nabarmendu du herritarrekin zerikusia duten gaietan jaitsierarik gabekoa dela 2017ko aurrekontua eta egitasmo berrietarako ere dirua jarri dutela, gazteek etxebizitza alokatzea errazteko eta gaztetxoak atzerrira ikastera joateko, adibidez

Julen Iriondo BERGARA

Gobernuaren aldeko botoekin eta oposizioaren kontrakoekin egin du aurrera Bergarako Udalen 2017ko aurrekontuak: 22.362.510 euro, iazkoa baino %1,55 handiagoa. Asteleheneko osoko bilkuran Elena Lete alkateak nabarmendu zuen Gizarte Zerbitzuak, Kultura, Kirola, Gazteria, Hezkuntza edo Euskara moduko sailetan ez dela jaitsierarik egon –azaldu zuen Gizarte Zerbitzuetan eta Auzoetan taulan ikus daitezkeen balio negatiboak direla Mizpirualde egoitza Kabia erakundearen menpeko izatera pasako delako ekain amaieran eta San Martin eta Erramu Zapatuko feriak Kulturara pasa dituztelako–.

Inbertsio eta partida nagusiei dagokienez, kopuru handiagoko beste batzuekin batera, berrita-

sun gisa, alkateak nabarmendu zituen gazteendako alokairu sozialerako 30.000 euroak eta *Erasmus plus* programarako 12.000k: "16-18 urte arteko gazteentzako Europara joateko aukera izango da, institutu batera; Bergarak daukan iragana eta ondarea kontuan hartuta, esparru egokiena eta naturalena zientzia eta teknologia dela ikusten dugu".

Negoiazioa eta etorkizuna

Aurrera begira adostasunak lortzeko itxaropena agertu zuten bai Gobernuak eta bai EH Bilduk, oraingoan negoziatu izana ontzat joz, nahiz eta adostasunera iritsi ez: "EH Bilduk proposatutako aurrekontua zen milioi bat euro pasakoa, oso altua emendakinak izateko, kontuan hartuta, batez ere, inbertsiorako gure ahalmena ez dela hiru milioira iristen".

Arrizuriagarekin lotutakoa zen koalizioaren proposamene-tako bat: "Goazen hastera herriri galdetzen zer nahi dugun, eta, behintzat, aurreproiektu batzuk-eta egitera. Bada, ez. Eta hori gutxi balitz, gainera, euren intentzioetan ez dago Arrizuriaga, ze, ingurua konpondu behar dute, eta nola inbertituko duzu diru bat inguruko parkea konpontzen etxea bada arazoa? Aurten konpontzen dugu parkea eta hurrengo urtean sartuko ditugu makina guztiak?", zioen Leire Iruinek. EH Bilduren irakurketa ez zela zuzena eta lorategiko lanak eraikinarena kontuan hartuta egingo dituztela erantzun zuen Gobernuak.

EH Bildu kexu agertu zen, baita ere, Gobernuari sail bakoitzeko kudeaketa planak eskatu, eta jaso ez dituztelako:

"Urtean zehar izango dugu gertu gauden puntuei heltzeko aukera"

ELENA LETE BERGARAKO ALKATEA

EH Bildurekin izandako negoziazioekin gustura da Gobernuak.

Pozik agertu zarete adostasunak iritsi daitezkeelako.

Negoiazioa egon izana, bere horretan, ona da: elkartu gara, ikusi dugu zeintzuk ziren

adostasunak eta desadostasunak, eta, alde horretatik, arrakasta izan da. Orain, beti nahi dena da adostasuna lortzea, eta hori ez dugu lortu, nahiz eta gerturatu garen hainbat puntutan. Baina urtean zehar izango dugu gertu gauden puntu horiei heltzeko aukera, ekonomikoki modua baldin badago.

Arrizuriaga izan daiteke bat?

Harako bi partida ditugu: 19.210 euroko bat eraikina birgaitzeko proiektua garatzeko –ez horretarako bakarrik, ze Udalak baditu hainbat proiektu lehendik, eta mahai gainean jarri behar dira eta ikusi ezer badagoen egunean: liburutegiaren proiektua-eta hor daude–. Bilduk diru gehiago eskatzen zuen partida horretarako, oso kopuru handia. Horrez gain, lorategia egokitzeko 48.000 euro daude.

Osintxurako 250.000 euro proposatzen zituen EH Bilduk. Pena zuten, horretan ados egon baina proposamen orokorrarekin bat etorri ez izanagatik hura ere ez zelako aurrekontuan sartu, azaldu zuten.

Hori da interpretazio bat, nik ez dut berdina egiten. Ez dugu aurrekontuan sartu: batetik, diru asko zen, eta, adibidez, ikusi egin behar dugu oraindik Boluan gertatutakoak zer eskatuko duen. Baina Osintxurako ekarpen batekin guztiz ados gaude, eta horregatik eskatu genuen iaz Jaurilaritzan Birgaitze Integratuko Area izendapena; erantzuna ez dugu jaso oraindik, eta uste dugu horren arabera eman behar ditugula hurrengo pausoak. Partida berezia sartu ez badugu, ez da beharrik ikusten ez dugulako.



GOIENA

Departamendu eta zerbitzuetako aurrekontuak

| Saila | 2016 | % | 2017 | % | Aldea |
|---------------------------|----------------------|------------|----------------------|---------------|-------------|
| Auzoak eta Landa Garapena | 348.985,00 | 1,58 | 332.930,00 | 1,49 | -4,60 |
| Euskara | 449.773,00 | 2,04 | 452.763,00 | 2,02 | 0,66 |
| Gazteria | 249.500,00 | 1,13 | 277.000,00 | 1,24 | 11,02 |
| Gizarte Zerbitzuak | 2.073.071,00 | 9,41 | 1.990.103,35 | 8,90 | -4,00 |
| Gobernu Organoak | 438.490,00 | 1,99 | 622.689,53 | 2,78 | 42,01 |
| Hezkuntza | 390.860,00 | 1,77 | 468.200,00 | 2,09 | 19,79 |
| Ingurumena | 1.346.285,00 | 6,11 | 1.345.285,00 | 6,02 | -0,07 |
| Kirolak | 1.483.440,00 | 6,74 | 1.505.679,89 | 6,73 | 1,50 |
| Kultura | 1.173.321,00 | 5,33 | 1.745.509,50 | 7,81 | 48,77 |
| Lurralde Antolamendua | 798.510,00 | 3,63 | 952.960,00 | 4,26 | 19,34 |
| Obra eta Zerbitzuak | 3.609.531,00 | 16,39 | 3.353.362,93 | 15,00 | -7,10 |
| Ogasuna | 1.489.781,00 | 6,77 | 1.318.401,00 | 5,90 | -11,50 |
| Pertsonala | 7.656.417,00 | 34,77 | 7.440.545,00 | 33,27 | -2,82 |
| Zerbitzu Orokorrak | 513.181,00 | 2,33 | 557.081,00 | 2,49 | 8,55 |
| Guztira | 22.021.145,00 | 100 | 22.362.510,20 | 100,00 | 1,55 |

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

"Gazteek etxea alokatzeko diru bat egongo da"

MARI CARMEN BARRENETXEA
PSE-EE

Gobernuko kide da PSE-EEkoa.

Zer nabarmenduko zenuke

Gizarte Zerbitzuetara bideratuko den dirutik?

Berehala erantzungo dizut, baina aurrera esan nahi nuke eraginkortasunez eta bizkor ibili dela Udala Boluko luiziarren gaian, eta bizilagunen alboan egon garela etxetik irten behar izan dutenen arazoa konpondu arte. Hori esanda, entzumen arazoak dituzten pertsonen laguntzeko partida izango dugu aurten ere. Eta, lehen aldiz, gazteek etxebizitza alokatu ahal izateko diru bat ere izango dugu; aspalditik nahi genuen.

Oro har, Gobernuaren gardentasunaren gainean zerbait esan nahi zenuen.

Bai. Ez nago ados oposizioak esaten duenarekin. Batzordeak informatiboak dira, eta ezin badu zinegotziak joan, taldeko beste edonor joan daiteke.



GOIENA

BALORAZIOA

LEIRE IRUIN EH BILDU

"Kudeaketa eredu iluna dute"

"Prozesua denboran kokatuz, aurrekontuak lantzeko beharrezkoak diren kudeaketa planak eskatu genituen azaroan, batzorde guztietan, baina ez genuen erantzunik jaso, bi batzordetan salbu. Hau kudeaketa eredu ilunaren isla da, izugarriko gardentasun falta. Kudeaketa plan hauek definitzen dute urtean zehar aurrera eramango diren ekintzen plana, eta hauen gainean landu beharko lirateke aurrekontuak, egin beharreko bakoitzari dagokion diru partida esleitura.

Inprobisazioa izan da nagusi. Bilerak egun batetik bestera deituta, beraiek ezarritako egutegia ez errespetatuz... Adibide garbi bat: abenduaren 28rako, Inuzente Egunerako, hamar bilera deitu zituzten bezperan. Honek asko zaildu du adostasuna.

Laburbilduz, aurrekontuak eztabaidatzeko prozesua nahiz eta 2016koa baino zerbait hobea izan –iaz EH Bilduk egin zuen salaketaren ondorioz–, adostasunetara iristeko saiakera egin eta zenbait gaitan etorkizunean ados jartzeko atea irekita geratu –gazteentzat alokairurako laguntzak, Larramendi edo Labegarieta; nahiz eta proiektuon zehaztasunak ezagutzeko zain gauden–, oraindik ere hobetzeko marjina handiak ikusten ditugu. Udal Gobernuak oposizioarekin benetan kontatzeko oraindik bide luzea falta da, eta, gainera, gogor salatu nahi dugu auzoetako ordezkariekin izan duten jarrera. Ez diete aurrekontu proposamena aurkeztu, eta, ondorioz, ez dute ekarpenik egiteko aukerarik izan.

Aurrekontuak berrikuntza falta du, ez da etengabe eraldatzen ari den gizarte honen beharrei erantzuteko gai. Horren erakusle dira auzoak, ingurumena, enplegua eta parte-hartzea. Arlo horiek hobetzeko bidean egin genizkion aurrekontuari ekarpenak: Arrizuriagako etorkizuneko proiektua idazteko partida; lan harreman demokratikoak bermatzen dituzten lanpostuak sortzen dituzten enpresei diru laguntzak; energetikoki burujabeagoak izateko aukerak aztertzea...".



GOIENA

"Kudeaketa planak dira jakiteko Udal Gobernu honek ze asmo dituen urte guztirako, eta horren isla izan behar dira gero aurrekontuak. Bestela, aurrekontuak zenbakiak baino ez dira, eta horren atzetik ze proiektu eta ze ekintza dauden ez dakigu". Gobernuak defendatu zuen aurreikuspenak egiteko bere modua eta asmoak aurkezteko era –ekintza planaren bitartez–.

Adibidez, EH Bilduk hasiera batean begi onez ikusiko litzuzkeen Gobernuaren asmoen ar-

tean legoke Larramendin enpresa txikiak bultzatzea helburu lukeena –150.000 euro–, baina proiektuaren gaineko zehaztasun handiagoa eskatu zuten.

Irabaziren zuzenketa

Irabazik osoko zuzenketa aurkeztu zion aurrekontuari, eta Gobernuak negoziatzeko borondate eza eta "proposamen demagogikoa" egitea egotzi zizkion. Bergara "oso egoera txarrean" dagoela zioen Aiert Lizarralde,

"bai auzoetan, bai ingurumen arloan eta bai zerbitzu sozialean"; azken horretan, memoria bat badagoela baina "lanketa handiagoa" falta dela zioen, "arazoaren tamaina" ezagutzeko.

Bestetik, alkateak egotzi zion Boluko lurjausiaren harira gaierikiko interesik agertu ez izana. Lizarralde erantzun zuen Gobernuari zegokiola egoera hartan erabakiak hartzea, eta ondo jardun zuela, gainera. Akusazio horretan "mendeku gosea" ikusi zuen Irabazikoak.

Zenbait inbertsio eta partida, eurotan

Aurrekontuan jasotakoekin oinarria euren programetan dutela dio Gobernuak. Horrez gain, partaidetza sustatzen jarraitzen dutela, zeharkako irizpidea dela proiektu askotan.

| | |
|-------------------------|---------|
| Seminarioko aretoa: | 495.000 |
| Bidegorria, Ugarte: | 400.000 |
| Espoloiko kioskoa: | 211.000 |
| Errekaldeko lorategia: | 157.000 |
| Larramendi: | 150.000 |
| Azterketa teknologikoa: | 150.000 |
| Boluko frontoia: | 100.000 |

| | |
|--------------------|---------|
| Idea lehiaketa: | 100.000 |
| Labegarieta: | 85.000 |
| San Martin, karpa: | 77.000 |
| Arrizuriaga: | 67.000 |
| San Antonio: | 38.500 |
| Gazteen alokairua: | 30.000 |
| 'Erasmus plus': | 12.000 |



GOIENA

Bidegorria Herriko sarea osatzea nahi du Gobernuak. Geltoki inguruko zatian lanak hasita daude, gero etorriko dira Boni Laskurainekoak, eta aurrekontuak 400.000 euro ditu Ugarte kaleko zatirako, proiektua egiteko eta exekuziorako.



GOIENA

Errekalde Lorategia txukuntzeko proiektua egina du Udalak. "Irisgarritasuna bermatzea oso zaila da, gaur egun", eta aurten horri heltzea aurreikusi dute aurrekontuan. Ilustrazio garaiako lorategi baliotsua da Errekaldekoa.



GOIENA

Espoloia Kioskoaren aurreproiektua aurreratuta dago, eta proiektua udarako egotea espero du Gobernuak. Alfredo Gonzalez Chirlaqueren aholkularitzarekin, Pazkoetan behin-behineko agertokia jarri zuten inguruan egingo dute.



San Martin Agirre Ikastetxea aspalditik ari zen eskatzen jolastokirako karpa bat, jolas-orduetan eguraldi txarrekin ere han jardun ahal izateko. Jaurlaritzaren *Udalaguntza 2016* programako diru laguntza eskatu du Udalak azpiegitura honetarako.

BALORAZIOA

AIERT LIZARRALDE IRABAZI

"Inposatu egin dizkigute kontuak"

"Inposatu egin dizkigute aurrekontuak. Aurrekontu hauek herriak bizi duen errealitate krudela ezkutatu egiten dute. Gizarte Zerbitzuetako departamendua jendez gainezka dago eta hark duen gaitasun eza Caritas edo Elikagai Bankua bezalako elkarteek euren gain hartu behar dute.

Energia burujabetza, elikadura subiranotasuna, alokairu sozialarekiko apustua, uraren kudeaketa, mugikortasun jasangarria, bioaniztasuna edo eta hondakinen prebentzioak ez dute ezer jakin nahi. Auzoei dagokienez, bertako herritarrek bigarren mailakoak izaten jarraitzen dute. Ura, Internet, Goiena telebista, argiteria, garraio publikoa, bidegorriak, eta beste hainbat oinarrizko behar bermatu gabe dituzte; bitartean, Gobernuak, ohikoa den moduan, guztion dirua hirigintzako makro-proiektu amaigabeetan xahutzen jarraitzen du".



GOIENA

Nobedadeen zain daude Bolua kaleko bizilagunak

Etxeetatik kanpo jarraitzen duten kaltetuetako batzuek euren etxebizitzetan sartzeko aukera izan zuten egubakoitzean, beharrezko gauzak jasotzeko. 59koen kasuan, aldiz, ataria oso kaltetuta dago, eta ez eurak, ezta peritua ere, ezin dira oraindik sartu

Maite Txintxurreta BERGARA

Urtarrilaren 16an Boluan izan-dako luiziaren eraginak oraindik ere jarraitzen du, eta kaltetutako zazpi familiek ez dake noiz itzuliko diren etxera.

Udalari ordezkotako etxebizitza eskatu zioten lau familiak dagoeneko sartu dira etxe horietan bizitzera. Giltzak joan den astean jaso bazituzten ere, horietako bik arazoak izan dituzte etxeko hornidurekin, baina honezkerok konpondu dute.

Egubakoitzean, etxetik kanpo dauden familia horietako batzuek euren etxeetan sartzeko aukera izan zuten, beharrezko dituzten gauzak ateratzera, udaltzainen laguntzarekin. 59. atarikoek, aldiz, ezin izan zuten sartu, ataria egoera kaxkarrean dago eta. Suhiltzaileen laguntzaz atera zituzten euren gauzak. Suhiltzaileak balkoietatik sartu ziren. Haiek grabatutako irudiek erakusten dute etxebizitzak urez beteta daudela oraindik.

Bada, 59. atariaren egoerak peritua sartzeko ere galarazi zuen, suhiltzaileen gomendioz. Atariko komunitateko presidente Karlos Etxanizek dio perituaren azterketa horren zain daudela orain, ahalik eta lasterren jakin nahi baitute ea aseguruak bere gain hartuko dituen kalteak.



Suhiltzailea kaltetutako etxebizitza baten balkoian, egubakoitzean. M.T.

Segurtasunagatik, etxetik kanpo

57, 61 eta 63. atarietakoek ere etxeetatik kanpo jarraitzen dute. Etxe horietan ez dago bertan bizitzea eragotziko lukeen moduko kalterik, sartzeko aukera izan zuen Maite Agirre zinegotziak azaldu duenez. Argitu du segurtasuna bermatzea dela bizilagunak etxetik kanpo mantentzeko erabakiaren arrazoia.

Makina berezia lanerako

Maldan egiten diharduten lanei dagokienez, etxearen atzealdean

pilatuta geratutako lokatza eta arramak kentzeko, makina berezi bat ibili da lanean. Lanen zailtasuna zela-eta Bizkaitik makina berezi bat ekarri behar izan dute, goiko trenbidetik lan egin duena.

Trenbide zatia itxita

Bolua paretik pasatzen den Goko trenbideko pasealeku zatia itxi egingo dute: "Segurtasun neurri denak betetzen direla ziurtatu arte, ez dugu berriro zabalduko", dio Lander Arregi zinegotziak.

Idea lehiaketako proiektuak ikusi eta bozkatzeko aukera

Aste honetako eguaztenean amaitu da Bergarako Udalak herriko bizi kalitatea hobetzeko proiektuak jasotzeko antolatutako ideia lehiaketa. Bada, orain, proiektu horiek Aroztegi aretoan ikusgai jarriko dituzte, martitzenetik (otsailak 7) domekara (otsailak 12). Gainera, bertan, herritarrek gustuko izan dituzten proiektuen aldeko botoa emateko aukera izango dute. Hala, lehiaketa honetarako eratutako epaimahaia-aren balorazioak %50eko balioa izango du sariak erabakitzean, eta herritarrenak gainerako %50a. 18 proiektu jaso dituzte Udalean, eta guztiak izango dira ikusgai Aroztegin, adin kategoriaren arabera sailkatuta.

San Blas jaiak egubakoitzetik domekara Buruñao

Gaur, egubakoitza, goizeko zortzietako etxafuegoek abiatuko dituzte Buruñao auzoko San Blas jaiak. 11:00etan, berriz, meza nagusia izango da, eta San Blas opilak bedeinkatuko dituzte bertan. Gero, salda eta txorizoa izango da auzoko elkartean. 17:00etan, berriz, txokolata-jana. Bihar, 16:00etan mus txapelketa jokatu dute –izen ematea ordu erdi lehenago–, 29. San Blas saria. Iluntzean auzo afaria eta gero erromeria. Domeka goizean, etxafuegoak eta motozerrarekin egurrezko eskulturak nola egiten dituzten ikusteko aukera izango da, eta eguerdian Moises Azpiazu-Aranzadi ikastolakoen dantza emanaldia.



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Izorratu

Aurreko zutabe baten kutsadura akustikoari buruz idatzi neban. Udalak Bergarako zarata mapa garatu duela enteratu nintzenian, nire izaera kompetitiboa dela-eta, interes handiarekin irakurri neban, bizi naizen kalea zenbatgarren sailkatu zen jakitzeko... eta sorpresa, beste kale gutxi batzuekin batera, herriko tokirik zaratsuenean bizi naiz, toma esa. Txapelkunak.

Asko kostatu zaigu titulua lortzea eta eskerrak emon nahi dotset horretarako topera lanean ibili garen guztioi: goizeko seieta okinei eta beraien karramoto zaratsuei, zazpietako barrenderoei –merkatuko makina zaratsuenari kaña emoten–, enbragia pikatzen pasatzen diren kotxeei, alkantarillak solte lagatzen dozueno, topera azeleratzen dozuen motoristei, gabian garrasika pasatzen diren juergistei, udalari –gero eta kontzertu gehiago bertan antolatzearren–...

Hurrengo ikerketari begira emaitza hobetu eta titulua berriz lortzeko ideiak lantzen ari gara: garai bateko afiladoria eta ijito tronpetistia kontratau auzoan joteko, kotxe eta motorrei tuboskapia kendu, auzoko batukada taldea sortu, "el ke no pita no pasa" kartela jarri...

Beti esaten dot zentroan bizitzeak badauzkala abantailak... leku baketsuetan bizi zaretenok, izorratu...

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA

MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Herri euskaldunagoa lortzeko indarberrituta

Jardun Euskara Elkarteak bukaera eman berri dio 'Zurekin Bergara euskaldunago' bazkideetza kanpainari. Antolatutako ekintzek erantzun ona izan dute eta 24 bazkide berri egin dituzte; horrenbestez, bultzatzaileek "oso ondo" baloratu dute kanpaina

Maite Txintxurreta BERGARA

Jardun euskara elkarteak bukatutzat eman du abenduan martxan jarritako *Zurekin Bergara euskaldunago* bazkideetza kanpaina, joan den egubakoitzean egindako ekitaldiarekin.

Kanpainak bi helburu nagusi izan ditu, Jardunen zuzendaritzako kide Iñigo Arregiren esanetan: "Batetik, "elkartea sortu zeneko bazkideekin harremanak berrartzeko asmoa", eta, bestetik, bazkide berriak lortzekoa. Hala, herriko euskaltzaleak Bergara euskaldun baten aldeko lanera-ko aktibatu nahi izan dituzte.

Balorazio positiboa

Kanpaina horrek emandakoa-ekin pozik azaldu dira Jardunen. Balorazioa egiteko orduan, bi aspektu nabarmendu dituzte: kualitatiboa eta kuantitatiboa.

Batetik, Arregik azaldu duenez, Barrenkaleko behin-behineko lokalaren presentziak kanpaina herrira zabaltzen lagundu du, eta aipatu du antolatu dituzten ekintzek -hitzaldiak, mahai-inguruak, umeendako tailerrak...- harrera ona izan dutela. Gainera, azpimarratu duenez, Jardunek "aspalditik izan nahi duen gune propio hori" irudikatu ahal izan dute lokal berri horren erabilerarekin.



Kanpaina bukaeran Barrenkaleko lokalean egindako ekitaldia. JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Arlo kuantitatiboari dagokionez, azaldu du kanpainak iraun duen bitartean 24 bazkide berri lortu dituztela, "gaur egun bazkideak lortzea zaila den arren". Gehienek laguntzaile ekonomikoaren figura hautatu dute, baina lehengo bazkide batzuk eta bazkide berri batzuk bazkide ekintzaile ere bilakatu dira. Hala, "oso ondo" baloratu dute hila-bete eta erdi honetan lortutakoa.

Ezinbestekoa izan den langile eta boluntarioen lana txalotu du Arregik, eta bazkide berriei eskerrak eman dizkie.

Lanean segitzeko beharra

Arregik gogorarazi du azterketek erakusten dutela euskararen erabilera mantenduz edo jaitsiz doala herrietan, eta Bergara ez dela salbuespen. Horregatik, euskararen aldeko lana artean ere ezinbestekoa dela uste du.

Bada, lan horretan Jardunen bazkide bilakatuz lagundu nahi duenak badu horretarako aukera oraindik, kanpaina bukatu bada ere. Jardunen Errotalde jauregiko betiko bulegotik pasatuta edo *jardun.eus* webgunean egin daiteke hori.

Jaiak antolatzeko lehen bilera deitu du Xaxau konpartsak

Goiena komunitatea

Xaxau konpartsa/ BERGARA

Xaxau konpartsak Pentekoste jailetara begira egitarau herrikoia antolatzeko lehenengo bilera deitu du datorren eguaztenerako, hilak 8, 18:45ean, kultur etxeko ganbaran. Interesa duen edo ekarpenen bat egin nahi duen edonor gonbidatu nahi dugu bertan parte hartzera.

Otsailaren 25eko mozerro bazkarirako txartelak salgai

14:30ean izango da, Aranzadi ikastolako gimnasioan, Kolpez Blaik girotuta. Menua Bergarako produktuekin egina da: patatak errioxar erara, haragi-bolak, ogia, tarta, kafea eta edariak. Txartelak salgai Udaleko Kultura Zerbitzuan eta Pol-Pol eta Ariznoa tabernetan otsailaren 21era arte. Prezioa: 16 euro.

Taila Eskolak batzar nagusia egingo du astelehenean

Astelehenean, hilak 6, Taila Eskolak batzar nagusia egingo du, Zabalotegiko lokalean bertan. 17:00etan da lehen deialdia eta bigarrena, berriz, 18:00etan. Urteko gestioaren laburpena, txosten ekonomikoa aurkeztu eta onartzea eta Udalarari aurkeztutako 2016ko ekintzen txostena onartzea izango dira gai nagusiak.

Hurrengo domeka azokarako izen ematea, 13ra arte

Otsailaren 19an egingo dute elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzea helburu duen domeka azoka. 11:00etatik 14:30era izango da eta lehentasuna izango dute bigarren eskuko produktuak saltzen dituztenek eta herriko eta eskualdeko artisauak. Hilaren 13ra arte eman daiteke izena Udalaren webgunean.

Hilaren 18rako eski irteera antolatu du Xabalote gaztelekuak

Gaztelekuak Valdezcarayra joango dira (Errioxa) otsailaren 18an. Izena emateko azken eguna otsailaren 12a izango da -gaztelekuan edo Jardunen bulegoan-. 07:00etan irtengo dira autobus geltokitik eta 20:30ean bueltan izango dira. Prezioak 24 eta 42 euro artekoak izango dira, alokatu beharreko materialaren arabera.

1973an jaiotakoek kintada ospatuko dute otsailaren 18an

11:30ean hasita, nahi duenak Bergaran bisita gidatua egiteko aukera izango du (5 euro). Ondoren, 13:00etatik aurrera potean ibiliko dira Irala kalean, eta 14:15ean autobusez igoko dira Tartufo jatetxera. Arratsaldean DJa izango dute eta buelta 20:00etan izango da. Izen ematea, Bulen, Agorrosinen eta Tartufon.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

"Bergarako hiru pasarte agertzen dira filmetan"

ARGIBEL EUBA ANTROPOLOGOA ETA 'BASKER' IKERKETA LANAREN EGILEA

Eguaztenean Zabalotegin emango dituzte Suediako SVT telebistak 60ko hamarkadan Euskal Herriko hainbat lekutan grabatutakoekin egindako dokumental etnografikoak

Julen Iriondo BERGARA

Argibel Eubak (Galdakao, 1979), kasualitatez, garaiko egunkarietan irakurrita izan zuen Suediako SVT telebistak 1963an Euskal Herrian egindako grabaketan berri. Hari horri tiraka topatu zituen, 2009an, *Basker* –Euskaldunak, 24 minutuko– eta *Bondei i Baskerland* –Nekazaria euskaldunen herrian, 17 minutuko– izeneko dokumentalak, garaiko euskaldunen kulturaren eta bizimoduaren berri ematen dutenak. "Balio handikoak" zirela irizita, lan haien, egileen eta dokumentaletan agertzen denaren eta direnen gaineko ikerketa abiatu zuen, eta berriki plazaratu du EHUren Mikel Laboa Katedraren bekari esker egindako lana, DVD –jatorrizko dokumentalak, azpitoluekin– eta liburu eran.

Zertan datza lan horien balioa?

Egileak zentratu ziren, batez ere, Euskal Herriko kultura tradizionalan: musikan, dantzan, herri kirolean, folkloean, eta, baita ere, nekazarien edo landatar munduan. Ez da hiririk agertzen, mundu industrial edo garai hartarako indartsu zegoen hiritar kultura modernoa ere ez dira agertzen...



Argibel Euba. ARGIBEL EUBA

... trailerrean, dena den, lantegiren bateko irudiak agertzen dira.

Bai, eta hori aztertu dut lanean. Ze, beraiek ez dituzte gauza horiek ezkututzen, baina ez dituzte erakusten ezaugarri nagusi bezala. Suediatik etorruta, eta hain herrialde aurreratua izanda Suedia, pentsatzen dut kontsideratuko zutela benetan interesgarria zela, gure herrian, nahiz eta kultura industria hori izan eta hiritar kultura hori eta bizi maila nahikoa altua izan, jendeak eusten ziela bizimodu zehatz eta tradizio batzuei.

Eta Bergarak protagonismo agerikoa du filmetan.

Bai, hiru pasarte agertzen dira bi pelikuletan banatuta. *Basker* izenekoan, pelikulako bigarren eszena eskupilotari buruzkoa da, eta eszena garatzen da, batez ere, Bergarako pilotaleku zaharrean. 1963ko otsailaren 5ean filmatutako partidua da, San Martin Agirrerren kanonizazioaren mendeurreneko ospakizunetan. Pelikula berean, aurrerago, agertzen da bertso saio bat Umore Ona elkartearen. Eta saio horretan agertzen dira Jesus Alberdi *Egileor*, Bergarako bertsolaria, eta Jose Mari

Gabilondo, Antzuolako. Da saio informal bat, dena gizonezkoen artean, ardo botila batzuen inguruan, eta bertso nahikoa dibertigarriak kantatzen dituzte puntuka. Eta, azkenik, eszenarik luzeena eta, esan daiteke, esanguratsuen, Bergarari dagokionez, da bigarren pelikula ixten duena, Itxasmendi baserrikoa; bertan bizi zen Garitano-Irazabal familia, eta suediarrek joan ziren hara pare bat egunetan filmaketak egitera. Irudi pila bat filmatu zituzten, baina pelikulan agertzen direnak dira, batez ere, etxe barruko irudiak: sartu ziren sukalderraino eta filmatu zituzten etxeakoak bazkaltzen, etxe lanetan... irudi nahikoa bitxia da eta nahikoa polita, familiara bitzita agertzen duelako modu nahikoa hurbilean.

Nolakoa izango da eguazteneko saioa?

Aurkezpen orokor bat egingo dugu proiektuari buruz, testuinguruan kokatuko ditugu pelikulak; gero pelikulak osorik ikusiko ditugu, eta ondoren zentratuko gara Bergarako eszenetan, geldoago ikusiz eta komentatuz.

Udaberri txapelketa gaur eta lau t'erdikoa martitzenean

Pilota partidu bakarra jokatu da asteburuan Udal Pilotalekuan. Udaberri Txapelketaren barruan, nagusien bigarren mailan, Belokiko pilotarien kontra jokatu duite Bergarako Jon Perezek eta Harri Oterminek. 19:30ean hasiko da.

Martitzenean, berriz, Soraluze txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da, lau t'erdian.

Oskar Lerena eta Josu Zezeaga izango dira aurrez aurre promes mailan, eta Eneko Labaka eta Iraitz Zubizarreta nagusietan. 19:30ean hasita, beraz, txapelketako etxeko ordezkaria, Zezeaga, lehian ikusteko aukera, besteak beste.

Bailarako beste ordezkariak, Ander Murua arrasatearrak, galdu egin zuen lehen jardunaldian 22-17 Arangurenaren kontra. Hori promesetan; nagusietan, berriz, Peru Labakak 22-20 irabazi zion Pradori.

Obraren lehen fasea egitea onartu dute Pol-Poleko bazkideek

Astelehenean egin zuen Pol-Polek batzar orokorra, eta bertan erabaki zuten San Pedroko lokaleko obraren lehen fasea bakarrik onartzea; lehen fasea egin bai edo ez galdetuta –fatxada, egitura eta bulegoak, 48.824,87 euroko aurrekontua–, 50 bazkideetatik bost bakarrik agertu ziren aurka. Obra osoa egin bai edo ez galdetu zuten gero

–97.706,17 euro–, eta hor emaitza bestelakoa izan zen: 23 alde eta 27 kontra. Hau horrela, Pol-Poleko presidente Bittor Alberdik atzera egin du berriz ere kargurako aurkeztuko denaren baieztapenean –asmo hori agertu zion Goienari duela bi aste–. Kontua da zuzendaritza aukeratu behar dela berriz –astelehenean ireki zen hautagaitzak aurkezteko hamabost eguneko epea–, baina lokaleko obra osoa aurrera ez badoa Alberdik bere burua hor ez duela ikusten adierazi du.

'Mugibili' plataforma aurkeztuko dute otsailaren 15ean

"Sinergiak eta aliantzak ezartzeko eginahalean, gizarte aktiboagoa sortzeko asmoz", Eusko Jaurlaritzak *Mugiment* plana bultzatzen ari da. Planaren barruan, *Mugibili* webgunea dago, jarduera fisikoen bilatzailea, kirol antolatzaileek beraien eskaintzaren berri emateko komunikazio tresna: "On line jarri

genuenetik, 350 erakunde 12.000 mugitzeko aukera argitaratu eta 5 miloi inprimatze lortu dituzte Interneten". *Mugibili*-k bere ahalmen osoa garatzeko eragileen beharra duela eta, otsailean egingo duten aurkezpen sortaren barruan, Bergaran egingo dute bat hilaren 15ean, 19:00etan Agorrosinen. Kirol jarduerak kudeatzen edota ezagutarazi nahi dituen edozein erakunderentzat da deia. Parte hartzeko, izena eman behar da.

Mutilen eskubaloi taldea, Urnietaren kontra domekan

Urniet hartuko du Soraluze BKEk domekan, 13:00etan, Labegarietan. Saikapenaren bigarren erdian daude bergararrak, bost garaipen eta zortzi porrotekin; urnietarra, berriz, aurrealdeko taldea da, hirugarrena, hemezortzi punturekin. Aurreko jardunaldian etxean irabaztetik datoz; BKE, berriz, Legazpiren kontra 21-30 galtzetik.

Alai taldearen irteera eta Txistulari Bandaren kalejira

Bihar, Santa Ageda bezpera, Alai taldearen irteera izango da. 18:00etan San Martin plazatik irten eta ibilbide hau egingo dute: Bidekurutzeta, San Pedro kalea, erresidentzia, Goenkalea, Arruriaga, Simon Arrieta plaza, Fraiskozuri, Juan 23 plaza, Barrrenkalea eta San Martin plaza. Domekan, Txistulari Bandak kalejira egingo du, 11:00etan.



DVDaren azala. EHU



BERGARAKO OSOKO BILKURA

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, OTSAILAK 3, 22:00ETAN

goiena[“]
ZU HEMEN ZAUDE

Antzuola 2030, "denon artean"

21.000 euro bideratuko ditu Udal Gobernuak Antzuola 2030 Plan Estrategikoa egiteko. Horretarako, aurten, herritarrei nolako Antzuola gura duten galdetuko diete. Helburua sentsibilitate guztiak jasotzen dituen Plan Estrategikoa egitea da

Maidar Arregi ANTZUOLA

2017rako aurrekontua onartu du Antzuolako Udal Gobernuak: 2.686.000 euro –iazkoa 2.629.000 euro izan zen–. Inbertsioetarako 4.000 euro gehiago izango dira aurten: 252.000 euro.

Aurrekontuaren zati handia, berriz, pertsonal gastuek eraman dutela dio Udal Gobernuak: 780.103 euro.

Plan Estrategikoa

21.000 euro bideratuko dira Antzuola 2030 Plan Estrategikoa egiteko. Helburua, baina, ahalik eta sentsibilitate gehien jasoko dituen Plan Estrategikoa egitea da. Horretarako, sei hilabete iraungo duen galdeketa eta parte hartze prozesua zabalduko dute herritarren hitza jasotzeko –4.000 euro–. "Asmoa da Udalera iritsiko diren taldeek egin beharrekoaren zati bat egitea. Denon artean, herritarrekin egin gura

dugu, gainera", dio Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Baserrietara ura

Ekonomikoki egingo den inbertsio nagusia Bergara aldeko auzoetako baserrietara –Galartza auzoraino– ura eramateko lanak bukatzea da. Hala, aurten 120.000 euro bideratuko dituzte lan horiek egiteko. "Aurten, Ur Kontorzioak 80.000 euroko laguntza jarriko du; Udalak 40.000 bideratuko ditu lan horiei bukaera eta errematea emateko".

Esan behar da baserrien seinalizazioa egingo dela, eta sasiak garbitzeko lanak.

Bestelako inbertsioak

Oinezkoen Plana indartzeko, Kalebarrengo seinaleetan kamerak jarriko dituzte –17.500 euro–. Udalaren asmoa da aurten komun publikoak jartzea –52.000 euro–, baina, oraindik, tokia

zehazteke dago. Bestalde, Auzoko ekimenera aurten 5.400 euro bideratuko dituzte eta Narruola berriro diseinatzeko, berriz, 2.000.

Alardearen gaineko ikerketa egingo dute. Hala, zer den egia eta zer den gezurra aztertze beka bat hartuko du bere gain Eusko Ikaskuntzak.

Gazteria Plana egingo dute, 14-18 urte arteko gaztetxoan aisialdi aukerak aztertze.

Obra txikiak egingo dituzte. Besteak beste, Errekalde auzoko baranda konpondu, Beheko auzoko garajeetako lanak egin eta erretiratuendako ibilbide osungarria osatu–arriketak egiteko karteekin eta gomendioekin–.

Herriko garbiketa zerbitzua indartu egin gura du Udal Gobernuak. Hala, garbitzaile postua aterako dute. "Garbitzaile bat egun osora eta beste bat erdira ariko dira lanak egiten", argitu du alkateak.

"Antzuolaren gaineko erabakiak hartzeko bilduko gara herritarrekin"

BEÑARDO KORTABARRIA ALKATEA

Auzolanaren garrantzia eta herritarren parte hartzea azpimarratu gura ditu Udal Gobernuak, besteak beste. Lehen sektorea indartzen jarraituko dutela kontatu du alkateak.

Zeintzuk dira aurrekontuen lehentasunak?

Herritarrek izan ditzaketen beharrak asetzea. Zerbitzuak hobetu nahi ditugu, okerren egon daitekeen jendearen egoera aztertu eta laguntza zuzenak emateko bideak bilatu. Jarraituko dugu lehen sektorea ahal den neurrian indartzen, eta kirolean, aisialdian,

kulturan, auzolanean zein ospakizunetan aukera berriak landuko ditugu. Antzuolaren gaineko erabakiak hartzeko bilduko gara herritarrekin.

Badirudi egon dela hartu-emanaren oposizioarekin.

Horrela esanda, badirudi lehen ez geneukala hartu-emanik, eta hori ere ez da horrela.

Agintaldiaren hasieran Udal Gobernuan sartzeko gonbidapena egin genion EAJri,



MAIDER ARREGI

eta ezezkoa eman zigun. Kontuan hartuta gehiengo osoa dugula, eskuzabalagoa izaterik ez dago. Hori eskaini, eta gero entzun behar izateak "ez gaituzue kontuan hartu" moduko esaldiak...

Aurten ere denboraz bidali genien aurrekontu-zirriborroa oposizioa bi taldeei, aztertze eta hitz egiteko

gonbidapenarekin. EAJk erantzun egin zion gonbidapenari eta elkartu egin ginen; baina PSE-EEK, tematu egin ginen arren, ez zigen erantzun. Azkenean, EAJrekin hitz eginda, euren proposamenetako batzuk sartu ditugu aurrekontuan.

Aurrekontuen inguruan zer azpimarratu gurako zenuke?

Batetik, auzolana. Aurrekontuetan, Auzolana izeneko diru-partida sortu dugu. Txikia da, baina kontzeptua ofizialki agertzea aipagarria iruditzen zaigu. Auzolana aurrekoengandik jaso dugun kulturaren parte da eta gauzak denon artean errazago egiten direla adierazten du. EH Bilduk herri honentzat duen proiektuaren oinarria da hori. Eta horrekin lotuta, parte hartzea. Asko hitz egiten da eta gutxi praktikatzen da, ez delako erraza. 2017a Antzuolarentzat garrantzitsua izango da, etorkizunera begira jarri eta *Nolako Antzuola nahi dugu?* galderari erantzuten saiatuko garelako. Herritarren partaidetza prozesu bat egingo dugu etorkizunean nolako Antzuola gura dugun erabakitze.

Bi sarrera irisgarri bilakatuko dituzte



Pilotalekuko ate txikia. MAIDER ARREGI

Ate txikia Pilotalekuko ate txikiko sarrera egokitu egingo dute. Hau da, atea zabaltzeaz bat dagoen koska kendu, eta arrapala baten bidez sarrera irisgarria izan dadin egokituko egingo dute.



Udal gimnasioko sarrera. MAIDER ARREGI

Arrapala sarreran Udal gimnasioko sarrera ere egokitu egin gura dute, irisgarriagoa izan dadin. Orain, eskailerak soilik daude, eta, irisgarriago egiteko, arrapala jarriko dute.

Gastuen 2017rako aurrekontua

| Saila | Gastua |
|-------------------------------|------------------|
| Idazkaritza, Kontu hartzea | 1.410,112 |
| Kirola, Kultura, Hezkuntza | 148.787 |
| Gizarte Zerbitzuak | 385,200 |
| Hirigintza eta Zerbitzuak | 609.885 |
| Euskara, Liburutegia, Gazteak | 79.516 |
| Alkatetza, Gobernu Organoak | 52.500 |
| Guztira | 2.686.000 |

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA

BALORAZIOA

BASILIO ORMAZABAL EAJ

"Ez gaude aurka, baina bai kritiko"

Positiboki baloratzen ditugu egin diren urrats batzuk; izan ere, aukera txiki bat izan dugu aurrekontuak negoziatzeko. Era horretan, onartuak izan dira hainbat partida: baserrietarako urei bultzada sendoa ematekoa eta Narruolako proiektua berriro diseinatzeko beste partida txiki bat. Ondo iruditzen zaigu herri garbi baten alde sentsibilizazioa jorratzeko diru partida.

Onartzen dugu gerora egin beharreko Hiri Ordenantza plana egin ahal izateko aurrez egin behar den Ingurumen Plana bideratzeko partida garrantzitsua.

Ez gaude ados, ordea, zirkulazioa kontrolatzeko herri barruan kamerak jartzearekin eta horretarako 17.500 euro bideratzeaz. Ez zaigu ondo iruditzen, oraindik orain, mugikortasun plana jarri berri denean.

Antzuolako Plan Estrategikoa egiteko 21.000 euro gastatzea ere larregi dela iruditzen zaigu. Izan ere, lanketa hori merkeago egin daiteke, baldin eta Udala osatzen dugun zinegotzi zein teknikariek plan horri ekiten badiogu. Horretarako beharrezkoa ikusten dugu barne komisioren funtzionamendua maiztasun handiagoarekin egitea.

Beraz, ez gara aurrekontuen aurka azalduko, baina kritiko izango gara orain arteko funtzionatzeko moduarekin. Eztabaidarako tarte gutxi ematen du eta. Hori horrela izanik, espero dugu legegaldi honetan geratzen diren urteetan elkarrekin egindako eta konpartitutako aurrekontuak aurkeztea. Hori litzateke gure gogoia; EH Bilduren jarreraren baitan geratzen da.



Basilio Ormazabal. M.A.

BALORAZIOA

MIREN ARRATE GALLASTEGI PSE-EE

"Gizarte ekintzarako gastu gutxi"

"Aurkako botoa eman dugu, herriko gizarte eskaerei ez dielako erantzuten. Ez die herritarren beharrei erantzuten, ezta etorkizuneko erronkei ere. Gizarte ekintzarako gastua jaitsi egin da; oinarritzko zerbitzu publikoak blindatzea eskatzen dugu. Udala herritarren zerbitzura egon behar da eta Antzuolan denek izan behar dituzte oinarritzko beharrak estalita. Gure lehentasuna hori da. Bestetik, ez gaude ados etakideen familiendako laguntzak gizarte laguntzako diru partidetatik irteteaz. Modu horretan, kideren bat langabezia duten familiendako edo bazterkeria egoeran daudenendako diru gutxiago baitago. Emakumeei bideratutako diru partida bat ere faltan sumatu dugu. Bukatzeko, Eudelen aldeko aldarria egiten dugu. Ez dugu ulertzen Udalbiltzara bideratutako diru partida. Alde bakarreko erabakia da eta ez dio mesederik egiten Antzuolari".



Miren Arrate Gallastegi. M.A.

Herritarrek animatu gura dituzte odola ematera

Gipuzkoako odol bankuko autobusa urteko lehen odol ateratzea egitera etorri da Antzuolara. Aurrerantzean, eguaztenetan egingo dituzte ateratzeak, Olaranen, 17:30ean. Hurrengo maiatzean egingo dute, eta herritarrei dei egin gura diete

M.A. ANTZUOLA

Duela 45 urte hasi ziren lehen odol ateratzeak egiten Antzuolan. Eta orduan hasi eta gaur egunera arte, hutsik egin gabe, hiru antzuolarrek ehun aldiz baino gehiagotan eman dute: Luis Mari Jauregik, Pablo Hermandok eta Begoña Letek.

Jose Angel Arbulu odol emaitelen elkarteko kide antzuolarrek odola ematearen garrantzia azaldu du: "Ebakuntzarako odol

asko erabiltzen da; ez da soilik ezbehar handiak gertatzen direnean behar. Egunero-egunero behar da odola; batez ere, transfusioetarako".

Odola emateko, baina, 18 eta 70 urte bitartean izatea, gutxienez 50 kilo edukitzea eta osasuntsu egotea beharrezkoak direla gaineratu du.

Gipuzkoako odol bankuko autobusa maiatzean etorriko da berriro.

40 urtean odola eman dutenak**BEGOÑA LETE**
ODOL-EMAILEA

"40 urtean eman dut odola Antzuolan; ahal izan dudan guztietan. 104 bider eman dut dagoeneko".

**PABLO HERNANDO**
ODOL-EMAILEA

"Oso garrantzitsua da odola ematea; beharra daukan jendea badago eta. Nik 103 bider eman dut odola".



Urtarrileko lehen odol ateratzea, Olaran etxean. MAIDER ARREGI

%65ek darabilte euskara kalean

Antzuolan euskararen erabilera neurtu dute eta ondorioztatu dute erabilera orokorrean ez dela jaitsi —%65ekoa da—. Baina bai haurren eta gazteen erabilera. Izan ere, Udalak normalizat hartu du datua, herrian elebaker asko dagoelako. Baina kezkatuta daude gazteengan eta haurren izan den jaitsierarekin, eta iaiztik hona lanean dihardutela diote.



AMAIA TXINTXURRETA

'Emakumea lanean' erakusketa antolatu du Gizarte Zerbitzuak

Martxoaren 8aren bueltan, Antzuolako emakumea lanean gaia oinarri hartuta, erakusketa antolatuko du Gizarte Zerbitzuak. Gaia: Antzuolako emakumea lanean, etxean edo eta kanpoan. Emakumea lanean jasotzen duen edozein argazkik balio du. Egungoak edo lehengoak, kanpoan edo etxean. Otsailaren 15era arte eraman daitezke udaletxera.

Erraustegia berriz ere desadostasun iturri

Proiektuaren finantzazioarekin lotuta EH Bilduk aurkeztutako mozioa eztabaidagai izan zen martitzeneko osoko bilkuran. Bestelako gaien artean, aho batez onartu du udalbatzak Herrixa Dantzan ekimena diruz laguntzen jarraitzea

Larraitz Zeberio ELGETA

Eztabaida piztu zuen martitzeneko osoko bilkuran Zubietako erraustegiaren inguruan Elgetako EH Bilduk aurkeztutako mozioak. Idatziak eskatzen zuen Elgetako Udalak finantzaketa horren inguruko hainbat galdera luzatzea erraustegiaren bultzatzaile nagusia den Gipuzkoako Foru Aldundiari. Oposizioak ekimenaren kontra bozkatu zuen. "Mozio honi ez diot helbururik ikusten, ez bada prozesu bat paralizatzea", esan zuen Gu Geu Elgeta plataformako ordezkari Mikel Larreak. "Ez dakit udal honek zergatik jartzen duen interes hori Foru Aldundiari galdera horiek egiteko, bertako batzarretan ordezkari bat dagoenean. Nire ustez, han bertan saiaturik ziren horiek erantzuten". Iraitz Lazkanok alkateak erantzun zion Elgetako Udalak ordezkari bat duen erakundeetan egin dituela galdera horiek edo oso antzerakoak, eta ez duela inork erantzuten asmatu. Gu Geu Elgetako ordezkari Eduardo Zubiaurrek ere hartu zuen hitza: "Nik uste dut proiektu ekonomikoa landuta eta azaldu ta dagoela. Behin eta berriro esan da zaborrekin ordaindu beharreko fakturretan sartuko dela... Ez dakit zein zaltza dagoen!". Iraitz Lazkanok erantzunik jaso gabeko hainbat galdera bota zituen: "35 urteko zor hori sortzen dugun errefusaren arabera ordainduko dugu elgetarrok ala biztanle kopuruaren arabera? Udalak ordainduko du zuzenean ala Foru Fondotik kenduko digute?".

Eztabaidak eztabaida, mozioak aurrera egin zuen, EH Bilduko bost zinegotzien babesarekin. Gu Geu Elgetako hiru ordezkariak kontra bozkatu zuten.

Herrixa Dantzan

Osoko bilkuran aztertutako gainerako gaiak dagokienez, udal-



Elgetako udalbatza, martitzeneko osoko bilkuran. L.Z.

batzak aho batez onartu zuen Elgetako Udalak Herrixa Dantzan ekimenarekin duen elkarlanerako hitzarmena berritzea. Kultura zinegotzi Janire Lazkanok azaldu zuenez, 2017an zortzi saio babesteko konpromisoa hartu du Udalak. "Egoera ekonomikoa zein den ikusita, ordea, bi mila eurora murriztu dugu diru laguntza", azaldu zuen. Ekimenaren xedea zaltzan ipini barik, oposizioak kezka agertu zuen forma arrazoiengatik. Esleipendun kontratu zerbitzu bat egitea egokiago ikusiko lukete. "Zalantza pila dauzkat, nik, forma aldetik", adierazi zuen Gu Geu Elgetako Mikel Larreak. "Ez dakit pertsona fisiko batekin egin beharrekoa hitzarmen bat den edo egokiagoa litzatekeen zerbitzu eskaera bat egitea. Diru laguntza bat pertsona fisiko bati ematea zaltzazkoa egiten zait", azaldu zuen.

Kultura zinegotzi Janire Lazkanok adierazi zuen idazkariarekin aztertuko dutela gaia. Udalbatzak aho batez hartu zuen hitzarmena berritzeko erabakia. Lazkanok eskerrak eman zizkion Herrixa Dantzan saioretako gidari Patxi Monterori urteetan

ekimenarekiko erakutsitako arduragatik eta aurten Udalak aurkeztutako diru laguntza murrizketa onartu izanagatik.

Elgetako Udalak, azkenik, administrazio-izapideen eskuliburu egiteko konpromisoa hartu du. Bederatzi hilabeteko programa da eta 500 euroko inbertsioa ekarriko du. "Izango litzateke udaletxean egin daitezkeen tramite guztiak banan-banan zerrendatzea eta guztiak liburuxka batean biltzea izapide horiek zein bide egiten duten jasotzeko. Non egin daitezkeen, zein ordutan, posta elektronikoz edo faxez egin daitezkeen...", azaldu zuen alkateak.

Oposizioak galdetu zuen benetan eraginkorra izateko ekimenak ez ote duen bestelako inbertsiorik eskatuko: sistema informatikoetan edo pertsonalaren formazioan. Alkateak esan zuen baliabide aldetik ezetz; bai, akaso, pertsonalaren formazioa.

Arrain saltzailea martitzenetan

Bilkura hasi aurretik, alkateak jakinarazi zuen hurrengo asteetik aurrera arrain saltzaile ibiltari bat izango dela Elgetako plazan martitzen goizetan.



Andoaingo piano jaialdian izango diren zazpi elgetarrak musika gelan. L.Z.

Elgetatik Andoaingo piano jaialdira onena ematera

Herriko zazpi piano ikasle aurkeztuko dira, aurten, jaialdira. Ondo prestatuta daudela esan du irakasleak

L.Z. ELGETA

Zazpi elgetar izango dira, aurten, Andoaingo piano jaialdian. Lau lagunek bihar, zapatua, hartuko dute parte. Maia Erostarbek eta Ehari Barquerok goizean joko dute pianoa, eta lau eskutara egiteko pieza bat prestatu dute. Lehenengo aldia izango dute Andoaingo jaialdian eta txukun egin nahi dituzte gauzak. Arratsaldean joko dute *La Cucaracha* Jokin Zeziagak eta Nerea Canelok, horiek ere lau eskutara. Eskarmentu handiagoa dute Zeziagak eta Canelok antzerako egoeretan, eta lasaia daude.

Bakarka joko dute pianoa, domekan, Amets Olasolok, Kattalin Otxoak eta Lorea Gallasategik. "Urtero izaten da Elgetako ordezkari bat Andoaingo piano jaialdian", azaltzen du Lorea Larrañaga irakasleak. "Ez ditut ikasleak behartzen, nahi duenak hartzen du parte jaialdian, eta, gehienetan, pozik itzultzen dira. Esperientzia interesagarria da pianoa, gehienetan, bakarka jotzen dugulako. Besteek zer egiten duten eta zein maila duten ikustea beti da ona, nire ustez. Jendaurrean jotzea ere bai, noski".



URKO ARISTI

Mintzalagunak batetik bestera

Euskararen Ginkanaren finalean izan zen, zapatuan, Elgetako mintzalagun talde bat. Lizarrara joan zen 3.000 euroko zakua, baina, elgetarren esanetan, esperientzia oso polita izan da. Mintzalagunek otsailaren 12rako antolatu dute hurrengo irteera. Euskal mitologiaren inguruko bisita gidatua egingo dute Aramaion Debagoieneko gainerako mintzalagunekin batera.

Faxismoaren biktimekiko sentsibiltate berezia

Elgoibarko hilerriko Duintasunaren Kolunbarioan lurperatu dituzte herrian aurkitutako bederatzi gorpuzki eta barikuan holokaustoaren bi biktime elgetar omendu zituen Udalak. Testigantzen bulegora, berriz, iritsi dira lehenengo lekukotasunak

Larraitz Zeberio ELGETA

Bat baino gehiago izan dira azken egunotan faxismoaren biktime oroimenez egindako ekitaldiak. Astelehenean udal ordezkari zabala izan zen Elgoibarko Olaso hilerrian egindako ekitaldian. 36ko gerrako biktimei eskainitako Duintasunaren Kolunbarioan, Elgetan aurkitutako bederatzi gorpuzki lurperatu zituzten, besteak beste –ikus 6. orria–.

Hiru egun lehenago, Tomas Reboloren eta Pascual Askasibarren omenezko ekitaldia egin zuen Elgetako Udalak Mendizaleen plazan. "Holokaustoaren gaineko testigantza horiek ere Udalak aurkeztuko duen kereilan jasotzea da asmoa", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak. "Nire ustez, jendea oraintxe hasi da konturatzeko berba egin beharra dagoela gertaera haien inguruan. Horrekin konturatzeko hasita, ohartzen gara geroz eta jende gutxiago dagoela berba



Iraitz Lazkano eta Julia Monge gorpuzkietako bat eramaten Elgoibarko ekitaldian. I.A.

egin dezakeena, baina bagoaz, poliki-poliki, lekukotasunak jasotzen".

Lekukotasunak udaletxean

Urtarrilaren 16an udaletxeak zabalduko testigantzen bulegoan hasi dira lehenengo lekukotasunak jasotzen. "Testigantza horiek garrantzitsuak dira memoria kolektiboa eraikitzeko

bidean", esan du alkateak. "Lekukotasun horiekin txosten judiziala osatuko dugu eta salaketa jarriko dugu krimen horien erantzuleak topatzeko". Udalak 1936tik 1978ra egindako edozein giza eskubideren urraketa gaineke dokumentazioa behar du kereilatzeke. "Denbora tarte oso zabala da eta krimen asko egin ziren tarte hartan".



Aurreakua, Askasibarren eta Reboloren omenezko oroitarrien aurrean. MIRARI ALTUBE



Tomas Reboloren semea eta bilobak omenaldi egunean, plazan. MIRARI ALTUBE

Holokaustoaren biktimak gogoan


Elgetako Udalak barikuan omendu zituen holokaustoaren bi biktime elgetar: Tomas Rebollo eta Pascual Askasibar. Lehenengoaren semea eta bi biloba bertan izan ziren. "Nire eskerrik beroenak ahaztutako pertsonen alde eginen ari zaren lanarengatik", esan zuen, hunkituta, Tomas Reboloren semeak.

'Da nola' diskoa aurkeztuko du Inun abeslariak bihar Spaloian

Otsaileko lehenengo kontzertua izango da, eta beste lau ere iragarri dituzte kafe antzokiko arduradunek

L.Z. ELGETA

Zornotzarra da Mikel Inunziaga *Inun*, eta zuzeneko emanaldia egingo du bihar, 19:30ean, Spaloian. *Da nola* diskoa aurkezteko dator. Bigarren lan horretan hainbat idazle euskaldunen bederatzi olerki eraman ditu pop musikara, eta Elgetan eskainiko ditu. *Berreginez* izeneko lehenengo diskoko abestiak ere joko ditu, ziurrenik. Sarrera doan da. Otsaileko lehenengo emanaldia izango da; izan ere, beste lau iragarri dituzte antzokiko arduradunek –ikus 41. orria–.



Mikel Inunziaga *Inun*. INUN

Bost neskatilak egingo dute ipuin kontalari saioa gaur

Helduendako, bestalde, kontalaritza tailerra antolatu du liburutegiak eta zabalik dago izena emateko epea

Goiena komunitatea

Liburutegia / ELGETA

Gu ere kontalari ekimenaren barruan, herriko 5 eta 8 urte bitarteko bost neskatilak egingo dute gaur ipuin kontalari saioa liburutegian. Maia Erostarbek, Alazne Lozanok, Uxue Martinek, Janire Lopezek eta Irargi Ortuzarrek kontatuko dituzte ipuinak, 17:00etan. Saioa euskaraz izango da eta irekia. Gogoratu interesa duen edonork kontatzea keela ipuinak liburutegian, eta urte osoan zehar dagoela zabalik izen-ematea.

Kontalaritza ikastaroa

Helduendako, berriz, kontalaritza tailerra antolatu dugu liburutegian. Bina orduko hiru saio izango dira otsailaren 15ean, 22an eta martxoaren 1ean. Ipuin kontalari Eneko Haritzak gidatuko du tailerra, eta saioak 18:30etik 20:30era izango dira.

Haritza 2011a ezkerrean dabil jenduraren ipuinak kontatzen. Istoriak kontatzeko trebetasuna lantzeko tailerrak ere egiten ditu. "Bizitzako alor eta une askotan lagun diezaguke istorioak kontatzen jakiteak", dio.

Opilak eskolan eta meza Arantzetako San Blas ermitan

Gaur, San Blas opilak egiten emango dute goiza Elgetako Herri Eskolan. Urteroko hitzordua da, eta aurten ere amantalak jantzi eta arrabolak eskuan opilak egiteko orea prestatuko dute ikasleek eta 5 urteko gelako neska-mutikoez egingo dute lan hori. Haur Hezkuntzako gainerrak umeendako ere prestatuko dituzte opilak. Eskola amaitutakoan etxera eramango dute orea labean sartu eta egosteko.

Arantzeta auzoko San Blas ermitan ere ospatuko dute, aurten, patriaren eguna. Urtero moduan, auzotarrek meza iragarri dute. Domekan izango da, 12:00etan.



Aridos Aloña enpresak harrobiaren azalera bikoiztu gura du, 52.300 metro koadrotik 100.000 metro koadrorara pasatuta. O.E.

Beste pauso bat harrobia handitzea galarazteko

Arau subsidiarioak aldatu ditu Oñatiko Udalak, aho batez, abelazkuntzako eta nekazaritzako lurzoru babestuan halako jarduerarik ez baimentzeko. Ingurumen babeserako arrazoiak argudiatu ditu sarri Udalak handitzearen kontra egoteko

Oihana Elortza OÑATI

Onartutako araua ez da propio horretarako egindakoa, hiri planeamenduko lehengo arau baten aldaketa baizik. "2006ko arau ordezkioak edo subsidiarioak dira Oñatiko hirigintza planeamendua arautzen dutenak eta urte hartan harrobi jarduera baimentzen zen. Orain egin duguna da arau horietako bat aldatu handitzea galarazteko", azaldu du Mikel Biain alkateak. "Horrela, Udalak hirigintza mailan bere esku duen instrumentu eraginkorrean, arau subsidiarioetan, aldaketa egin du oztopoa jartzeko harrobia handitzeari", jarraitu du.

Behin-behingo onartu dute araua, eta alegazio tartea zabaldu dute, baina egon daitezkeen lizentzia eskaerak bertan behera gelditzen dira eremu horretan.

Ingurumena

Urtarrileko osoko bilkuran aho batez hartutako erabaki horrek dio erauzketa jarduerak, harrobia, meategia edo antzerako jar-

duerak ez direla baimentzen abelazkuntza eta nekazaritza babestuko gune horretan. Egungo jarduera errespetatzen da, baina bere mugen barruan ez du uzten handitzea.

Handitzeko proiektuaren asmoa 2006a ezker dator: "Jakín dugu Jaurlaritzarekin tratua egon zela egun harrobia ustiatzen duen enpresarekin, eremu zati bat ez ustiatzearen ordeze beste zati bat ustiatzeko. Baina ez dago inon jasota. Duela hamar bat urte enpresak handitzeko proiektua aurkeztu zuen, egungoaren antzekoa. Kontrakotasunak egon ziren orduan ere, baina hantxe gelditu zen eta 2015eko martxoan berriz azaleratu zen", dio Mikel Biainek.

JAURLARITZAK EZ DU ORAINDIK ERANTZUNIK EMAN, EZTA INPAKTU TXOSTENARI ERE

Aridos Aloña enpresak handitzeko proiektua Jaurlaritzari aurkeztu zionean, inpaktu txostena eskatu zion enpresari, eta Oñatiko Udalarari iritzia. Ordutik hona, asmo horren kontrako mozioak, adierazpenak eta alegazioak jarri ditu Oñatiko Udalak, batez ere, ingurumen babeserako arrazoiak argudiatuta. Jaurlaritzarekin bilerak egin ditu, baina oraindik ez dute inolako erantzunik jaso.

Enpresak ingurumen-inpaktuari buruz egindako azterketaren ondorioak, bestalde, oso azalekoak dira, alkatearen esanetan. Azken erabakia Jaurlaritzako Industria Sailak du, baina, aurretik, txostenari erantzuna eman behar dio. "Uste dugu, benetan, Jaurlaritza gaiarekiko sentsiblea izango dela eta proiektuari ezezkia emango diola. Egia da Natura 200 eremuan egon daitekeela harrobi jarduera, baina oso behartua da hori. Ez dugu ikusten Arantzazun hori onartu daitekeenik", dio Mikel Biainek.

Gaur egingo dituzte plazako haritzaren mendeurren ekitaldiak

18:30ean kontzejupean elkartu eta Gernikako Arbolaren ondora joango dira; 100 kandela piztuko dituzte

O.E. OÑATI

Mendeurrena bete da aste honetan Gernikako Arbolaren kimu bat Oñatin landatu zutela, eta hori ospatuko dute gaur, egubakoitza. "Atzo, otsailak 2, bete ziren 100 urte landatu zutela, baina pentsatu dugu egubakoitza egun aproposagoa zela herritarrek batu eta ospakizuna egiteko, eta horregatik izango da gaur", azaldu du Mikel Biain alkateak.

Adierazpena

Biainen esanetan, ekitaldia "sinplea baina sinbolikoa" izango da. 18:30ean elkartuko dira kontzejupean eta haritzaren ondoraino joango dira gero. Udal Musika Bandak, txistulariek, abesbatzek eta dantzariak hartuko dute parte, besteak beste, ospakizun ekitaldian. "Zuhaitzaren ondora joan, kantuak

abestu eta 100 kandela piztuko ditugu, piztu eta itzali. Oroigarri bat ere jarriko dugu haritzaren ondoan", zehaztu du alkateak. Herritar guztiak daude gonbidatuta ekitaldira joateko. Joan den asteko osoko bilkuran ere deialdi egin zuten alkateak herritarrei udalbatza osoaren izean haritzaren mendeurreneko ospakizunean parte hartzeko.

Udalbatzak, gainera, urteurren horri lotutako adierazpen instituzionala adostu eta onartu zuen aho batez. Gogora ekarri zuten duela 100 urteko udalbatzak kimu hori landatzeko hartu zuen erabakia, eta haritz horrek duen esanahia ere jaso dute testuan. "Egun ezagutzen dugun abertzaletasunaren aurreko ikurra da, agintari askoren gaintik foruen errespetua irudikatzen duena", Biainek azaldu zuen moduan.

Aurtengo 85 kintoek kantuan egingo dute kaleetan domekan

1999an jaiotako 85 gaztetxo dira aurtengo kintoak eta domeka goizean kalez kale ibiliko dira Santa Agedako kantuak abestuz eta dirua batuz. Multzoan, gainera, soina eta panderoa jotzen duten asko daude, eta musikak lagunduta abestuko dute. 08:00etan elkartuko dira, Foruen plazan; hurrengo zapatuan auzoetara joango dira.

Santa Ageda kantuekin hasiko dute otsaila Pake Lekun

Pake Leku erretiratuen elkar-tekoek Santa Ageda bezperako kantuak abestuko dituzte zapatuan, kalean, Aloña abesbatzarekin batera. Horixe izango da otsailerako antolatutako lehen ekitaldia. Hilaren 12an antzerkia egingo dute eta 14an hitzaldia. Ostegun Gizen eguna eta Inauteriak ere ospatuko dituzte.

Zamalanetarako txartelak udaletxean har daitezke

Erdiguneko oinezkoen kaleetan bizi diren herritarrei, ordutegi barruan zamalanak egiteko, etxe atarira autoz sartzeko aukera eman zuten Udalak. Horretarako, autoaren matrikula jakinarazi behar izan zuten baimen txartela gertatzeko. Txartel horiek eskuragarri daude dagoeneko udaletxean. Goizetan egin ahal izango dira zamalanak.

Berezaorako bidean espaloia jartzeko eskatuko diote Udalarari

Berezaorako bidean espaloia jartzeko eskaera egin gura diote hango auzotarrek Oñatiko Udalarari, eta firmak batzen hasi dira eskaera babesteko. Martxoaren 3a arte bilduko dituzte sinadurak, eta herriko bi tokitan jarri dituzte orriak horretarako: Bizipoz Kafan eta Txantxiku Ikastolan.

Otsailaren 15erako utzi beharko dute egoitza

Udaberrian joatekoak zirela esan zen, baina, azkenean, otsailaren 15a baino lehen utzi beharko dute San Martin egoitza bertan dauden karitateko 11 ahizpek. 1964an iritsi ziren Oñatira eta gaixoen zaintzara bideratu dute euren bizitza

Miren Arregi OÑATI

Otsailaren 15erako utzi beharko dute karitateko mojek San Martin egoitza. Jakina zen aurtengo udaberrian utzi beharko zutela, 150 urte oñatiarren zerbitzura lan egin ostean. Baina berriki baieztatu ahal izan dietenaren arabera, 15 egunen buruan utzi beharko dute etxea: "Pentsatzen dut gehienak joan beharko direla hilaren 15a baino lehen, eta ni hemen geldituko naizela komunitatekoak direnak antolatzen joateko. Ordenagailuak, hainbat altzari... gureak dira eta horiek batzen eta antolatzen geldituko naizela pentsatzen dut", esan du Sor Mirarik, ama nagusiak.

Gutxi gorabeherako dataren jakitun badira ere, ez dakite non egin beharko duten hemendik aurrerako bizitza. "Oraindik ez dakigu nora joango garen. 11 gara eta, seguru asko, ez gara denok toki berera joango", adierazi du ama nagusiak. Gurako lukete, hori bai, Euskal Herrian gelditu ahal izatea. "Gu Donostiako Probintzialaren barruan gaude eta orain gure probintzian Leongoarekin elkartu da. Espainiako iparraldean edozein tokitara bidal gaitzakete".

Toki aldaketak euren gaitasunaren sentimenduen gainean galdetuta, adierazi du "endredo handia" dela, baina bereziki "pena handia" sentitzen dutela.

Mojak omentzeko liburua

Karitateko mojek 150 urtetan Oñatin egindako lanari nolabaitteko aitortza egiteko asmoarekin, liburu bat osatzen ari da Iñazio Irizar. Dagoeneko nahiko aurreratu du, eta apirilaren lehen zatua, egingo da horren aurkezpena, San Martin egoitzan bertan. Liburuan 250 argazki inguru jasoko ditu Irizarrek, horietako 40 bat herritarrek utzitakoak. Hain zuzen ere, otsailaren 10era arte jasoko ditu herritarrek argazkiak Irizarrek. "Ar-



Urtarrilean egoitza kanpoan ateratako argazkia –hiru ahizpa falta dira–. ROBERTO PLAZAOLA

OTSAILAREN 10ERA ARTE JASOKO DITU IÑAZIO IRIZARREK MOJEKIN LOTUTAKO ARGAZKIAK

gazki zaharrena 1920koa da, ospitaleko ikasleei ateratako argazki bat. Eta berriena bihar bertan aterako dugu, Remigio Biaini egoitzan egingo zaion omenaldian. Txukuna ateratzen bada, sartuko dut liburuan", adierazi du Irizarrek.

Omenaldia, apirilaren 2an

Liburuaren aurkezpenaren biharramunean, apirilaren 2an, hain zuzen ere, omenaldia egingo zaie karitateko mojei: "Gaur egun San Martin egoitzan dauden mojak egongo dira omenaldian eta iraganeko ama nagusiak ere etorririko dira", dio Irizarrek, omenaldiaz galdetuta. Goizeko hamarretan hasiko da ospakizuna, San Migel parrokiaren egoitza den mezarekin. "Mezan dantzariak eta bertsolariak ere hartuko dute parte eta ondoren kontzertua egingo da. Hor Oñatiko Banda

eta abesbatzak arituko dira; hala nola Oñati Abesbatza, Ganbara Abesbatza eta Musika Eskolako eta Txantxiku Ikastolako abesbatza". Omenaldia bukatzeko, 2016ko azaroan hil den Leonard Cohen musikariaren abesti ezaunetako bat abestuko dute Olaitturri Elkarteko kideek. *Aleluia* kantua, hain zuzen ere.

1864a ezker Oñatin

Karitateko ahizpen komunitatea 1864an iritsi zen Oñatira. Haur eta gaztetxoei eskolak emateaz gain, ospitale zaharreko ardura izan zuten, umezurtz eta babes bariko herritarrei laguntza eskainita. 1966an ospitale zaharra bota zuten, han institutua eraikitzeko. Gaur egun San Martin egoitza egin bitartean, karitateko mojak eta gaixoak Etxaluzen egon ziren, hamabi urtez. 1974az geroztik San Martin egoitzan bizi dira karitateko ahizpak, eta bertako egoitzaren ardura izan dute urte hauetan guztietan. 11 ahizpa bizi dira gaur egun komunitatean. Oñatiarren zerbitzura 150 urtez lan egin ostean, otsailaren 15a baino lehen utziko dute Oñati oraindik bertan dauden ahizpek.

Bi proiektu aurkeztu dituzte BiziPoz programako kideek

Denboraren bankua eta elkarri entzuteko tailerraren proiektua landu dituzte parte-hartzaileek

A.T OÑATI

Eman diote bukaera BiziPoz programaren bigarren aldiari. Oraingoan adimen emozionala eta osasun gaiak landu dituzte tailerretan, eta gero, parte-hartzaileek taldetan banatuta bi proiektu eraman dituzte aurrera: denboraren bankua eta elkarri entzuteko proiektua. 55 urtetik gorako pertsonendako da programa

Proiektuak

Aurrera eraman duten proiektu batean, denboraren bankua sus-

tatu nahi izan dute Oñatin. Bertan aztertu dute bakoitzak daukan denbora nola trukatu dezaketen beste pertsona batzuekin edota zein onura ekar ditzakeen herri batean horrelako iniziatiba bat aurrera eramateak.

Bestean, elkarri entzuteko tailerraren proiektua eraman dute aurrera. Gainera, proiektuarekin aurrera jarraituko dute eta tailerrak antolatu dituzte interesa duten edozein herritarrendako. Otsailaren 18an, zapatua, 18:00-20:00etara doan Eltzian egingo dute lehenengo saiora.



Parte-hartzaileak diplomak eskuetan dituztela. AMAIA TXINTXURRETA

Gurasoendako ur estimulazio ikastaroa, martxoaren 4an

Martxoaren 4an egingo da, Zubikoa kiroldegian, eta 0 eta 24 urte bitarteko umeen gurasoei dago zuzenduta. Ikastaroak "haur txikiak igeriketan murgiltzeko baliabideak eta ezagutzak" eskainiko ditu. Haurtxoaren prozesu psikomotorra nolako den, eta aurreneko bi urteetan honi etekina ateratzeko teknikak erakutsiko dira. Sekretu psikomotorrak ezagutu ondoren praktikatara joko da. Lara Martin izango da irakaslea.

Interesatuak izena eman beharko dute otsailaren 21a baino lehen. Abonatuak 8 euro ordainduko dituzte eta ez abonatuak 12. Ikastaroa 15:30ean hasi eta 19:00etan bukatuko da.

Jose Manuel Ruiz de Cenzano, berriz ere Federazioko presidente

Euskadiko Eskubaloi Federazioko presidente kargua hartu zuen Oñatin bizi den Jose Manuel Ruiz de Cenzanok 2013ko martxoaren 18an eta berriki berraukeratu izan da, aldeko 37 botoarekin. Beste hautagai Jose Angel Garciak 7 boto eskuratu ditu eta bik zuri bozkatu dute. Barakaldon jaiotako bazen ere, Oñatin daramatza Ruiz de Cenzanok ia 40 urte eta eskubaloiari lotuta egin du bizitza guztia. Eskubaloi jokalaria izan zen lehenik eta entrenatzaile ondoren. 2009an aurkeztu zen lehenengo Federazioko presidente kargura eta ez zuen lortu. 2013an aukeratu zuten eta orain, berraukeratu egin dute.



Eskubaloiko seniorren bi taldeak batera entrenatzen dira eta talde bakarra direla diote, nahiz eta bi ligatan jokatu. MIREIA BIKUÑA

Senior mailako bi taldeak, lider

Denboraldi bikaina egiten ari dira gizonezkoen senior mailako bi taldeak; Euskadiko Ligan, Izarraitz-Muñoz Aloña Mendik lehenengo postua sendotu du Pulpori irabazita eta 2. Lurraldeko Txapelketan, Muñoz-Izarraitz Aloña Mendik ez du partidurik galdu

Eneko Azurmendi OÑATI

Sasoi betean daude eskubaloiko senior mailako gizonezkoen bi taldeak. Goren-gorenean daude bai Izarraitz-Muñoz Aloña Mendi, baita Muñoz-Izarraitz Aloña Mendi ere.

Lehen taldea, Izarraitz-Muñoz Aloña Mendi, Euskadiko Senior Ligako liderra da, hamahiru partidua irabazita, bi berdinduta eta bakarra galduta. Bigarren sailkatua, Basauri Indupime, bi puntura dago.

Muñoz-Izarraitz Aloña Mendiri dagokionez, lehen sailkatua da Gipuzkoako 2. Lurraldeko Txapelketan, partidurik galdu gabe -hamaika partidua irabazita eta bakarra berdinduta-.

Bi liga ezberdinetan jokatzen badute ere, argi dute talde bakarra direla, eta behin eta berriz azpimarratzen dute horrek daukan garrantzia, bai kantxan,

baita kantxatik kanpo ere. "Hasieratik garbi izan dugu talde bat izan behar ginela, eta ez ditugu bi taldeak bereizten. Jokatzeko momentuan eta deialdia egiteko momentuan bakarrik bereizten dira bi taldeak; gai-

nontzekoa elkarrekin egiten dugu guztiok", azaldu du Aitor Aranburuk, lehen taldeko entrenatzaileak.

Bere garaian, senior mailan bi talde egon zirenean, "oso bereizita" egon ziren eta gauzak

ez ziren ondo irten, Aranbururen esanetan. "Orain, planteamendu berri honekin, ikusten da eraginkorra dela bi taldeek talde bakar moduan funtzionatzea", gaineratu du.

Igoera helburu

Biek ala biek mailaz igotzea dute helburu aurtengo denboraldian. Izarraitz-Muñoz Aloña Mendi iaz ere goiko postuetan ibili zen, baina ezin izan zuen igoera lortu. Aurten, gaur-gaurkoz daukan lehenengo postuari eusten badio, igoera fasea jokatzeke aukera izango du. Horretarako, hurrengo pausoa aste-buru honetan Ford Mugarriren aurkako derbia izango da, Arrasaten.

Muñoz-Izarraitz Aloña Mendiri dagokionez, helburu nagusia jokalarien prestakuntza da. "Lehen helburua, betiere, jokalarien formazioa da. Esperientzia hartu, lehiatu eta lehen taldean bajaren bat badago, jokatzeke moduan egon daitezen da gura duguna", azaldu du Francisco Benitok, bigarren taldeko entrenatzaileak. Helburu nagusia hori bada ere, taldea egiten ari den denboraldia ikusita, igoera ere helburu bilakatu da. "Ea igoera lortzen dugun. Hala, datorren denboraldian lehiakortasun handiagoa izango dute jokalariek, eta, formazio horri begira, pauso bat aurrera egin ahal izango dute Gipuzkoako I. Lurraldeko Txapelketan", dio Benitok.

Igoera hori lortzeko, nahikoa izango dute lehenengo bi postuetan sailkatzea, eta, orain artekoa ikusita, hiru talde egongo dira bi postu horiengatik borrokan, sei partiduren faltan. Aste-buru honetan, Egia Kata Taberna taldea hartuko du Benitoren taldeak, Zubikoan.

Neskak, atzetik aurrera

Emakumezkoen Euskadiko Senior Mailan, denboraldi hasiera txarrari buelta ematen ari da pixkanaka Iturritxo Taberna Aloña Mendi. "Gabonetatik bueltan, partidua irabazi dugu eta bi galdu, baina azkena Bera Beraren aurka izan da, gauza jakina zen. Gure aurkari zuzenari irabazi egin diogu, eta ea pixkanaka egoerari erabateko buelta ematen diogun", azaldu du Ixone Lizarra entrenatzaileak. Aste-buru honetan Elgoibar taldea hartuko dute, etxean.



M.B.

"Taldea bat gara, bi ligatan banatuta"

JOSU ARENAZA

ALOÑA MENDIKO ATEZAINA

Seniorretako bi taldeetan jokatzen dute jokalariek. Horietako bat da Josu Arenaza.

La asteburuko bi partidua jokatzen dituzue.

Bai, eta, batzuetan, egun berean eta elkarren segidan ere bai. Bost edo sei jokalariek gaude egoera honetan.

Gustura bai, baina nekatuta ere bukatuko duzue, ezta?

Gustura bai, eta, emaitzek laguntzen dutenean, are gusturago. Hala ere, denboraldia luzea da eta nekatuta amaitzen dugu. Baina guk nahi dugulako gaude egoera honetan.

Bi taldeak batera entrenatzen zarete. Zer iruditzen zaizue sistema hori jokalariei?

Hasieratik garbi genuen ez ginela bi talde, baizik eta bi ligatan banatuta jokatzen duen talde bakarra. Gainera, denbora laburra daramagunontzat oso lagungarria da nagusiagoen esperientzia, aurrera egiteko eta hobetzeko.

Alde handia dago liga batean zein bestean jokatzeke?

Bai, diferentzia handia da. Nazionaleko taldeen aurka jokatzen duzunean, asko nabaritzen da. Jokaldiak azkarragoak dira eta jaurtiketak ere bai, indartsuagoak eta hobeto botatakoak.

Bazkietze kanpaina, abian

Aloña Mendiko eskubaloiko sailak bazkietze kanpaina jarri du abian dagoeneko.

Adierazi dutenez, sailari bultzada ekonomikoa ematea da kanpaina horren helburua. Horretarako, urtean 15 euro jarri beharko ditu bazkide izan nahi duenak, eta, bazkide izanda, urtean zehar egingo diren hainbat zozketatan parte hartu ahal izango du.

Bazkide egiteko aukera hemendik aurrera zapatu arratsaldeetan Zubikoan jokatuko diren partiduetan egongo da.

Gaur egun, 400 bazkide gora ditu Aloña Mendiko eskubaloiko sailak. Jokalariek dagokionez ere osasuntsu dago. Kimuetatik aurrera hamalau talde daude eta gazteagoentzat eskola ere badago. Eskolan beste hiru talde daude.



Urko Arregi, Gontzal Belategi eta Ander Lizarralde *Pertzi*, diskoaren aurkezpenean, Antixena gaztetxean. IMANOL SORIANO

'Garbantzuak': pertzuak, urkoplak eta bertzalak

Ander Lizarralde, Urko Arregi eta Gontzal Belategi bertsolariak sortutako grabazioa da *Garbantzuak*; bertsoetan oinarrituta badago ere, ateraldiak eta koplak ere batzen ditu pasa den egubakoitzean Antixena gaztetxean aurkeztu zuten disko horrek

Eneko Azurmendi OÑATI

Orain dela zazpi urte, Ander Lizarralde *Pertzi* bertsolariak *Pertzuak* izeneko grabazio bat argitaratu zuen, hainbat bertso eta ateraldi batzen zituena.

Orain, orduko disko hari jarraipena eman nahi izan dio *Pertzi*-k, baina beste bi bertsolariarekin batera, Urko Arregi-ekin eta Gontzal Belategi-ekin. "Lehenik, haren antzeko proiektu bat egitea bururatu zitzaigun, baina ni bakarrik izan beharrean, hiru bertsolari. Beraz, data zehaztu genuen, eta data horretarako nork bere produkzioa egin zuen. Ondoren, guztiak batu eta disko baten sartu genituen", azaldu du *Pertzi*-k.

70 minutuko grabazioa da, hiru bertsolarien ekoizpenak batzen dituena. Esan bezala, Lizarralderen bertso eta ateraldiak *pertzuak* dira, Arregi-aren *urkoplak* eta Belategi-aren *bertzalak*. "Guztiok ez dugu bertso kantitate bera diskoan, ez da hain zehatza", dio *Pertzi*-k.

Oro har, kritika soziala egiten da, gai politikoak jorratzen dira, eta gogoeta filosofikoak eta gizakiari loturikoak ere batzen ditu grabazioak.

Pertzuak atalak hainbat kritika eta hausnarketa batzen ditu. "Gizakiaren kontrako bertso batzuk ditut, lanaren aurkako errezitaldi batzuk, gizakiak Whatsappi ematen dion erabilera ere kuestionatzen dut. Hori da, gutxi gorabehera, lantzen dudana", adierazi du *Pertzi*-k.

Urkoplak atalari dagokionez, hiru sorta ezberdinetan banatzen dira, Arregi-aren esanetan. "Batetik, normalean pentsatzen ez ditugun gauzak jorratzen ditut, modu ironikoan. Bestetik, autobusean gertatzen diren kontuez

70 MINUTUKO GRABAZIOA DA, HIRU BERTSOLARIEN EKOIZPENAK BATZEN DITUENA

dihardut, eta, azkenik, telebistan haurrek ikusten dituzten programen gainean ere hausnartu nahi izan dut".

Azkenik, *bertzalak* atalean, "probokatzailer" ibili dela aitortu du Belategi-ek. "Punken kontra egin dut, baita klase politikoaren kontra ere", dio.

Aurkezpena, Antixenean

Pasa den egubakoitzean aurkeztu zuten diskoa, Antixena gaztetxean. "Jende dezente batu zen eta animatuta egon ziren, gainera. Alde horretatik, gu ere oso gustura gelditu ginen", onartu du *Pertzi*-k.

Diskoan agertzen diren bertso eta ateraldietatik hautaketa bat egin, eta horiek errezitatu zituzten aurkezpenean. "Guztia errezitatzea oso luze joango zela iruditu zitzaigun; beraz, hautaketa bat egitea erabaki genuen. Gutxi gorabehera, erdi-edo errezitatu genuen".

Diskoa Arrano tabernan dago salgai, 3 euroren truke.



Herstura taldearen kontzertua Olakuako jaietan. IMANOL SORIANO

Herstura taldeak disko berria argitaratuko du: 'Metamorfobia'

Otsailaren 25ean izango da aurkezpena, gaztelekuan, Willis Drummond taldearekin joko duten kontzertuan

E.A. OÑATI

Herstura musika talde oñatiarrak hirugarren lana grabatu berri du, *Metamorfobia* izeneko, eta hilabete honetan aurkeztuko du. Hain zuzen ere, otsailaren 25ean Oñatiko gaztelekuan izango da disko berriaren aurkezpena, Willis Drummond talde ezagunarekin batera eskainiko duten kontzertuan.

Zazpi abestiz osatutako lana da *Metamorfobia*, lehengo musika estiloari eutsiz, Jagoba Martin Herstura taldeko kidearen esanetan. "Nahiko berdintsua da disko berria. Desberdintasun bakarra, agian, abesti luzexekoak direla, baina, bestela, oso antzerakoa da", adierazi du.

Andoingo Garate estudioan grabatu du diskoa talde oñatiarrak. "Grabatu, nahastu eta masterizatu astebetean egin dugu, guztia ondo joan da", azpimarratu du Martinek.

Hirugarren lana

Esan bezala, taldearen hirugarren lana da *Metamorfobia*. Izan ere, aurretik beste bi lan ere badituzte oñatiarrek. Batetik, *Herstura*, lehenengoa, sei abestiz osatutakoa. Eta, bestetik, *Annuis Coeptis*, lau abestiz osatutakoa.

Honako hauek osatzen dute taldea: Jagoba Martin gitarra eta ahotsak; Xabi Pico gitarra eta ahotsak; Unai Pata baxua eta ahotsak eta Mikel Marco bateria eta ahotsak.

Kontzertuan diskoa salgai

Otsailaren 25eko kontzertuan jarriko dute salgai diskoa. "Oraindik ez dugu erabaki ze prezioetan egongo den salgai, baina kontzertuan erosteko aukera egongo da. Gainera, herriko taberna batzuetan ere jarriko dugu ordutik aurrera", nabarmendu du Martinek.

Mus txapelketa eta musika, asteburuan Antixenean

Asteburu hau ere ekintzaz beteta dator Antixena gaztetxean. Gaur, egubakoitza, 22:00etan, Antixeneko I. Mus Txapelketa jokatu da. Izen-ematea doan izango da eta herritar oro daude parte hartzera gonbidatuta. Nahi duenarentzat, gaztetxean bertan afaltzeko aukera egongo da eta barra zerbitzua ere eskainiko dute.

Bestalde, punk, rock eta oi! doinuak izango dira nagusi otsailko lehen zapatuan Antixenean. Arrasatetik WC taldea etorriko da, aski ezagunak herrian zein gaztetxean. Eta Txipittuk eta Txuak Oñatiko ordezkariak beteko dute.

Nabarmentzekoa da Txua taldeak bigarren kontzertua eskainiko duela eta Oñatin joko duen lehenengoa.

Kontzertua bihar, zapatua, izango da, 22:00etan, Antixena gaztetxean.



Ezkerretik hasita Alejandro Altuna, Miren Josune Bikuña, Nere Arregi eta Oliver Hernandez. E.AZURMENDI

Federazioaren galan ibarrekoak protagonista

TRIATLOIA Nere Arregik, Miren Josune Bikuña, Mikel Ugartek, Alejandro Altunak eta Oliver Hernandezek saria jaso zuten domekan, Itziarren, 2016an duatloian eta triatloian egindako lanagatik. Taldeka, Antxintxika taldeak ere jaso zuen saria

X. Urzelai / E. Azurmendi ARRASATE Euskadiko Triatloi Federazioak 2016ko Euskal Herriko duatloi eta triatloi zirkuituetan onenak izan direnak saritu zituen joan den domekan, eta horien artean bost debagoiendar daude. Gainera, taldeka Euskadiko duatloi txapelketan egindako lanagatik Antxintxikak hirugarren saria jaso zuen. Bada, aste barruan

GOIENAK hitzordua egin du eurekin.

Sorpresa Nere Arregirendako

Nere Arregik sorpresaz hartu zuen Euskadiko duatloi txapelketaren saria, distantzia motzean: "Distantzia luzeak nituen buruan, eta motzak kalitatezko entrenamendu gisa hartu nituen. Bada, distantzia luzeko lehenen-

go lasterketa hasi eta bigarren kilometroan lesionatu egin nintzen; beraz, pentsa... Gainera, arauak aldatu egin dituzte, Arbuzuraino joan nintzen lehiatze- ra eguraldi oso txarrarekin, zirkuituan puntuak batzeko derrigorrezkoa zelakoan, eta han esan zidan epaile batek ez nuela zertan Nafarroara joan. Baina bai, lesionatuta nagoen

honetan, halako sariak poztasuna ematen dute".

Hernandez, Gasteizen bikain


Oliver Hernandez Euskadiko ironman distantziako txapelketan irabazlea izan da, ekainean Gasteizen egindako lan onari esker: "Sailkapen orokorrean zazpigarrena izan nintzen, eta bigarren euskalduna. Oso pozik geratu nintzen, nazioarteko jende oso ona zegoen-eta lasterketan; gutxira, 1.000 atleta inguru batu ginen. Gustura ibili nintzen, batez ere, igeriketako eta bizikletako tartetean. Maratoian krisialdia izan nuen, baina lasterketa erditik aurrera buelta eman nion gorputzari".

Hiru modalitatetan txukun

Hori da Alejandro Altunak –triatloiko beterano 2 mailan Euskadiko txapeldunorde– azpimarratzen duena: "Kirol honetan ez du balio gauza batean oso ona izateak. Igerian, bizikletan, korrika... Denean eman behar da neurria, eta hori ez da batere erraza. Bestalde, komeni da esprint lasterketetan hastea, motzak direlako; gero egongo da aukera luzeagoak egiteko.

Oñatin parte hartzea, zalantzan

Hain zuzen, hori da kirol honetan iaz hasi zen Miren Josune Bikuñari –duatloiko beterano mailan Euskadiko txapeldunorde– gertatzen zaiona, errespetua ematen diola Oñatin parte hartzeak: "Hasiberria izateko emaitza onak batu ditut, baina Oñatikoa distantzia olinpiarra da, eta gainera, ni oñatiarra izanda... presio larregi izango da", dio, barrez. Martxoaren 19an izango da Oñatikoa lasterketa, baina martxoaren 11ra aldatzeko aukera dute oraindik.



Eskibel, oñatiarrez inguratuta. I.S.

Ford Mugarri eta Izarraitz Muñoz, rola aldatuta

ESKUBALOIA Domekan bi talde horiek derbia jokatu dute Iturripen; oñatiarrak lider daude

X.U. ARRASATE

Azken urteotan Ford Mugarri Arrasate izan da –Basaurirekin batera– Euskadiko Txapelketan nagusitasuna erakutsi duen taldea. Bizkaitarrek bere horretan jarraitzen dute, baina oñatiarrek iaiztik hona koska bat egin dute gora, eta aurrealdeko postuetan zebilen taldea izatetik –Arrasateren eta Basauriren atzetik–, orain, gainditu egin dituzte, eta aurten eurak dira ligan erreferente.

Bada, rolez aldatu duten honetan, domekan indarrak neurtuko dituzte Iturripen (11:00), eta arrasatearrak errebantxa gogoz egongo dira, urriari Zubikoan jokatu zuten partiduan oñatiarrek errepaso galanta eman zieten eta (33-20).

Oñatiarrek porrot bakarra

Izarraitz Muñoz Aloña Mendi –28 puntu– sekulako erregularitasuna erakusten dabil. Ligako bigarren jardunaldiko sustoa –32-36 Deustoren kontra– alde batera utzita, gainontzeko partidua guztietan batu dute puntuaren bat –hamahiru garaipen eta bi berdinketa–. Ford Mugarri Arrasatek (21 puntu), berriz, bost garaipeneko bolada ederra zeraman, asteburuan Muskizek aurre egin dien arte (30-28).



ALEJANDRO ALTUNA
ATLETA

"Gaur egun zirkuituan aurrean egoteko erregularra izatea ezinbestekoa da. Urtea indartsu hasten duena amaierarako erre egiten da, luzea egiten delako".



MIREN JOSUNE BIKUÑA
ATLETA

"Iaz hasi nintzen kirol honetan, zerbait ezberdina egitearren, eta emaitza politak batzen hasi nintzen. Asmoa da esperientzia batzen jarraitzea".



NERE ARREGI
ATLETA

"Lesionatuta daramatzat zazpi hilabete, eta pozik hartu dut saria. Zirkuituan puntuazio sistema aldatu dutenez, sorpresa izan da txapeldun geratu izana".



OLIVER HERNANDEZ
ATLETA

"Ironman distantzian gaitzena da entrenamendu luzeak familiarekin eta lanarekin bateratzea. Urtean bat egin daiteke ondo, hortik gora...".

Derbia etzi, garaipenaren bidera itzultzeko asmoz

FUTBOLA Saillkapeneko aurrealdean jarraitu guran dabilen Mondrak jaitsiera postuetatik urruntzeko borrokan dabilen Aloña Mendi hartuko du Mojategin, domekan. Aretxabaletak ere etxean jokatu du etzi, Ordiziaren kontra

Xabier Urzelai ARRASATE

Domekako derbira begira jarri aurretik, Anaitasunaren kontrako porrotaren gainean hausnartzeko tartea hartu du Gotzon Urzelaiak, Aloña Mendiko entrenatzaileak: "Bagenekien ia dena egin beharko genuela ondo. Baloi geldituko baloi bakoitzean erakusten zuten kalitatezko jokalaria dituztela, eta gu ez ginen ondo ibili. Halako kontrario bat geratzeko %100a eman behar dugu, eta intentsitatean ez ginen kopuru horretara iritsi; ez, behintzat, lehen zatian. Ea Mojategin hori zuzentzen dugun".

Mondra, berriz, hasi da aurrealdeko talde bat izatearen prezioa ordaintzen: "Liga hasieran, kontrarioak ez ziren gure beldur, erasora egiten zuten. Orain, berriz, errespetu handiagoz jokatzeko gure kontra, atzean sartzen dira defendatzen, eta horrela zailagoa da arrisku jokaldiak egitea", dio Josu Zubiak.



2012an Txonan eta Iker Agirre lehiatzen; egun, ez daude talde horietan. GOIENA

Bada, domekan elkarren kontra jokatu dute, Mojategin (16:30). Mondrak bi aste daromatza partidurik irabazi barik, eta Aloña Mendirendako urrea da etxetik kanpora batzen duen puntu bakoitza.

UDAK Ordiziaren kontra Aretxabaletak, domekan, aurrealdekoen borrokan egon gura duen Ordiziaren bisita izango du Ibarra (16:30). Ordizia zazpigarren dago saillkapenean, eta seigarren dago UDA.

Zelan ikusten duzu kontrarioa?



JOSU ZUBIA
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Aurten, Aloña Mendiren partidu mordoia ikusi ditut, bai inguruan eta baita Donostia aldean ere. Eta Gotzonek ere oso ondo ezagutzen gaitu. Bada, txarto hasi ziren, baina oraingo Aloña Mendi ez da liga hasierakoa. Nortasuna berreskuratu dute, eta amaierara arte borrokatzen dira. Partidu zaila izango da".



GOTZON URZELAI
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Oso ondo ikusten dut Mondra, gorabehera gutxi izan dituzte orain arte, eta partidu ona egiten ez dutenean ere puntuak ateratzeko kapaz dira. Jokalarien artean ondo konbinatzen ez dutenean ere arriskutsuak dira. Jokalariak ez ditugu askorik motibatu behar, berez da partidu polita".

Arizmendiren bisita bihar

Emakumezkoen erregional mailan, Arizmendi liderraren bisita izango du Mondrak zapatu arratsaldean (18:00, Mojategi). *Titu*-ren neskak dagoeneko saillkatuta daude igoera faserako, eta egia da jokoan dauden hiru puntuak ez direla erabakigarriak, Mondra -laugarren saillkatuta- fase horretatik kanpo geratu da eta. Baina liderraren aurrean liga ondo amaitzeko aukera dute arrasatearrek. Bergarak Zumaiako hartuko du domekan (12:00).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Mondra-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Ordizia
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREF.

Idiazabal-Mondra
Domeka. 18:00. Idiazabal.
Beasain-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Beasain.
Ikasberri-Bergara
Zapatua. 17:30. Azpeitia.

LEHEN ERREG. IGOERA

Zarautz-Antzuola
Zapatua. 18:00. Zarautz.

EMAKUMEZKOEN E.

Bergara-Zumaiako
Domeka. 12:00. Ipintza.
Mondra-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Corazonistas-UDA
Domeka. 15:30. Gasteiz.
Eskoriatza-Gora Bilbao
Zapatua. 18:00. Esko.

GIPUZKOAKO TXAP.

P. Rangers- Mondrate
Domeka. 10:30. Oiartzun.

SENIOR EMAKUMEZK.

Eskoriatza-Anoeta
Gaur. 22:00. Manuel M.

SASKIBALOIA

EBA

Take Tolosa-MU
Zapatua. 20:30. Usabal.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Errobide
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIPUZK. SENIOR MAILA

Oiartzungo Saski-MU
Zapatua. 16:30. Oiartzun.

GIP. BIGARREN MAILA

Ganbara-Soraluce BKE
Zapatua. 19:15. Andoain.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO GIZONEZK.

Ford Mugarri-Aloña M.
Domeka. 11:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAKUME.

Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Soraluce BKE-Urnieta
Domeka. 13:00. Bergara.

PILOTA

Aretxabaletan:

Gaur. 19:00. Bi partidu.

Oñatin:

Gaur. 19:00. Bi partidu.

Zapatua. 16:15. Partidu bat.

Eskoriatzan:

Gaur. 19:30. Partidu bat.

Arrasaten:

Gaur. 20:40. Partidu bat.



Ariznoakoak, iazko ekainean, Antzuolan egin zuten erakustaldian. GOIENA

Gipuzkoako gimnastendako egun handia bihar, Labegaraletan

GIMNASIA ERRITMIKOA Ariznoa taldeak antolatuta, Eskolarteko Txapelketako lehen fasea jokatu dute

X.U. ARRASATE

Bihar, zapatua, Labegaraletan jokatu duten txapelketa eskolarteko A mailako lehenengo fasea izango da. Gainera, amateur federatuen mailako lehenengo fasea ere jokatu dute. Goizeko saioa 10:00etatik 14:15era egingo dute eta arratsaldekoa 16:30etik 20:30era -gutxi gorabehera-.

Ibarreko ordezkariekin

Txapelketan Gipuzkoa osotik etorritako taldeek hartuko dute esku, eta tartean izango dira

Bergarako Ariznoa taldekoak eta Arrasateko Dragoikoak.

Ariznoakoek goizeko saioan bi talde izango dituzte lehiatzen, infantilak eta kadeteak, eta baita bakarkako gimnasta bat ere. Arratsaldean beste bi talde lehiatuko dira, gazteak eta seniorrak, eta bakarka hiru gimnasta arituko dira.

Arrasateko Dragoikoen partetik, berriz, kadete eta gazte mailako gimnastak lehiatuko dira, taldeka eta bakarka; hamazazpi gimnasta. Txapelketa osoan, berriz, 130 gimnasta batuko dira.

Eskualdeko bertsolariak herriarteko txapelketan

Oñatiko Txinparta bertso eskolako bi talde eta ibarreko hainbat bertso eskolak osatu duten Debagoiena taldea izango dira lehian. Zarautzera joango dira Txinparta 2 taldekoak gaur, egubakoitza, eta datorren astean izango dute saioa beste bi taldeek

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Gipuzkoako 38 taldek hartuko dute parte gaur, egubakoitza, hasi eta maiatzaren 27ra bitartean egingo duten herriarteko bertso txapelketan.

Bertsozale Elkarteak koordinatuta, txapelketako parte-hartzaileek dute saioak antolatzeko ardura. Helburua Gipuzkoako herrietako bertso mugimendua bultzatu, indarberritu eta iku-

saraztea dela azaldu zuen Saroi Jauregik, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen lehendakariak, zapatuan egin zuten aurkezpenean. "Parte-hartzaile guztien txapelketa izango da; lehia baino gehiago, gozamina du ardatz. Multzoka banatuta, ligaxka moduan jokatu dute. Lehenengo fasea martxoaren 12rarte izango da eta multzo bakoitzetik talde bakarra sailkatuko da".

Debagoienekoak multzo ezberdinetan daude; neurri baten, aurkariak dira, beraz. Oñatin bi talde sortzeko beste bertsolari zeuden. Bailarako beste eskoletakoek beste hainbat jardunetan egin duten moduan, elkarrekin talde bakarra osatzea gurago izan dute. Hala ere, entzule moduan bada ere, bata bestearen saioan izango direla diote, lagunak dira-eta guztiak.

Taberna eta elkartean

Talde bakoitzak gura izan duen formatua eta tokia aukeratu du. "Gehienak bertso-poteo edo bertso-afariak dira. Txinparta 2 taldekoek -gure eskolako beste taldeak- gaur Zarauzko Txiki Polit tabernan dauka. Eta hurrengo zapatuan, Oñatiko Oñarri elkartearen guk, afari formatuan. Elkarte baten denez saio itxia dela uste dute askok, baina edonor etor daiteke. Txartelak Txokolateixan daude salgai; afaria eta saioa, 12 eurotan. Saio guztiak publiko guztiarentzako zabalik daude; interesa duenak gurekin harremanetan jarriz gero, elkarrekin joateko antola gaitzake", dio Iñaki Olalde, Txinparta 1-ekoak. Hurrengo egunean, otsailaren 12an, Alegian, Tolosako taldearekin jardungo duela gaineratu du Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolako Martin Berrizbeitiak.

Bina saio egingo dituzte. "Ez dira, baina, trukeak; hau da, hona datorren taldearen herrira ez zoaz zu. Guk hurrengoa Urretxu-Zumarragakoaren etxean dugu. Txinparta 2-k, berriz, Oñatin, Pako tabernan". "Gurea oraindik guztiz zurrak ez den arren, Berrizan izango da martxoaren 11n, zapatuan", dio Berrizbeitiak.

Autogestioa bultzatzeko

Bertsotan egiteko hitzordua baino gehiago da, baina, honako txapelketa hau. Taldeek antolatu behar dituzte saioak. Azpiegitura guztia sortu behar dute: bertsolariak, epailea, gai-jartzaile bana eta bestelako ardurak izango dituen ordezkari bana batu behar izan dituzte. "Saio autogestionatuak dira, bakoitzak du bere taldeak parte hartzen duen guztiaren ardura. Era berean, bertsolari gazteendako plaza aproposak dira".

Txapelketako Debagoieneko ordezkariak



TXINPARTA BERTSO ESKOLA

Txinparta 1 taldea Julen Iriondo (epailea), Iñaki Olalde (ordezkaria), Mirari Sagarzazu (gai-jartzailea) eta Joseba Lasagabaster, Andoni Goitia eta Urko Egaña bertsolariak.



TXINPARTA BERTSO ESKOLA

Txinparta 2 taldea Xabier Igartua (ordezkaria), Beñat Alberdi (epailea), Egoitz Atxaga (gai-jartzailea) eta Maider Arregi, Gontzal Belategi eta Urko Arregi bertsolariak.



LEKAIXOKA BERTSO ESKOLA

Debagoiena taldea Goian, Marixe Ruiz de Austri (bertsolaria), Martin Berrizbeitia (ordezkaria), Ibon Leibar (gai-jartzailea), Ane Zuazubiskar (bertsolaria), Behean, Haizea Arana eta Oihana Arana bertsolariak.

Gartxot Unsain Letonarentzako Jokin Zaitegi itzulpen saria

John Berkhout taldeko teklatu-joleak itzuliko ditu Bob Dylan musikariaren 100 kanturekin osatutako bilduma

A. A. ARRASATE

Literaturako Nobel saria jaso duen autorearen lana euskaratzeko da AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak abiarazitako lehiaketaren helburua. Bob Dylan musikariaren kantuak itzultze-

ko proposamena egin zuten oraingoan, eta hamalau lan jaso dituzte. Eguaztenean jakinarazi zioten Gartxot Unsain Letona donostiarrari harentzako dela aurtengo beka. Dylan bezala, musikaria da Unsain ere.

Kantuen esanahiari fidelagoa

Jon Basaguren kazetari eta musikaria eta Maialen Berasategi eta Iñigo Roque itzultzaileak izan dira epaimahaikideak; AED elkartearen Itxaro Artolaren esanetan, kostatu zitzaizkien erabakia hartzea. "Bi finalista nabarmendu zituzten, eta, azkenean, Unsainek aurkeztutakoaren alde egin zuten, itzulpen libreagoa egin duen arren, kantuen mezua eta esanahia hobeto harrapatu duela argudiatuta. Urte amaierarako bukatu beharko du lana".



Gartxot Unsain musikaria. YOUTUBE

Donizettiren 'El elixir de amor' Amaia antzokian

Aurrez egin duen eskaintzaren bide beretik jarraituta, Ozenki elkarteak opera bufoa edo komikoetan "izar handienetakoa" dena ekarriko du Arrasatera. Gasteizko Arke konpainia berriak taularatuko du martxoaren 21ean, martitzena, 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ipar Euskal Herriko herri txiki baten kokatutako istorioa jasotzen du *El elixir de amor* operak. Nemorino nekazari behartsua Adina burges aberatsarekin maiteminduta dago. Halako baten, Dulcamara saltzaile ibiltari berriak agertuko da herrian, eta Adinaren maitasuna lortzeko edabe magikoa eskainiko dio. Nekazariak edabea erosiko dio; hortik abiatuta, askotariko istorioak agertuko dira.

"Gure faboritoen artean izan da beti. Aurrez eskaini genuen *El borracho burlado*-ren bidetik jarraitu gura izan dugu genero komikoaren aldeko hautua egin da. Donizettiren handienetakoa da, munduan gehien antzeztu izan dutena. Aria edo kantu oso ezagunak ditu, *Una furtiva lágrima*, horien artean", dio Ozenki elkartearen Manu Gallardok.

Gasteizko konpainia berria

Bogan dauden taldeak ekarri izan dituzte; hala ere, Ozenkiren helburuen artean dago konpainia berriei ere tokia egitea. "Traspasos Kultur antzerki taldeak sortutakoa da. Iaz *La flauta mágica* lana Principal antzokian eskaini zutenean ezagutu genituen. Donizettiren obra hori taularatzeko asmoa zutela jakin



Miren Urbieta sopranoa Amaia antzokian egingo duten emanaldian izango da. M.U.

genuen gero; harrezkero, erraza izan da guztia lotzea. Obra estreinatuta berri etorriko dira".

Punta-puntako protagonistak

Ozenkikoei asko gustatu zitzaizkien musikarien zerrenda. "Marc Sala tenore katalana (Nemorino) eta Miren Urbieta sopranoa (Adina) opera nazionalerako maila gorenean daude. Urbietarekin aurrez hainbat kolaborazio egin izan ditugu. Horiekin batera, Elias Benito (Belcore) baritonoa eta Mikel Zabala (Dulcamara) baxua daude; gaur egun Carlos

Chausson handiaren ikaslea da Zabala. Protagonistez harago, Nurat eta Samaniego abesbatzak eta Iker Sanchezek zuzentzen duen Ganbara orkestra ere izango dira. Oso maila onekoak horiek guztiak ere".

Sarrerak, 30 eurotan salgai

Di-da baten saltzen ari direla dio Gallardok. "On line eskura daitezke Kutxabank.eus eta Arrasate.eus atarietan, baina Amaia antzokiko leihatilan eta ozenkielkartea@hotmail.es helbidera eskaria eginda ere bai".

Musika proposamen ugari otsailean Spaloia antzokian

Etsaiakeroak taldeak 'Naufrago' lan berria aurkeztuko du otsailaren 17an; sarrerak zazpi eurotan daude salgai

A. A. ELGETA

Gustura dira Spaloia antzokiko kudeatzaile berriak publikoaren aldetik jasotzen ari diren harrekin. Hori horrela, musika ardatz duen egitarau zabala prest dute datozen asteetarako.

la ekitaldi guztiak doan

"Hilean behin ekitaldi indartsu bat antolatzea da asmoa; oraingoan, Etsaiakeroak taldearen kantu berriak zuzenean entzuteko aukera izango dugu. Eurekin batera Sugoi eta Space Jam

taldeak izango dira. Sarrerak Spaloia.eus atarian eta antzokiko leihatilan daude salgai. Gai nontzeko ekitaldi guztiak doan dira", azaldu du Xabier Ulaziak.

Inun bakarlarria izango da bihar, zapatua -ikus 33.orria-. "Datorren astean, Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatzen duten Bikustik bikoteak kantu ezagunen bertsioak eskainiko ditu. Hileroko Herrixa Dantzan ekitaldia ere izango da, baita Inauterietako jai ere, otsailaren 24an".

Goiena Klubaren txokoa

Zorionak urtarileko saridunei!

ENERGY SYSTEM TS5 BOZGORAILU DORREA
Rosa Aranzabal Aranburu (Arrasate)

KORRONTZI BENEFIC MUSIKA CD-A
M.Rosario Alkorta Uria (Bergara)
Amaia Gastafiaga Balza de Vallejo (Aretxabaleta)
Emilio Bernal Alfayate (Bergara)

ARRIKRUTZERAKO BINA SARRERA
Eneritz Urbieta Atxa (Bergara)
Jon Mikel Larrañaga Irizar (Oñati)
Anabel Altuna Azkarate (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Endika Ibaibarriaga (Bergara)

BASKONIA-BILBAO BASKET PARTIDURAKO BINA SARRERA
Francisco Zubia Azkoaga (Arrasate)
Liher Eguren Toledo (Bergara)
Heriberto Zubia Uribeetxebarria (Arrasate)
Akaitz Garai Zapata (Aretxabaleta)

BASKONIA-IZAR GORRIA PARTIDURAKO BINA SARRERA
Maite Arana Osinaga (Arrasate)
Alfonso Irazabal Galdos (Eskoriatza)
Iosu Lizarralde Aiestui (Oñati)
Antxon Lezeta Abasolo (Eskoriatza)

BASKONIA-REAL MADRIL PARTIDURAKO BINA SARRERA
Leire Garmendia Zumalde (Bergara)
Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
Miriam Perez de Pedro (Bergara)
Jose Ramon Ozaeta Llodio (Arrasate)

'GU' ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA
Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
Oihana Solupe Amozarrain (Arrasate)

'SU TA GAR' KONTZERTURAKO BINA SARRERA
Luken Martin Izurtegi (Aretxabaleta)

'FRANCOREN BILOBARI GUTUNA' ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA
Iñaki Martínez Busteros (Arrasate)
Anparo Irizar Beiztegi (Arrasate)
Jokin Iturriotz Gasteiz (Arrasate)

SERGIO ENCINASEN BAKARRIZKETARAKO BINA SARRERA
Ganix Garcia Sanchez (Arrasate)

TARTUFO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Maier Etxebarria Gutierrez (Aretxabaleta)

SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Juana Arana Barandiaran (Oñati)

GAZTAINUZKETA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ana Carpintero Martin (Bergara)

ERRASTIKO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Roberto Irizar Auzolai (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:
Arrikruzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzeko txarteldagian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araoz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako **otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartela-ekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen bi sariak jasotzeko** zatuz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otarora Lizentziaduna 31. Arrasate: 943 25 05 05. Orduetgia: Asteleheneetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua

TABERNA BERRI JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...

Bazkidetu zaitze: 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKER ONA



Mertxe Uranga Arregi
Jabier Ajuriaren alarguna



2017ko urtarrilaren 27an hil zen, 83 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Arrasaten, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Jose Mari Astaburuaga Olazabal



2017ko urtarrilaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Margari Mayner Saez
Enrique Muguruzaren alarguna




2017ko urtarrilaren 27an hil zen, 91 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Arantxa Ceciaga Arenaza
Joaquin Balzateguiren alarguna



2017ko urtarrilaren 28an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Maria Teresa Azurmendi Zabaleta
'Tere'




2017ko urtarrilaren 27an hil zen.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Angel Arizabaleta Padilla
'Bolitxo'
M. Sol Astiazaranen alarguna



2017ko urtarrilaren 25ean hil zen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gure ondoan izan zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Alaitasunean, bizipozean eta sukaldaritzan aittitta onena! Gora zu!

Bergaran, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Bittori Larrinaga Abarrategi
'Mardo'




2017ko urtarrilaren 30ean hil zen, 89 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2017ko otsailaren 3an.

ESKER ONA



Angelita Beloqui Errasti
Jose Urrutiaren alarguna



2017ko otsailaren 1ean hil zen, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Eskoriatzan, 2017ko otsailaren 3an.

OROIGARRIA



Carmelo Eriz Zubia



2017ko urtarrilaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

Mahai honetan batu gaituenak zeruko mahaian batu gaitzala.

Etxekoak.
Arrasaten, 2017ko otsailaren 3an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|------------------------------|--|
| ARRASATE EGUNEZ | |
| Egubakoitza, 3 | ETXEBERRIA: Zurugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| Zapatua, 4 | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |
| Domeka, 5 | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99 |
| Astelehena, 6 | FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26 |
| Martitzena, 7 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 8 | AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Eguena, 9 | ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| BERGARA EGUNEZ | |
| Egubakoitza, 3 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Zapatua, 4 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Domeka, 5 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Astelehena, 6 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Martitzena, 7 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 8 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Eguena, 9 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| ORATI EGUNEZ BAKARRIK | |
| Egubakoitza, 3 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Zapatua, 4 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Domeka, 5 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Astelehena, 6 | ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 |
| Martitzena, 7 | ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 8 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Eguena, 9 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri
943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

URTEURRENA



Luis Arregi Liziaga



2016ko otsailaren 5ean hil zen, 75 urte zituela.

Urteurrenoko meza domekan izango da, otsailaren 5ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokian.

Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.

Elizkizunetara joango zaretenei eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2017ko otsailaren 3an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. 1956ko bergararrak**

Kintada egin zuten, duela astebete, 1956an jaio ziren bergararrek. Talde handia osatu zuten ospakizunera joan zirenek. Aspaldiko eta ez hain aspaldiko kontuak esanaz pasa zuten eguna, eta urteroko talde argazkia atera zuten. Bolua auzoan jarri ziren kamera aurrean.

2. Ipuin kontalaria Antzuolan

Hainbat ume eta gazte gerturatu ziren urtarrilaren 29an Belen Azkarate antzuolarraren ipuinekin gozatzera Antzuolako Udal Liburutegira. Euskarazko bi ipuin eskaini zituen Azkaratek, lehena 4 eta 6 urte bitarteko haurrendako eta bigarrena 7 eta 10 urte artekoendako.

3. Argentinara doanari agurra

Ander Errarte eskoriatzarra Argentinara joan da eta haren lagunek behar bezalako ospakizuna egin ez esan diote agur. Ez ei daki noiz bueltatuko den, auskalo. Baina, segurueenez, ongietorria ospatzeko beste planen bat egingo dute hemen gelditu diren lagunek. Ondo ibili!

4. Antzuolako eta Aretxabaletako mus txapelkunak

Zazpi bikotek jardun dute Euskal Herriko mus txapelketako Antzuolako kanporaketan eta Josu Zubikarai eta Josu Asensio izan dira nagusi. Aretxabaletan bost bikotek hartu dute parte eta Aitor Irure eta Mikel Iturbe izan dira nagusi. Gipuzkoako kanporaketa Ibarren izango da, otsailaren 25ean.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatuz Goienaren ordezkari zara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

#DIOTENEZ

EMAKUME PILOTARIAK

Emakumezko pilota txapelketako –Emakume Master Cup– partidu bat **Bergarako** udal pilotalekuan jokatuko da hilabete honetan, **otsailean**.

INAUTERIAK

Bergarako **Musika** Banda ari da Inauterietako **kontzertua** prestatzen. Otsailaren 24an egingo dute, hango Udal Pilotalekuan. **Laster** jarriko dituzte sarrerak

salgai eta bat eskuratu gura duenak **azkar** ibili beharko du; izan ere, urtero bezala, **ikusmin handia** dago.

AIETEN

1936ko gerra bizi izan zuten emakumeen erretratuen **argazki** erakusketa ari da prestatzen Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. **Julia Monge** arrasatearra ari da lan hori gidatzen, eta martxoaren 23an inauguratuko dute, **Donostian**,

hango Giza Eskubideen **Zinemaldiaren** barruan. Aieteko jauregian jarriko dute erakusketa hori lehenengoz, **Franco** diktadoreak uda pasatzen zuen eraikin **berean**, hain zuzen ere.

KONTROLAK

Oñatin, **Bidaurretan**, alkohol probak egin ditu Ertzaintzak azken egunetan, astelehenetik egubakoitzera bitartean, eta **herritar** batek baino gehiagok egin

behar izan du **putz** odoleko alkohol maila jakiteko.

HOR KONPON

Oñatiko Hor Konpon taldea bueltan dator. **Xabi Yaniz** (gitarra eta ahotsa), **Oskar Arlanzon** (bateria), **Andoni Campos** (baxua) eta **Koldo Lizarralde** (gitarra) entseatzen hasi dira. Laukoteak duela **20 urte** jo zuen zuzenean azkenengo aldiz, baina, elkartu badira, **berriz** jotzeko gogoia duten seinale.

'PURITO' RODRIGUEZ

Oñatin egon zen atzo, eguna, 37 urteko Joaquim Rodriguez **Purito** txirrindulari ohi ezaguna. Gaur egun **Bahrain-Merida** taldeko kidea da eta txirrindulari ekipo berriaren **maillotaz** jantzita ikusi zuten kafetegi batean.

BERTSOLARIA

Uxue **Alberdi** etorriko da Oñatiko gaztelekura bertso paper lehiaketako sari **banaketara**.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Jon Pedriel
Otsailaren 7an, 82 urtebete. Zorionak, Jon! Gure bizitzak alaitzera etorri zinen, irribarre bihurri horrekin. Amak eta familia osoak asko eta familia osoak asko eta besarkada asko!



ARETXABALETA
Alberto Sandoval
Otsailaren 7an, 82 urte. Zorionak, aitona! Musu bat biloben partetik. Denok elkarrekin ospatuko dugu. Jarraitu hain jatorra izaten. Maite zaitugu.



ARRASATE
Beñat Prol Bilbao
Otsailaren 7an, 82 urtebete. Zorionak, txapeladun, zure lehen urtebetetze egunean! Eta muxu potolo-potolo bat, Izaroren partetik.



BERGARA
Urko Bernal Varela
Otsailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, maittia. Familiako guztien partetik. Asko maite zaitugu.



ARRASATE
Garazi Prieto Goñi
Otsailaren 4an, 10 urte. Zorionak, Garazi! Bi eskuak bete ditzuzu jada! Familia osoaren partetik belarri tirakada asko eta ondo-ondo pasatu zure egunean!



OÑATI
Maialen Mendizabal Aitzelai
Otsailaren 4an, 6 urte. Zorionak, maittia! Patxo handi bat etxeko partetik. Maite zaitugu!



BERGARA
Irati Mujika Domenech
Otsailaren 4an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako Osintxuko Iratiri. Muxu pila bat familiaren eta laguneren partetik. Ondo pasatu zure eguna, potxola!



ARRASATE
Iraia eta Joritz Isasi Rodrigo
Otsailaren 3an, Iraiak 8 urte eta otsailaren 9an, Joritzek 5 urte. Zorionak, bikotetxo, familiako partetik. Patxo handi bana eta primeran pasatu ospakizun egunean.



OÑATI
Ainhize Mendibe Garai
Otsailaren 3an, 6 urte. Zorionak, printzesa, etxeko guztien eta, batez ere, Ganixen partetik.



ESKORIATZA
Anje Gabilondo Uribe
Otsailaren 3an, 6 urtebete. Zorionak, sagutxu! Muxu pila, denon partetik.



ARRASATE
Iزارo Zabalo del Fresno
Otsailaren 2an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Edarto pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Javi Sandoval
Otsailaren 1ean, 46 urte. Zorionak! Musu handi bat familiaren eta, bereziki, Alazneren, Eiderren eta amaren partetik. Jarraitu horrela; munduko aitarik onena zara!



ARRASATE
Piedad Cordero
Otsailaren 1ean, 73 urte. Zorionak, amama! Musu handi bat zuretzat, Alazneren eta Eiderren partetik. Maite zaitugu!



ESKORIATZA
Iker Vicente Raso
Otsailaren 1ean, 9 urte. Zorionak, txapeladun! Egun polita pasatu eta patxo asko, zure gurasoen partetik.



ARETXABALETA
Nahia Berridi Errasti
Otsailaren 1ean, bi urtetxo. Zorionak, sorgintxo! Disfrutatu egunaz! Muxu erraldoia, etxeko danon partetik!



OÑATI
Hegoi Garcia Calzada
Otsailaren 1ean, 2 urte. Zorionak, pittin! Txokolatezko mila muxu, familia danaren eta, bereziki, zure arreba Ane eta Enararen partetik! Segi horrelako maitagarri, maittia!



BERGARA
Irati Larrea Perez
Urtarrilaren 31n, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat familiako guztien partetik. Berezik Ane, Jurgi, Elene, Erik eta Nora.



OÑATI
Eki Palacin Aldea
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak, *guapo!* Oso ondo pasatu eguna. Bost patxo handi, danon partetik!



ESKORIATZA
Aner Blanco Alonso
Urtarrilaren 31n, 2 urtebete. Zorionak, Aner! Ondo pasatu zure eguna, etxeko guztien partetik. Patxo potolo-potolo bat!



ARETXABALETA
Unax Zuazu Oianguren
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak, pitxin! Disfrutatu egunaz... Muxu potolo-potolo bat izarren, aitaxoren eta amatxoren partetik!



ARRASATE
Eneko Izeta Herranz
Urtarrilaren 30ean, 5 urte. Munduko mutikorik politenari, zorionak eta patxo handi-handi bat aitaita-amamen, Lukenen eta familia osoaren partetik!



OÑATI
Unax Egaña Umerez
Urtarrilaren 30ean, 6 urte. Zorionak, txapeladun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo-potolo bat, etxeko partetik.



ARRASATE
Oihane Rodriguez
Urtarrilaren 30ean, 8 urte. Zorionak, *bichito de luz!* Ondo-ondo pasatu zure egunean. Patxo potoloak familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Hodei Garitaonandia Uriarte
Urtarrilaren 30ean, 9 urte. Zorionak, txapeladun! 9.000 muxu eta besarkada handi-handia, maite zaitugun denon partetik.



ARRASATE
Elene Ezkurra Bragado
Urtarrilaren 29an, 2 urte. Zorionak, Elene, familiako guztien partetik! Jada 2 urtetxo! Txoko marrubizko muxuak zuretzat. Ondo pasatu!



OÑATI
Maddi Bikuña Barbero
Urtarrilaren 29an, 2 urte. Zorionak, potxola! Patxo handi bat danon partetik zure bigarren urtebetetze honetan. Beti bezain alai jarraitu!



ARETXABALETA
Xabi Gonzalez Gonzalez
Urtarrilaren 28an, 2 urte. Zorionak, Xabi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Anje Arriola Serrato
Urtarrilaren 28an, 9 urte. Zorionak, maitxi! Handitzen zoiaren heinean, ondiokan eta hobia zara! Segi zaren modukoa izaten! Milioika patxo, etxeko partetik. Mua!



ARETXABALETA
Mikel Garcia Cornejo
Urtarrilaren 28an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Oihana Garcia Cornejo
Urtarrilaren 28an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Oier Gavilan Iturbe
Urtarrilaren 27an, 2 urte. Zorionak, Oier, zure urtebetetzean! Muxu potolo pila, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Maby Rodriguez
Urtarrilaren 27an, 2 urtebetetzea. Zorionak, Maby! Ederto pasatu zure egunean. Patxo handiak familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Ander Zumalde Aitube
Urtarrilaren 27an, 28 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Joel Sanchez Cano
Urtarrilaren 26an, 3 urte. Zorionak, maittia! Gure mutikotxia handi egiten zaigu. Ene! Asko disfrutatu eguna zure familiatxoarekin, bihotza. Maite zaitugu, pila-pila patata tortila.



ANTZUOLA
Maren Cenitagoya Bogajo
Urtarrilaren 26an, 5 urte. Zorionak, maittia! Muxu handi bat, etxeko partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3

ARETXABALETA San Blas ospakizuna

Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan. Meza esango dute eta jakiak bedekatu ostean.
Aipatutako lekuan, 10:30etan.

BERGARA San Blas eguna, Buruñao auzoan

11:00etan meza nagusia ermitan eta opilen bedekapena, ostean salda eta txorizoa eta 17:00etan txokolate-jana.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ELGETA 'Gu ere kontalari'

Kontalariak izango dira Maia, Alazne, Uxue, Janire eta Iragi.
Liburutegian, 17:00etan.

OÑATI San Blas eguna, Lagun Lekun

Eztarria babesteko bedekinatutako lokarriak jaso eta opila eta txokolatea jateko aukera, bi eurotan.
Aipatutako lekuan, 17:00etan.

OÑATI 'Jendaurrean nola hitz egin' tailerra

Jabetze Eskolakoen saio berria.
Euskaldunberri aretoan, 18:00etan.

ESKORIATZA San Blas opila egingo dute

Umeentzako ekintza, Txirikila aisialdi elkartearen eskutik.
Ludotenak, 18:00etan.

ANTZUOLA Marrazki eta margolan erakusketa

Itziar Murgizu bergararrak arkatzez, akuarelaz eta akrilikoz egindako lanak ikusteko azken eguna.
Aipatutako lekuan.

OÑATI Gernikako Arbolaren mendeurrena

18:30ean musika bandaren emanaldia, 19:00etan txistularien kalejira zuhaitzeraino, ostean alkatearen hitzak, dantza emanaldia, aurreksua, plakaren bistaratzea, bertso saioa eta abesbatzen emanaldia. *Aloña Mendi* eta *Gernikako Arbola* abestuko dituzte.
Aipatutako orduetan, zuhaitzaren ondoan.

OÑATI Mus txapelketa

Izen-ematea libre izango da, eta nahi duenarentzat afaria egongo da.
Antixenean, 22:00etan.

ZAPATUA 4

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak kantuan

Baserriz baserri jardungo dute 1998an jaiotakoek.
Herriko auzoetan, 08:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda kantuan Basabeazpikoak

Kalerik kale kantuan eta eskean ibiliko dira.
Basabeazpin, 10:30etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3-12 urte artekoendako eta euren gurasoendako eta arduradunendako askotariko ekintzak.
Musakolan, 10:30etan.

OÑATI Aratusteetako entseguak

Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entseguak.
Errekaldeko lokalean, 12:00etan.

ESKORIATZA Kinttaden Eguna

Seigarren urtez ospatuko dute eskoriatzarrek. Goizean poteoa, ostean bazkaria eta eguna bukatzeko parranda.
Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.

BERGARA San Blas jaiak, Buruñao auzoan

16:00etan mus txapelketa eta 20:30ean auzoko afaria.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ARRASATE Aratusteetarako karrozak

Tailerra egingo dute gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

BERGARA Sukaldaritzaren tailerra

Gaztetxoendako ekintza. San Blas opilak egingo dituzte.
Gaztelekuan, 17:30etan.

ESKORIATZA Karta jokoak ezagutu eta jolastu

Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30etan.

ARETXABALETA Agertokiko murala margotu

Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30etan.

BERGARA Santa Ageda bezpera

Alai taldearen kalejira, Santa Agedari kantatuz.
Kalerik kale, 18:00etan.

ANTZUOLA Santa Ageda eskea

Txistulariak, abesbatza, Anelkar elkarte eta Saharako lagunak irtengo dira. Batutako dirua Saharako umeen *Oporrak* bakean kanpaina bultzatzeko izango da.
Herriko plazan, 18:30etan.

ELGETA Inun bakarlarria

Da nola disko berria aurkeztuko du.
Spaloian, 19:30etan.

OÑATI WC, Txua eta Txipittu taldeen kontzertua

Punk, rock eta oi! doinuak nagusi otsaileko lehen zapatutako.
Gaztetxean, 21:00etan.

DOMEKA 5

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak

1998an jaiotakoak ibiliko dira kantuan eta dantzan. 19:00etan, aurtengo lehenengo dantza saioa egingo dute.
Herriko Plazan, 09:00etan.

ARETXABALETA Kurtzetxikira mendi irteera

Aretxabaletako Guraso Foroaren, Murruxiko mendizale elkartearen eta Eskoriatzako Hezkuntza Foroaren eskutik.
Herriko Plazan, 10:00etan.

BERGARA Txistulari bandaren kalejira

Askotariko doinuak joko dituzte.
Herriko Plazan, 10:00etan.

ARRASATE Arrasateko hiribildua ezagutzeko bisita

Dimbi Danba mailukaren hotsa erakusketaren inguruan, Iraganeko Oinatzak-eko kideen eskutik. Aldez aurretik eman behar da izena, BAZen, *Arrasate.eus*-en edo 943-25 20 00 telefonoan.
Harresi aretoan, 11:00etan.



GANSO

ARRASATE 'Kaput' antzezlanaren umeendako

Bi zororen eta auto baten ihesaldia kontatzen du Ganso taldeak. Dibertitzeko eta publikoa hunkitzeko gai den hitz bako bidaia. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA San Blas Txiki eta Santa Ageda, Buruñao auzoan

11:00etan meza, ostean salda auzoko elkartearen eta motozerrarekin egurrezko irudiak egiteko saioa eta 12:30ean Aranzadi Ikastola-Moises Azpiazu taldearen dantza emanaldia.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ELGETA San Blas ospakizuna, Arantzeta auzoko ermitan meza

Meza berezia emango dute 12:00etan.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ARRASATE Aratusteetarako karrozak egiteko tailerra

Gaztetxoendako ekintza.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ESKORIATZA Txintxon lehiaketa

Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30etan.

ARETXABALETA Pelikula

Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30etan.

BERGARA 'Azken batailoia' erakusketa

Intxorta 1937 Kultura Elkartearen eta Mauro Saravia argazkilariaren erretratu bilduma ikusteko azken eguna. 29 gudari eta milizianoaren argazki artistikoak.
Aroztegin.

ESKORIATZA Kintoen dantzak

Ekitaldia egingo dute Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan, baina

aurretik zaharren egoitzatik ere pasako dira, ohiturari jarraituz, egoiliarrei ere dantzak egiteko.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ASTELEHENA 6

ARETXABALETA Odol ematea

Odola emateko dei egin dute Arabako odol bankuko kideek.
Durana kalean, 16:45ean.

OÑATI Artixa taldearen erakusketa

Foruen plazan dagoen Gernikako Arbolaren 100. urteurrenaren harira, XX. mendeko lehen erdian Oñati nolako zen erakutsiko dute erakusketan.
Kultura etxean, otsailaren 13ra arte.

MARTITZENA 7

ARRASATE Ipuin kontaketa

3 urtetik gorakoendako saioa, Izaskun Mujikarekin.
Santa Marinako bibliotekan, 18:00etan.

ESKORIATZA Karta jokoak

Erretiratuendako txapelketak.
Kultura etxean, 18:30etan.

OÑATI Literatura solasaldia

Cormac McCarthyren *La carretera* liburuaren gaineko saioa egingo dute, gaztelez, Ruben Arias moderatzailearekin.
Liburutegian, 18:30etan.

OÑATI Aratusteetako entseguak
Otsailaren 25eko Aratuste herrikoiko entsegua.
Errekaldeko lokalean, 20:00etan.

ARRASATE 'La reconquista'
Jonas Truebaren pelikula. Itsaso Arana eta Francesco Carril dira protagonistak.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 8

BERGARA Kafe Konpon
Ettxeko tresna txikiak konpontzeko tailerra egingo dute.
San Joxepen, 16:00etan.

ESKORIATZA Txotxongiloak egitea
Umeendako ekintza.
Ludotekan, 18:00etan.

ESKORIATZA Karta jokoak
Erretiratuendako txapelketak.
Olazarren, 18:30ean.

OÑATI 'Aseritibitate eta gatazka konponketak'
Jabetze Eskolako tailerra.
Euskaldunberri gelan, 18:15ean.

OÑATI Korrika batzordearen batzarra
Herrian egin beharreko ekintzen zerrenda egiten hasiko dira.
Euskaldunberri gelan, 18:30etan.

OÑATI Autoformazio tailerra
Jorge Oteizaren pentsamendua. Quosque Tandem&...! liburua oinarri hartuta egingo dute tailerra.
Antixenean, 18:30ean.

BERGARA 'Basker Bergara 1963an' dokumentala
Argibel Eubaren lanaren aurkezpen ekitaldia egingo dute. Ostean, egilearekin berarekin solasaldia egingo dute. Sarrerak, hiru euro.
Zabalotegin, 20:00etan.

OÑATI 'Ur estimulazioa jaioberriendako' ikastaroa
Martxoaren 4an egingo dute kiroldegian eta 0-24 hilabete arteko jaioberrien gurasoendako izango da. Lara Martin izango da irakaslea. Arlo teorikoa eta praktikoa landuko dituzte eta gutxienez sei guraso

beharko dira ikastaroa egiteko. Izena emateko epea zabalik dago, otsailaren 21era arte.
Izen-ematea, Zubikoa kiroldegian.

ANTZUOLA Midfullnes-a eta meditazioa
Felix Laskurain astean behin elkartzen da herritarrekin. Parte hartzeko deitu 652 77 15 83 telefonora.
Olazarren, 18:30ean.

EGUENA 9

ARRASATE Ipuin kontaketa
5 urtetik gorakoendako saioa egingo du Izaskun Mujikak.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Aretxabaletako Aratusteak'
Urteko egunik koloretsuaren gaineko erakusketan argazkiak dira protagonista. Ikusgai dago otsailaren 28ra arte.
Arkupen.

ESKORIATZA 'Kazetari Kanaia' hitzaldia
Euskal Herriko ikerkuntza kazetaritza landuko duen proiektuaren inguruan egingo du berba Igor Meltxorrek.
Kultura Etxean, 18:30ean.

DEBAGOIENA Lehen sorospenen ikastaroa
Debagoieneko Gurutze Gorriak emango du otsailaren 24tik martxoaren 24ra. Izena emateko: 678 40 15 86 telefonoa.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

OÑATI 'Los exámenes' hitzaldia
Cristina Mungiuren pelikula. Adrian Titiene eta Vlad Ivanov dira protagonistak.
Kultura Etxean, 20:00etan.

ARRASATE Amorante bakarlarria
Hogei urte musikari askoren bidelagun izan ondoren, Iban Urizar bakarka dator askotariko perkusio tramankuluak bere ahots tarratatuarekin uztartzeko. Kooltur Ostegunak ekimeneko kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Gaztetetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Silencio
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Monster trucks
Domeka: 17:00.

BERGARA
ZABALOTEGI
Demolicion
Domeka: 19:30.
El principito
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Figuras ocultas
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

Ozzy
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

ARETXABALETA
ARKUPE
Vuelta a casa de mi madre
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Heidi
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR
COLISEO
La La Land
Zapatua eta domeka: 17:00.

Lion
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.
Frantz
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

La La Land
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Teresa eta galtzagorri
Domeka: 17:00.

GASTEIZ

BOULEVARD
Resident Evil
Egubakoitzetik martitzena eta eguna: 17:00, 19:10, 21:20, 23:30.
Astelehena: 17:00.
Egubakoitza: 17:00.

Resident Evil 3D
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

Manchester frente al mar
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:40, 22:20.

XXX: Reactivated
Egubakoitza eta zapatua: 15:45, 18:00, 20:15, 22:40.
Domekatik eguenera: 15:45, 18:00, 22:25.

La La Land
Egubakoitzetik eguenera: 17:10, 19:20, 19:45, 21:30, 22:20.

Figuras ocultas
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:20, 21:50.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:40, 22:10.

Ballerina
Egubakoitzetik domekara: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:15.
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:15.
Domekatik eguenera: 17:15.

Multiple
Astelehenetik eguenera: 16:00, 18:25, 20:50, 23:15.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Underworld
Egubakoitza eta zapatua: 22:25.
Domekati eguenera: 22:50.

Lion
Egubakoitzetik eguenera: 17:55, 20:15, 22:35.

Monster trucks
Zapatua eta domeka: 15:45.

Los del tunel
Egubakoitzetik eguenera: 20:20.

Passengers
Egubakoitzetik eguenera: 20:10.

Contratiempo
Domekatik eguenera: 19:15.

Vaiana
Zapatua eta domeka: 15:45.

jCanta!
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:10.

FLORIDA
Ballerina
Egubakoitza: 16:50, 19:40.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:50, 19:40.

Ballerina (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Manchester frente al mar
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 18:40, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

Comancheria
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Hotel Europa
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Loving
Egubakoitzetik eguenera: 20:00, 22:30.

La La Land
Egubakoitzetik eguenera: 17:20, 20:00, 22:30.

Figuras ocultas
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 22:30.

Lion
Egubakoitzetik astelehenera, eguaztena eta eguna: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30, 22:30.

Tarde para la ira
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

Multiple
Egubakoitzetik domekara: 18:15, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

Los del tunel
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

Toni Erdman
Egubakoitzetik eguenera: 19:30.

Contratiempo
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

Vaiana
Zapatua eta domeka: 12:00.

jCanta!
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Multiple ★★★★★

Zuz.: M. Night Shyamalan. **Herr.:** AEB (2017). **Aktoreak:** James Mcavoy, Anya Taylor-Joy, Betty Buckley.

Buruaren konplexutasuna

ANTONIO ZABALA

Filmaren hasieran pertsona batek hiru nerabe bahitzen ditu. Pertsonaia horren barnean 23 nortasun ezberdin elkarrekin bizi dira. Badira besteak baino indar gehiago duten nortasunak. Aspaldi, pertsonen edo animalien bizitza oparitzen zitzaizkion Jainkoari. Oraingo honetan, nesken bizitzak oparitu nahi dizkiote beste pertsonaia indartsuari. Agerraldi hori eman arte, alde batetik, izango dugu suspensea nesken bizitzekin zer gertatuko den jakiteko. Beste batetik, psikiatra bat dago, pertsonaiaren gaixotasun psikikoa osatu nahian, eta kezkatuta dago, zer bait arraroa sumatzen duelako. Hirugarren puntua izango da bahitzailearen barnean nortasun desberdinen arteko gatazka nola bukatuko duen ezagutzea. Bahituen artean dagoen neska batek pisu



EUROPA PRESS

handiagoa izango du istorioan, desberdina izan arren bahitzailearen izaeratik gertuen dagoena delako. Tratu txarrak jasan dituzten pertsonaia dira. Zuzendariaren beste film batzuei gertatzen zaien moduan, kontatzeko moduak kontatzen duenak baino indar handiagoa du. Esku ona du suspensea eta

atmosfera itogarriak sortzeko. Berehala istorioan sartzen gaitu, tentsioa jasaten dugu eta pertsonaien kezka filmatzeko modua ederra da. James Mcavoy-k ondo hartzen dio puntua bere pertsonaiari. Baina azkenean, istorioaren barnean gauza handirik ez dagoen sentsazioa geratzen zaigu.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Peaje bateratua

Hizpide izan da lurralde arteko peajeen deskontu bateratua, eta informazio nahasiak ikusi ditugu.

Gipuzkoarrek, bizkaitarrek eta arabarrek foru aldundiek lagundutako deskontuak ditugu autopistetan, lurralde bakoitzean desberdinak. Deskontuak lortzeko, erabiltzaileak ezin dira aktibitate ekonomikoak izan, ez enpresak, ez garraioliariak, ez taxilariak... Horretarako, lurralde bakoitzean erroldatuta eta Ogasunarekin eguneratuta egon behar du norberak.

Peajeak erabiltzaileak ordaindu behar ditu gaitasun handiko autopistetan, errepide hauek egoera egokian mantentzeko diru asko behar baita. Adibidez, 3 kilometrotan zorua birgaitzea milioi bat euro kostatzen da. Eta mantentze-lan hauek etengabe berritzen dira. Baina gipuzkoarrok kanpotarrekiko beste tratamendu bat daukagu; ordaindu bai, baina dezente gutxiago.

Deskontu sistema bateratu berriak ekarriko luke Bizkaira eta Arabara AP-8 eta AP-1etik joaten garen gipuzkoarrok han ere deskontuak izatea. Herri ikuspegitik pauso nabarmena eta gipuzkoarren poltsikorako abantaila. Horretan ari gara lanean, baina hau berme juridiko eta teknikoekin ondo egin beharra daukagu.

BUKATZEKO



Texasko unibertsitatetik praktikak egitera etorri diren ikasleak. HUHEZI

Nazioartetik praktikak egitera, estreinakoz

Huezi fakultatearen 'Placements for Teaching Practice' mugikortasun programaren baitan, Texasko unibertsitateko bost ikasle etorri dira irakasle izateko praktikak egitera; helburu nagusia da hemengo ikastetxeetako hezkuntza proiektuak ezagutzeko.

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Aurten estreinatu den mugikortasun programa horren bitartez, Huhezik norbere beharretara egokitutako egonaldia egiteko aukera eskaintzen die nazioarteko ikasleei euskal eskoletan, Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan.

"Kanpoko unibertsitateetako koordinatzaileek ikasleen ikas-

te-kontratuak bidaltzen dizkigute, eta bertan azaltzen da ikasle bakoitza ze ikasketa egiten ari den, ikasketa horien baitan ze espezialitate egiten ari den, eta ze adin-tartetan egin nahiko luketen praktikaldia", adierazi du Tane Bikuñak, hezkuntza ikasketetara datozen nazioarteko ikasleen koordinatzaile akademikoak.

Programa horren bitartez, lortu nahi dena da, alde batetik, unibertsitateen arteko harremanak lotzea." Gu oso unibertsitate txikia gara, eta, guretzako, Texasko unibertsitate batek guran konfiantza jartzea euren ikasleak etortzeko, aurrerapauso izugarria da. Finean, unibertsitateen arteko nazioarteko alde biko akordioak lortzea da

helburua. Gaur egun, asko baloratzen da beste unibertsitate batzuekiko kolaborazioa eta lan-kidetzaren moduak bilatzea", azaldu du Bikuñak.

Beste helburu bat "irakasle izateko prestatzen ari diren ikasleek gure ikastetxeen hezkuntza proiektuak hurbiletik ezagutzeko, egiteko moduak behatzeko eta horietan parte hartzeko aukera eskaintzea" da.

Horrez gain, nazioarteko ikasleek eta bertako arteko harremanak sustatzeari ere garrantzitsu deritzo Bikuñak.

Texasko unibertsitatetik

Kasu honetan, Texasko unibertsitatetik –Texas Christian University– bost ikasle etorri dira: Victor Flores, Camila Padilla, Andrea Lopez, Jilian Dreixler eta Melissa Piesche.

Hain justu, Arizmendi Ikastolan, Antzuolako Herri Ikastetxean eta Legazpiko Haztegi Ikastolan egingo dituzte praktikak.

Aste honetan iritsi dira Euskal Herrira eta otsailaren 24ra arte egongo dira.

Ikasleak, gustura

"Texasko unibertsitateak eskaintzen zigan aukera guztietatik, hau iruditu zitzaigun aipose-na, eta horregatik erabaki genuen hona etortzea", dio Camila Padilla ikasleak. "Gainera, lehenak izan gara gure fakultateetik Espainiako Estatuko unibertsitate batera praktikak egitera etortzen", azaldu du.

Ikasleak gaineratu du egun hauetan ezagutu ahal izan dutena asko gustatu zaiela, "bai paisaiak, bai jendearen adeitasuna, eta baita hemengo hezkuntza sistema ere".



Aste honetako Puntua aldizkarian

Atzerrian lan egitearen gorabeherak



EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak. | Puntua aldizkaria astero etxean. | Deskontuak Goienako iragarki sailkatu eta eskeletan. | Zozketetan eta promozioetan parte hartzeko aukera.

Urteko kuota: **55€**. | 943 25 05 05

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!